



→ Baldintza orokorrak



MAPFRE



MAPFRE

MAPFRE ESPAÑA
COMPAÑÍA DE SEGUROS
Y REASEGUROS, SA
HELBIDE SOZIALA
Edificio MAPFRE.

Carretera de Pozuelo, 50.
28222 MAJADAHONDA
(Madril)

Tel. 918 365 365 / 900 822 822



Etxerako Aseguru Konbinatua

Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/80 Legeak xedatzen duenaren arabera, polizaren Baldintza Orokorrek biltzen dituzten asegurudunen eskubideei buruzko eskusioak eta klausula mugatzaileak letra lodiz bereiziko dira.

Muga zehatzak (MZ)

ASEGURA DAITEZKEEN ONDASUNAK

ETXEBIZITZA	Aseguratutako zenbatekoa (A.Z.)
ALTZARIAK	Aseguratutako zenbatekoa (A.Z.)
Mugak aurkakoa adosten ez bada:	AZren % 25 eta 3.000 euro
• Balio bereziko objektuak	objektu bakoitzeko
• Erabilera profesionaleko ondasunak	AZren % 25
• Lorategietako, garaieetako eta ongi itxita dauden antzerako erabilera pribatuko lekuetako objektuak	AZren % 10 eta 3.000 euro ezbehar bakoitzeko
• Motordun ibilgailuak eta ontziak	AZren % 10 eta 3.000 euro ezbehar bakoitzeko
• Hirugarrenen jabetzak	1.500 euro ezbehar bakoitzeko

BITXIAK, DIRUA ETA KREDITU-TXARTELAK

Mugak aurkakoa adosten ez bada:	
• Bitxiak	Aseguratutako zenbatekoa 3.000 euro objektu bakoitzeko
— Seguratasuneko kutxa gotorraren kanpo utzitako bitxiak.....	Bitxien AZren % 25 eta gehienez ere 6.000 euro ezbeharreko
• Dirua eta txekeak.....	300 euro
• Kreditu-txartelak	600 euro

ETXEBIZITZA ETA ALTZARIENTZAKO ESTALDUREN LABURPENA

KALTE MATERIALAK

• Sutea eta bestelako kalteak:	
— Sutea, leherketa edo inplosioa.....	Muga Zehatzik Gabe (MZG)
— Istripu jatorriko kea.....	(MZG)
— Tximistak eragindako kalte zuzena edo hark sortutako korrante elektriko ezohikoak	(MZG)
— Aseguratutako higiezinaz kanpoko lanengatik lursaila istripuz erortzea	(MZG)
— Lehorreko ibilgailuen, aireontzien talka edo txokea nahiz horiek eta kanpoan jatorria duten objektuek sortutako soinu-uhinak eta turbulentziak	(MZG)
— Ekintza bandalikoak.....	(MZG)
• Fenomeno atmosferikoak:	
— Fenomeno atmosferikoak (euria, haizea, txingorra edo kaskabarra eta elurra)	40 l/m ² /h baino gehiagoko euria, 80 km/h baino gehiagoko haizea, txingorra eta elurra (MZG)
• Kalte elektrikoak:	
— Kalte elektrikoak	(MZG)
• Urak eragindako kalteak:	

Muga zehatzak (MZ)

— Aseguratutako ondasunei eragindako kalteak	(MZG)
— Matxurak lokalizatzea eta hoditeriak konpontzea	(MZG)
• Hausturak:	
— Beirak, kristalak, ispiluak eta beirateak	} % 100 gehienez 3.000 Euro pieza bakoitzeko
— Harraskak eta osasun aparatu finkoak	

LAPURRETA

• Lapurreta eta arrazoi horrengatik kalteak	(MZG)
• Ebasketa eta bidegabeko jabetzea.....	1.500 Euro ezbeharreko

ARRISKU OROTAKOAK

• Istripuagatik Orotakoa:	
— Aseguratutako ondasunetan eragindako bestelako edozein kalte.....	Aseguratutako zenbatekoa Frankizia 100 Euro
— Etxean gertatutako istripuengatik premiazko osasun-laguntza ..	150 euro asegurdun bakoitzeko
• Arrisku Teknologiko Orotakoa:	
— Aseguratutako telefonia-, informatika-, irudi- eta soinu-aparatueta eta wearable gailuetan beste edozein kalte	AZren % 5 Altzarrietan eta 3.000 euro ezbehar eta urteko Frankizia 100 Euro

KALTE ESTETIKOAK

• Aseguratutako ondasunen berrezarpen estetikoaren gastuak	Aseguratutako zenbatekoa
------------------------------------------------------------------	--------------------------

PRESTAZIO BEREZIAK

• Etxebizitzaren habitaezintasuna:	
— Hotelean aldi baterako egotea	10 egun eta 100 euro eguneko eta pertsona bakoitzeko 3.000 Euro ezbeharreko
— Etxea aldi baterako alokatzea.....	12 hilabete eta 12.000 Euro ezbeharreko
— Aseguratutako ondasunak altzari-gordelekura edo aldi baterako etxera garraiatzeko, bertan egoteko eta itzultzeko gastuak.....	Hilabete bat gehienez
— Aseguratutako ondasunei altzari-gordelekura edo aldi baterako etxera garraiatzean edo bertan egotean eragindako kalteak	% 100
— Jatetxeko eta ikuztegiko gastuak, asegurdunaren etxeko sukaldean kalteak jazo diren kasuan	Gehienez 10 egun eta 100 euro egun bakoitzeko 1.000 Euro ezbeharreko (MZG)
• Dokumentuak berriro lortzea	} % 5 S.A. Etxebizitza eta/edo altzariak ezbeharreko
• Aseguratutako ondasunei eragindako kalteak, ezbeharra ebazteko edo geldiarazteko hartutako neurriengatik	
• Ezbeharra ebazteko eta geldiarazteko gastuak	
• Hondakinak eta lokatza ateratzeagatik, eraispenagatik eta salbamenduagatik gastuak	
• Lapurreta bateko lesioengatik premiazko osasun-laguntza	

Muga zehatzak (MZ)

BERME OSAGARRIAK

- Aseguratutako ondasunen aldi baterako lekualdatzea:
 - Altzariak AZren% 10 .
 - Bitxiak 3.000 Euro ezbeharreko (MZG)
- Uholdeak (MZG)
- Jatorri elektrikoko kalteak..... 300 Euro ezbeharreko
- Hoztutako elikagaien galera Esku-hartze bana urteko eta 300 euro gehienez
- Buxadurak
- Honako hauen haustura:
 - Higigarriak, gainak eta apalak, metakrilatozkoak, marmolezkoak, granitozkoak, harrizkoak edo antzerako mineralz eginak } % 100 eta gehienez
 - Material zeramiko beiraztatuz egindako sukaldeko plakak } 3.000 Euro pieza bakoitzeko (MZG)
- Etxebizitzara sartzeko sarrailen eta ateetako giltzen ordezkatzeko giltzak lapurtu, ebatsi, bidegabe jabetu edo galdu badira
- Ebasketa, bidegabeko jabetzea eta gauzen aurkako indarra etxebizitzaren kanpoaldean 200 Euro ezbeharreko
- Etxebizitzaren kanpoaldean pertsonen aurkako indarkeriaz edo bortxaz lapurtzea:
 - Jantziak eta norberaren gauzakiak 600 Euro ezbeharreko
 - Dokumentuak berriro lortzea..... 150 Euro ezbeharreko
 - Bitxiak 600 Euro ezbeharreko
 - Eskudirua 150 Euro ezbeharreko
 - Txekeak (bidegabeko kobrantza) 300 Euro ezbeharreko
- Kreditu-txartelen iruzurrezko erabilpena 600 Euro ezbeharreko

ESTALDURA BEREZIAK

ETXEBIZITZAREN JABEAK ALOKAIRU ERREGIMENEAN

- Errentariak sortutako kalteak 3.000 euro ezbeharreko eta 6.000 euro urteko Alokairuko hilabeteko frankizia, gutxienez 600 euroekin
- Etxebizitzaren habitaezintasuna
 - Alokairuen galera 12 hilabete 12.000 Euro ezbeharreko
 - Aseguratutako ondasunak altzari-gordelekura edo aldi baterako etxera garraiatzeko, bertan egoteko eta itzultzeko gastuak Sei hilabete gehienez
 - Aseguratutako ondasunei altzari-gordelekura edo aldi baterako etxera garraiatzean edo bertan egotean eragindako kalteak.... % 100
- Erantzukizun Zibila (etxebizitzaren jabeari dagokionean):
 - Kalte-ordainak eta fidantzak. Kostu judizialak. Helbide juridikoa..... Aseguratutako zenbatekoa

ETXEBIZITZAREN ERABILTZAILEAK ALOKAIRU ERREGIMENEAN

- Etxebizitza (Jabekideen Erkidego baten barruan egoteagatik ordaintzen den kuota izan ezik) Aseguratutako zenbatekoa
- Errentatzailearen altzariak (Errentariaren altzariak aseguratuta daudenean) Benetako balorea 3.000 euro ezbeharreko

Muga zehatzak (MZ)

- Etxebizitzaren instalazioetatik ur-ihesen ondorioz hirugarrenei eragindako kalteengatik erantzukizun zibilaren estalduraren zabalakuntza Aseguratutako zenbatekoa. Etxebizitzako kalteak kanpo.
- BIGARREN EDO DENBORALDIKO ETXEBIZITZAK**
- Lapurreta etxea hutsik zegoenean 3.000 euro objektu bakoitzeko, muga txikiagoa ezartzen denean izan ezik
- Etxebizitzaren desgaikuntza asegurduna oporretan dagoen bitartean:
 - Hotelean aldi baterako egotea (mantenu osoan, ikuztegiko gastuak barne) 100 euro asegurdun eta egun bakoitzeko, gehienez 10 egun 3.000 euro ezbeharreko
 - Etxea aldi baterako alokatzea 3 hilabete. 3.000 Euro ezbeharreko
 - Jatetxeko eta ikuztegiko gastuak, asegurdunaren etxeko sukaldean kalteak jazo diren kasuan 100 euro egun bakoitzeko gehienez 10 egun - 1.000 euro ezbeharreko

BESTE ESTALDURA BATZUK

ERANTZUKIZUN ZIBILA

- Kalte-ordainak eta fidantzak.....
 - Kostu judizialak eta zuzendaritza juridikoa
- } Aseguratutako zenbatekoa

ETXEKO ANIMALIAK

- Kalteak 1.000 euro animalia bakoitzeko
15 eguneko gabealdia
- Istripua..... Aseguratutako zenbatekoaren % 100
- Albaitaritzako gastuak Aseguratutako zenbatekoaren % 100
- Lapurreta edo galera:
 - Animaliaren galera Aseguratutako zenbatekoaren % 100
15 eguneko gabealdia
 - Bilaketa (prentsa edo irratia) 150 euro animalia bakoitzeko
- Sakrifizioa eta hilotza desagerraraztea:
 - Zahartzaroa edo eritasun sendaezina 150 euro animalia bakoitzeko Urtebeteko gabealdia
- Txakur edo katuen egoitzarako egonaldia:
 - Jabea ospitalean egoteagatik 300 euro urteko

ZERBITZUAREN ESTALDUREN LABURPENA

ETXEKO ASISTENTZIA

ASISTENTZIA URGENTEA ETA ADITUEKIN KONEXIOA

LARRIALDIKO ZERBITZUAK

- Sute, leherketa, uholde edo lapurreta-ezbehar baten ondorioz:
 - Etxebizitzaren zaintza eta babesa 3 egun
 - Telebista eta bideo gailuak aldi baterako ordezkatzeta 15 egun

Muga zehatzak (MZ)

KONPONKETAK, BERRITZE-LANAK ETA BESTELAKO ZERBITZUAK:

— Sarraila, beira, elektrizitate eta iturgintzako matxuren konponketa urgentea (beste estalduretan sartzen ez diren kasuetan).

— Sarraila-matxurengatik etxetik irten ezin duten pertsonen salbamendua

— Berritze-lanak eta bestelako konponketak egiteko profesionalak

3 orduko eskulana eta joan-etorriak. Laneko materialak eta esku-lanordu gehiago asegurdunaren kontura

600 euro

Lotura-zerbitzua eta gainbegiratzea. Asegurdunaren konturako gastuak

KONPONKETA ETA BRIKOLAJERAKO ASISTENTZIA

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK KONPONTZEKO ZERBITZUA

3 orduko eskulana, joan-etorriak eta piezak.
2 esku-hartze urteko

ETXEKO BRIKOLAJE ZERBITZUA

3 orduko eskulana eta joan-etorriak. Laneko materialak eta esku-lanordu gehiago asegurdunaren kontura.
2 esku-hartze urteko

FAMILIA-ASISTENTZIA

FAMILIA-ASISTENTZIA

• Etxebizitzan gertatutako istripuen ondorioz:

— Osasun-langileak etxean.....

— Etxeko langileak etxean, bajaren hamargarren egunetik aurrera.....

3 hilabete eta 3.000 euro ezbeharreko

3 hilabete eta 20 euro eguneko eta 1.500 euro ezbeharreko

— Irakasleak etxean, bajaren hogeita hamargarren egunetik aurrera.....

6 hilabete eta 1.200 euro ezbeharreko

ANIMALIEI BURUZKO INFORMAZIO-ZERBITZUA

• Animaliekin zerikusia duten zalantza telefonikoak (legea, albaitaritzako zalantzak, txakur eta katuentzako egoitzak eta zalantza orokorrak).....

Erabilera librea

TELEFONO BIDEZKO ORIENTABIDE MEDIKOKO ZERBITZUA

• Pertsonen osasunarekin zerikusia duten zalantza edo arazoak mediku eta espezialistei.....

Erabilera librea

LAGUNTZA INFORMATIKOAREN ZERBITZUA

• Urrutiko Laguntza Informatikoa

Gehienez 3 ordenagailu eta 3 gailu eramangarri poliza bakoitzeko

• Datuak berreskuratzeko zerbitzua

Urtean gehienez 2 zerbitzu

• Urruneko segurtasun-kopiaren zerbitzua

15 Gbyte arte ordenagailuko

• Antibirusa eta Gurasoen Kontrola.

Gehienez 5 instalazio poliza bakoitzeko

• Etxeko Laguntza Teknikoa

Gehienez 3 ordenagailu poliza bakoitzeko / 2 zerbitzu ordenagailu eta urteko

Muga zehatzak (MZ)

BABES DIGITALA	Gehienez 6 nortasun edo gailu poliza bakoitzeko
LAGUNTZA ONLINE JARDUERETAN: TELELANA, IKASKETAK, AISIALDIA ETA EROSKETAK	Mugak baldintza orokorren arabera
DEFENTSA JURIDIKOA	
OINARRIZKO MODALITATEA	
• Kostu judizialak, lege zuzendaritza eta lotutako gastuak:	} Aseguratutako zenbatekoa
— Kalte eta galeren erreklamazioa (kontratuzko erruaren ondoriozkoak barne).....	
— Defentza penala, absentsia eta legezko heriotza	
• Profesionalen jarduketak eta ordainsariak.....	} Erabilera librea
• Orientazio juridikorako telefono zerbitzua	
MODALITATE ZABALDUA	
• Jabetzako eskubidea	} Aseguratutako zenbatekoa
• Alokatzeko eskubidea	
BIDAIAKO ASISTENTZIA	
Gaixotasuna edo istripua atzerrian:	
— Sendatzeko gastuak	12.000 euro
— Egonaldiaren luzapena, medikuak aginduta.....	150 euro eguneko eta 1.500 euro gehienez
— Lekualdatzea edo herriratzea	% 100 Aireko bide bereziak, Mediterraneo ertzetako herrialdeetara eta Europako gainerako herrialdeetara mugatzen dira.
• Lokalizatzea eta salbamendua.....	1.500 euro
• Lagunkidearen gastuak:	
5 egun baino gehiagoko ospitalerazteetan:	
— Lekualdatzea eta itzulera	(MZG)
— Egonaldia eta ostatua:	
* Espainia	120 euro eguneko eta 1.200 euro gehienez
* Atzerria	150 euro eguneko eta 1.500 euro gehienez
— Asegurudunaren lekualdatzea edo herriratzea, bere osasun-egoera dela-eta:	
* Asegurudunak itzultzeko erabili duen garraibide berean itzuli den kideetako baten bidaia-gastuak. Aseguruduna edo lagunkidea hamabost urtetik beherakoa balitz eta bakarrik bidaiatuko balu, itzuleraren kasuan konpainiak laguntzeko langile bat hornituko du	% 100
• Segizio-gastuak asegurudunaren heriotzagatik:	
— Hiltze-tokira heltzeko eta ehorzketa-tokira itzultzeko bidaia-gastuak, onuradunek izendatutako pertsonarentzat, hildako asegurudunaren gorpuzkiak ekartzeko	BARNE DAGO

Muga zehatzak (MZ)

— Egonaldia eta ostatua Espainian	120 euro eguneko - 1.200 euro gehienez
— Egonaldia eta ostatua atzerrian	150 euro eguneko - 1.500 euro gehienez
• Asegurudunaren aurretiazko itzulera	
— Itzultzeko bidaia-gastuak ohiko garraiobideren batean	(MZG)
• Bagaiearen lapurreta edo galera:	
— Hura berreskuratzeko aholkua eta bidalketa gastuak	(MZG)
— Jantzien eta garbitzeko objektuen erosketa	300 euro pertsonako eta 1.200 euro ezbarreko
• Sendagaien bidalketa	(MZG)
• Funtsak aurreratzea atzerrian	900 euro
• Premiazko mezuak igortzea	(MZG)
EZOHIKO ARRISKUEN ASEGURUA (ohiz kanpoko gertakarien ondoriozko galeren kalte-ordainen klausula) ..	Estaldura bakoitzarentzat aseguraturako zenbatekoak eta mugak Frankizia klausularen arabera

Baldintza orokorrak

• 1. Artikulua. Atarikoa	13
— 1.1. Definizioak	13
— 1.2. Kontratuaren Eragina Eta Iraungipena.....	15
— 1.3. Asegurua Urrutiitik Kontratatzea	16
— 1.4. Estalduraren Oinarriak.....	17
— 1.5. Zerbitzuen Prestazioa	18
— 1.6. Estali Gabeko Gertakariak.....	18

Aseguratutako Ondasun Eta Baloreak

• 2. Artikulua. Aseguratutako Ondasun Eta Baloreak.....	19
— 2.1. Etxebizitza.....	20
— 2.2. Altzariak	21
— 2.3. Bitxiak	22
— 2.4. Aseguratutako Ondasunen Aldi Baterako Lekualdatzea	23
• 3. Artikulua. Kalteak Konpentsatzeko Irizpideak.....	24
• 4. Artikulua Aseguratutako Zenbatekoen Nahikotasuna	25

Kalte Materialen Estaldura

• 5. Artikulua. Bermeak Eta Prestazioak	26
— 5.1. Sutea Eta Bestelako Kalteak:	26
— 5.2. Fenomeno Atmosferikoak:	28
— 5.3. Kalte Elektrikoak	29
— 5.4. Urak Eragindako Kalteak.....	29
— 5.5. Hausturak.....	31
— 5.6. Prestazio Bereziak	32

Lapurreta-Estaldura

• 6. Artikulua. Bermeak Eta Prestazioak	34
• 7. Artikulua. Berme Osagarriak	35
— 7.1. Etxebizitza.....	35
— 7.2. Kanpoan Lapurtzea	36
• 8. Artikulua. Prestazio Bereziak	38

Arrisku Orotako Estaldura

• 9. Artikulua. Bermeak Eta Prestazioak	39
— 9.1. Istripuagatiko Arrisku Orotakoa	39
— 9.2. Arrisku Teknologiko Orotakoa	40
— 9.3. Estali Gabeko Gertakariak.....	40

Kalte Estetikoaren Estaldura

• 10. Artikulua. Kalte Estetikoak	41
-----------------------------------------	----

Etxeko Laguntza Estaldura

• 11. Artikulua. Bermeak Eta Prestazioak	42
— 11.1. Asistentzia Urgentea Eta Adituekin Konexioa.....	42
- 11.1.1. Zerbitzu Urgenteak	42
- 11.1.2. Konponketak, Berritze-Lanak Eta Bestelako Zerbitzuak.....	43
— 11.2. Konponketa Eta Brikolajerako Asistentzia.....	45
- 11.2.1. Etxeresna Elektrokoak Konpontzeko Zerbitzua.....	45
- 11.2.2. Etxeko Brikolaje Zerbitzua	47
— 11.3. Familia-Asistentzia	49
- 11.3.1. Familia-Asistentzia	49
- 11.3.2. Animaliei Buruzko Informazio-Zerbitzua	50
- 11.3.3. Telefono Bidezko Orientabide Medikoko Zerbitzua	51
- 11.3.4. Laguntza Informatikoko Zerbitzua	51
- 11.3.5. Babes Digitala	57
- 11.3.6. Laguntza Online Jardueretan: Telelana, Ikasketak, Aisia Eta Erosketak.....	59

Erantzukizun Zibileko Estaldura

• 12. Artikulua. Bermeak Eta Prestazioak	62
— 12.1. Estalduraren Norainokoa.....	62
— 12.2. Defentsa Eta Fidantza Zibileko Gastuak.....	64
— 12.3. Estali Gabeko Arriskuak	65
— 12.4. Estalduraren Mugatze Geografikoa.....	67
— 12.5. Estalduraren Denbora-Eremua.....	67

Defentsa Juridikoko Estaldura

• 13. Artikulua. Bermeak Eta Prestazioak	68
— 13.1. Estaldura	68
— 13.2. Esklusioak.....	70
— 13.3. Asegurudunaren Eskubideak Eta Betebeharrak	71
— 13.4. Profesionalen Jarduketak Eta Ordainsariak.....	71
— 13.5. Orientazio Juridikoa.....	72

Etxeko Animalien Estaldura

• 14. Artikulua. Bermeak Eta Prestazioak	72
— 14.1. Kalteen Bermea	72
— 14.2. Sakrifiziorako Eta Hilotza Desagerrarazteko Bermea Zahartzaroagatik Edo Gaixotasunagatik.....	77
— 14.3. Txakur Edo Katuen Egoitzako Egonaldirako Bermea.....	78

Bidaiako Laguntza Estaldura

• 15. Artikulua. Bermeak Eta Prestazioak	79
— 15.1. Aseguratutako Prestazioak.....	80

Arau Orokorrak

- 16. Artikulua. Aseguratutako Zenbatekoen Eguneratzea 83
- 17. Artikulua. Primaren Zenbatekoa Eta Ordainketa Eta
Ez Ordaintzeak Dituen Ondorioak 84
 - Arau Orokorra 84
 - Gordailu-Erakunde Bidezko Ordainketa 85
 - Asegurua Eten Den Bitartean Ordaintzea 85
 - Ordainketa Zatitzea 85
- 18. Artikulua. Ezbeharren Aurrean Nola Jokatu 86
- 19. Artikulua. Jakinarazpenak 89
- 20. Artikulua. Preskripzioa, Jurisdikzioa
Eta Erreklamazioak 89

Baldintza Bereziak

- MH-01 Klausula. Hipotekak, Bahiak Edo Kreditu Pribilegiatuak
Ordaintzeari Lotutako Ondasunak 91
- MH-02 Klausula. Lehenengo Arriskuan Aseguratutako Zenbatekoak 91
- MH-03 Klausula. Etxebizitzaren Jabeak Alokairu Erregimenean 92
- MH-04 Klausula. Etxebizitzaren Erabiltzaileak Alokairu Erregimenean 97
- MH-05 Klausula. Bigarren Etxebizitzak
Edo Sasoikoak 98
- MH-06 Klausula. Defentsa Juridikoko Estalduraren
Zabalkuntza 99
- MH-07 Klausula. Erantzukizun Zibila Etxebizitzen Jabegoaren
Pertsona Juridikoentzat 100

Ohiz Kanpoko Arriskuen Asegurua

- Aseguruen Konpentsazio Partzuegoak Ohiz Kanpoko Gertakarien
Ondorioz Ordaindu Beharreko Kalte-Ordainen Klausula 105

Baldintza Orokorrak

1. ARTIKULUA. ATARIKOA

Kontratu hau Baldintza Orokorretan, Partikularretan eta Berezetan ezarritakoari jarraiki arautzen da eta, Asegurudunarentzako onuragarriagoa den aurkako itunik izan ezean, Aseguru Kontratuaren Legeak (urriaren 8ko 50/80 Legeak) eta Aseguru-eta erreaseguru-etxeen ordenazio, gainbegiratze eta kaudimenari buruzko Legeak (uztailaren 14ko 20/2015 Legea) eta haren erregelamenduko garapen-arauek ezarritakoari jarraiki.

Kontratuaren edukia ez badator aseguruaren proposamenarekin edo adostutako klausulekin, Aseguruaren Hartzaileak Konpainiari eskatu ahalko dio hile bateko epean, hura ematen den unetik, desberdintasun hori konpontzeko. Epe horretan erreklamaziorik egiten ez bada, polizak xedatzen duena jarraitu beharko da.

Aseguruaren hartzaileak, Aseguruaren Baldintza Partikularrak sinatzen dituenean, Baldintza Orokor hauek onetsiko ditu, eta, zehazki, letra «Iodiz» datozen Hartzailearen eskubideak mugatzeko klausulak.

1.1. DEFINIZIOAK

Kontratuak ezartzen duenaren arabera, oro har, hauxe ulertuko da kontzeptu bakoitzeko:

- **ASEGURUDUNA:** Baldintza Partikularretan hartara izendatutako pertsona, aseguruaren prestazioak jasotzeko eskubidearen titularra dena. Berdintzat joko dira, beti ere berarekin bizi badira, honako pertsona hauek ere:
 - Bere ezkontidea edo izatezko bikotekidea:
 - Euretako edozeinen aurreko ahaideak.
 - Bien edo bietako edozeinen seme-alabak.
 - Bien edo bietako edozeinen legezko tutoretza edo zaintzapean dauden edo egon diren pertsonak.

Konpainiak pertsona horiek Asegurudunarekin bizi direla dokumentuz frogatzea galdegin ahal izango du.

Aurrerantzean «Aseguruduna» terminoa erabiltzen denean, atal honetan jasotako pertsona guztiak aipatutzat joko dira.

- ASEGURU-ENTITATEA, ASEGURATZAILEA EDO KONPAINIA: MAPFRE ESPAÑA, Compañía de Seguros y Reaseguros SA entitateak aseguru-kontratua (poliza) jaulkitzen du, eta prezioa (prima) kobratuta, kontratuaren xede diren arriskuen estaldura bere gain hartzen du, eta Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiaren gainbegiradapean dago.
- ONURADUNA: Aseguruaren Hartzaileak, edo Asegurudunak, polizaren ondoriozko kalte-ordainak jaso ditzan esleitutako pertsona.
- BILDUMA: Interes, bitxitasun edo balio bereziarengatik bildutako mota bereko gauzen multzo antolatua.
- FRANKIZIA: **Aseguratua bere arriskuen aseguratzailea bera den zenbatekoa; haren arabera, ezbeharrak izanez gero, bere ondarearekin jasango du kalteen dagokion zatia. Ezbeharraren zenbatekoa frankizia gisa ezarritakoa baino txikiagoa bada, aseguruaren kontura izango da osorik kostua; handiagoa bada, gainerakoa baino ez du ordainduko Konpainiak.**
- URTEKO EDO ASEGURU ALDIAREN MUGA: Aseguruaren aldi bakoitzeko Aseguratzailearen kargurako gehieneko zenbatekoa da, ezbehar bakar batean edo gehiagotan kontsumitzen bada ere; aseguruaren aldia da, Baldintza Partikularretan adierazitako indarrean sartzeko dataren eta iraungipen dataren arteko epea, edo primen azken ordainagirian datorren urteko epea.
- EZBEHARRA: Polizak estaltzen dituen ondorio kaltegarriko gertakariak. **Gertaera baten ondorioz dauden kalte guztiak ezbehar bakartzat joko dira.**
Erantzukizun Zibileko estalduraren arabera ezbehar bakartzat hartuko da kalte batengatik edo gehiagorengatik egindako erreklamazio kopurua, baldin eta kalte hori(ek) egoera berdinak sortu bad(it)u. Ezbeharra gertatu izanaren eguna kalteetariko lehena sortutako unearen eguna izango da.
- ASEGURATUTAKO ZENBATEKOA: **Baldintza Partikularretan zehaztutako kantitatea da, edo Aseguruaren Baldintza Orokorretan zehaztutakoa, ezbehar bakoitzeko kalte-ordainen gehieneko muga adierazten duena.**
- HIRUGARRENA: Aseguruduna edo Aseguruaren hartzailea ez den edozein pertsona fisiko edo juridikoa da; izan ere, **ez dira hirugarrentzat hartuko, Hartzailearekin batera bizi diren pertsonak, ezta honen edo Asegurudunaren odolkidetasunezko edo afinitatezko hirugarren gradura arteko senideak ere.**

Hala eta guztiz ere, arestian aipaturiko senideak hirugarrentzat hartuko dira Erantzukizun Zibileko Estaldurari dagokionez, hauen ondoriozko ezbeharretan:

- Suteak edo urak eragindako kalteak, inguruko etxebizitzetan, zeinen jabeak edo maizterrak Asegurudunaren senideak diren. **Urak eragindako kalteen kasuan, kaltearen kausa ur-ihesa, txorrota edo ixteko giltzak gaizki ixtea izan behar da.**
 - Diru-erantzukizunen kalte-ordainen ordainketa Asegurudunaren erantzukizun zibila denean, abere baten jabe edo edukitzea dela, jabetza edo edukitze horren ondoriozko gorputzeko kalteei eta kalte materialei dagokienez.
- ERAIKUNTZA MOTA: Aseguratutako etxebizitzaren eraikuntza-ezaugarriak, polizaren baldintza partikularretan agertzen direnak, kontuan hartuko direnak aseguruaren kontratazioa onartu eta prima aplikagarria zehazteko.
- Aseguru honen ondorioetarako, eraikuntza mota hauek onartuko dira:
- **Estandarra:** Egitura, estalkiak eta itxiturak edo kanpoko hormak hormigoi armatuz, metalez, adreiluz, hargintzaz edo beste edozein material erregaitzez edo horien konbinazioz eraikiak dituen eraikina.
 - **Osorik zurezkoa:** Egitura, estalkiak eta itxiturak edo kanpoko hormak osorik edo gehienbat zurez eginak dituen eraikina.
 - **Material prefabrikatuzkoak:** Egitura, estalkiak eta itxiturak edo kanpoko hormak modulu prefabrikatuz edo geruza anitzeko panelez (sandwich) osatuak dituen eraikina, konposizioan zura ez bezalako materialez egina.
 - **Zurezko zoru eta habeak:** Egitura eta itxiturak edo kanpoko hormak nagusiki hormigoi armatuz, metalez, adreiluz, hargintzaz edo beste edozein material erregaitzez edo horien konbinazioz eraikiak dituen eraikina, baina zura habeetan eta/edo forjatuetan duena. Horretarako, zurezko estaldurak ez dira kontuan hartuko, baldin eta apaingarriak badira.
- ASEGURUAREN HARTZAILEA: Konpainiarekin kontratua sinatzen duen pertsona, zeinari dagozkion haren ondoriozko obligazioak, Aseguratuari dagozkionak izan ezik.

1.2. KONTRATUAREN ERAGINA ETA IRAUNGIPENA

Kontratuaren Baldintza Partikularretan adierazitako aldirako hitzartuko da aseguruaren, eta horietan zehaztutako egunean eta orduan sartuko da indarrean, baldin eta sinatuta badaude eta Konpainiak lehen agiriaren prima kobratu badu.

Berritu daitezkeen epealdiak kontratatzen badira, aseguruaren iraupena urte bete baino laburragoa denean, aseguru automatikoki iraupen bereko segidako epealditan berrituko da; hasierako epealdia urte bete baino handiagoa bada, automatikoki urte beteko segidako epealditan berrituko da, alderdietako batek besteari aurkakorik idatziz jakinarazi ezean, hilabeteko aurrerapenez, gutxienez, abian den epealdia amaitu baino lehen luzapenari uko egiten dion alderdia hartzailea denean, eta bi hilabeteko aurrerapenez aseguratzailea bada.

Bi aldeek adostasunez kontratua ebatzi ahalko dute ezbeharra adierazi ondoren. Kasu horretan Konpainiak orduan aseguruaren Hartzaileari prima osoari dagokion zatia itzuliko dio, hots, kontratua desegiten denetik aseguru-aldia amaitzen den arteko epeari dagokion zatia, hain zuzen.

1.3. ASEGURUA URRUTITIK KONTRATATZEA

1. Urruneko kontratazioaren kasuan, artikulua honetan ezarritakoa aplikatuko da. Aseguru urrutitik kontratatutzat joko da hura negoziatzeko eta gauzatzeko bakarrik urrutiko komunikazio-teknikaren bat erabili denean hornitzailearen eta kontsumitzailearen artean, presentzia fisikorik gabe eta aldi berean, baliabide telematikoak, elektronikoak, telefonikoak edo antzekoak erabili direnean.
Urrutitik kontratatuz gero, Hartzaileak bere baimena eman duen egunaren hurrengo eguneko 12 etan sartuko da indarrean, beste data bat espresuki adosten denean izan ezik. Edonola ere, eragin-data polizaren Baldintza Partikularretan adieraziko da.
2. Kontratua telefonoz gauzatu bada, kontratua indarrean sartzeko adostasun-data gisa ezarritako datatik 15 eguneko epean zehar, Entitateak derrigorrez bete beharko du dagokion prestazioa, baita prima oraindik ordaindu ez bada ere ezbeharra gertatu aurretik.
3. Aurreko paragrafoetan adierazitakoari kalterik egin gabe, kontratua edo bere aldaketak edo eransketak idatziz gauzatu beharko dira. Aseguratzaileak derrigorrez eman beharko dio aseguruaren poliza edo, gutxienez, behin-behineko estalduraren dokumentua Hartzaileari. Hartzaileak berak sinatutako Polizaren Baldintza Partikularren ale bat Aseguratzaileari itzuliko dio, eta baita arriskua eratzen duten egoera ziurtatzen duten dokumentuak ere.
4. Hartzailea, kontsumitzailea denean, hau da, bere merkataritza-jarduera edo jarduera profesionalarekin zerikusia ez duen pertsona fisiko gisa jarduten duenean, 14 eguneko epea izango du urrutiko kontratua baliogabetzeko, ez du zertan arrazoia azaldu, eta ez du isunik ordaindu beharko, ezbeharra gertatu ez bada.

Epe hori kontratua egin den egunean edo Aseguratzailerak poliza edo behin-behineko estaldura-dokumentua entregatzen duen egunean hasiko da.

Hartzaileak Aseguratzailerari jakinarazi beharko dio, jasota geratzea ahalbidetzen duen eta Zuzenbideak onartutako edozein prozeduraren bidez, eta uko egin arte dagokion prima ordaindu beharko du. Prima jadanik jaso balitz, Aseguratzailerak Hartzaileari itzuli beharko dio, 30 eguneko epean, kontratua baliogabetu arte indarrean egon den denborari dagokion zenbatekoa.

1.4. ESTALDURAREN OINARRIAK

Aseguruaren Hartzaileari hainbat galdera egin dizkio Konpainiak, eta galdera horiei emandako erantzunen arabera, zer prima aplikatuko dion erabaki du eta kontratua jaulkitzea onartu du. Baldintza Partikularretan zehaztutako etxebizitzaren eraikuntzaren ezaugarriak, mantentze-egoera, antzinasuna, kokapena eta zertarako erabiliko den, eta duen babes-neurria eta mantentze-beharrak zein haien etengabeko funtzionamendu-egoera dira Konpainiak estaldura emateko oinarriak.

Konpainiak galdeketa burutu nahi izan ez balu, balio berdina izango dute aseguruaren Baldintza Partikularretan azaltzen diren aseguratutako ondasunen datuek. **Aitortutako egoerak aldatzen badira, Konpainiari jakinarazi beharko zaizkio, bereziki aldaketa horiek areagotzea eragiten dutenean.**

Egoera larriagoa dela jakin ondoren kontratuarekin jarraitzea erabakitzen badu, Konpainiak Hartzaileari aseguruaren baldintza berriak proposatuko dizkio. **Bi alderdiek aseguruaren ebazteko eskubidea izango dute egoera berri hori onartuko ez balute;** kasu horretan, ebazpenaren egunetik polizak iraungo lukeen egunera arte igarotako aldiarekiko proportzionala den prima itzultzeko eskubidea du Hartzaileak.

Larriagotzea jakinarazi gabe ezbeharren bat gertatuko balitz, edo hura gertatzean adierazitako babesik egongo ez balira, edo funtzionatuko ez balute edo Baldintza Orokorretan xedatutako baldintzak beteko ez balituzte, eta ezbeharren eta larriagotze horren artean kausa-ondorio erlazioa egongo balitz, Konpainiaren erantzukizuna murriztu egingo litzateke. Murrizketa hori aplikatutako primaren eta egoera berriarekin (edota babes neurriarik egon ezean) aplikatuko litzatekeenaren arteko aldearekin proportzionala izango da.

1.5. ZERBITZUEN PRESTAZIOA

Konpainia «Laguntza» estalduretatik ondorioztatutako zerbitzuak eta «Prestazio Bereziak» izena jasotzen duten bermeak ematera behartuta egongo da kontratu honen ondorioz. Horretarako, **irizpide hauek hartuko dira kontuan:**

- **Konpainia ez da ezinbestean edo ezustekoan edo urtarokotasun egoeretan zerbitzuak zuzenean emateko erantzulea izango, ezta kontingentzia klimatologikoen edo atmosferikoen ondorioz, profesionalen edo hornitzaileen okupazio masiboa gertatzen bada ere; ezta, bere erruarengatik ez denean, dagokion eremuan zerbitzu horiek ematera joan daitekeen profesionalik ez dagoenean ere.** Halere, kasu horietan, Asegurudunak baimendutako gastuak ordaindu beharko ditu derrigorrez, hark aseguruaren xede diren prestazioak zuzenean jasotzeko.
- **Konpainiak hautatutako edo espresuki onartutako profesional zein hornitzaileek soilik eskainiko dituzte zerbitzu horiek, baldintza orokor hauetan ezarritako kasuetan nahiz premiazko beharreko kasuetan izan ezik. Hala izan ezean, prestazio horiek sortutako gastuen erdia ordaindu beharko du Asegurudunak.**

1.6. ESTALI GABEKO GERTAKARIAK

Polizako estaldura eta berme guztietatik kanpo geratzen dira, horietako bakoitzaren muga espezifikoak ez ezik, hurrengoak:

- **Aseguratuak nahita eragindako ezbeharra.**
- **Gatazka armatuak (baita aurrez gerra adierazpen ofizialik egon ez bada ere).**
- **Matxinadak eta jendetzaren zalapartak.**
- **Erreakzio edo erradiazio nuklearra edo kutsadura erradioaktiboa.**
- **Ezohiko uholdeak, urakanak, ekaitzak, sumendien erupzioak, mugimendu sismikoak eta, oro har, euren neurriaren eta larritasunaren ondorioz Nazioko Gobernuak «hondamendi edo katastrofe nazionaltzat» jotzen dituenak.**
- **Edozein motatako galera, kalte, erantzukizun, erreklamazio, kostu edo gastu, baldin eta, zuzenean edo zeharka, gaixotasun kutsagarri baten ondorioz edo gaixotasun kutsagarri baten beldur edo mehatxuaren ondorioz (egiazkoa edo ustezkoa izan) eragin bada, beste edozein arrazoi edo egoera gertatzen bada ere, aldi berean edo beste edozein sekuentziaren bidez.**

Gaixotasun kutsagarritzat hartuko da edozein substantzia edo agenteren bidez beste organismo batera kutsatu daitekeen edozein gaixotasun, non:

- **Substantzia edo agenteak, besteak beste, birus bat, bakterio bat, parasito bat edo beste organismo bat edo organismo horren edozein aldaketa hartuko du bere baitan, bizirik dagoela edo ez, eta**
- **Transmisio-metodoak, zuzenekoak nahiz zeharkakoak, honako hauek hartuko ditu bere baitan, besteak beste: aire bidezko transmisioa, gorputzeko jariakinen transmisioa, edozein gainazal edo objektutatik edo horietara (solidoa, likidoa edo gasa) edo organismoen arteko transmisioa, eta**
- **Gaixotasunak, substantziak edo agenteak pertsonen osasunean edo ongizatean kalteak eragin ditzake, edo eragitea mehatxatu dezake, edo kalteak, narriadura, balio-galera, merkaturagarritasuna edo ondasunen erabilera galtzea eragin edo mehatxatu dezake.**

Hala ere, bazterketa hori ez zaie aplikatuko Bidaiako Laguntzaren estaldurak berariaz estalitako gertaerei, eta Erantzukizun Zibilaren estaldurari dagokionez, ez da aplikatuko agente patogenoek eragindako kasuetan, baldin eta aurkezpen akutua, bat-batekoa edo leherkorra badute eta prozesu endemiko, epidemiko edo pandemikoaren sailkapenik ez badute.

Aseguratutako Ondasun eta Baloreak

2. ARTIKULUA. ASEGURATUTAKO ONDASUN ETA BALOREAK

Honako hauek aseguratuta daude: Baldintza Partikularretan deskribatutako etxebizitza, baita bertan dauden altzariak, bitxiak eta dirua (hauetariko ondasunen bat ez aseguratzea adostu denean salbu), baldin eta Aseguruduna edo normalean berarekin bizi diren pertsonak ondasun horien jabe badira, edo pertsona horiek ondasun horien gozamina badute edo alokatuta badituzte. **Polizan ez dira sartuko aseguratutako etxebizitzaren kanpoan dauden ondasunetan gertatutako kalteak, Baldintza Orokor hauetan espresuki ezarritako kasuetan izan ezik.**

Ohiko etxebizitza izango da eta, hortaz, poliza honen babesa jasoko du, Baldintza Partikularretan espresuki adierazten dena, eta bertan erroldaturik egongo dira Asegurudunak; alokatuta egonez gero, errentariak zerga xedetarako ohiko etxebizitzatzat aitortzen duena izango da.

Etxebizitza sekundariotzat hartuko da, Asegurudunaren ohiko etxea ez bada ere, urteko 4 hile baino gutxiagoz hura beteko duena. **Bigarren egoitza diren etxebizitzak, edo sasoikoak, baita alokairu erregimenean erabilitakoak**

ere, xede horretarako aurreikusitako kontratuaren modalitateen bidez aseguratutako behar dira (MH.03 eta MH.05 klausulak).

2.1. ETXEBIZITZA

Kontratuari dagokionez, Baldintza Partikularretan adierazitako etxeaz gain, jarraian adierazten diren eraikin edo instalazioak ere izango dira, Asegurudunaren erabilera pribatukoa direnean, eta zerbitzua etxebizitza horri bakarrik ematen dienean:

- Etxebizitzaren eraikin berean edo hari atxikitakoan dauden trastelekuak eta garajeak.

Garajetzat hartuko da banaka itxitako eta isolatutako lokala edo barrutia, ibilgailuak aparkatzeko erabiltzen dena. Hala hartuko da, gainera, erkidegoko lokalen barruan dagoen eta mugatua eta Asegurudunari esleituta dagoen aparkatzeko tokia.

- Aseguratutako familia bakarreko etxebizitzaren leku berean dauden igerilekuak eta kirol edo aisialdirako instalazioak, zuhaitziak, lorategiak, eraikuntza osagarriak, hesiak eta itxidurak.

- Uraren eta gasaren instalazio finkoak, energia elektrikokoak eta eguzkikoak, edo antzerakoak, beroketa eta hozketa edo klimatizaziokoak, irudi edo soinukoak, telebista edo irratiko antena finkoak, eta instalazio horiek ibiltzeko behar dituzten bestelako gailuak edo elementu finkoak, galdarak, berogailuak, metagailuak, erradiadoreak eta ezaugarri zein funtzio bereko beste batzuk ere. Garajeen auto hibrido edo elektrikoetarako kargatze-puntuak (instalazioa) ere estaliko dira, lehen atalean azaldutakoaren arabera.

- Segurtasuneko instalazio, gailu edo elementuak, pertsianak, toldoak, parket eta moketak, baita paramentu finkoetako zurezko edo eraikuntza-materialezko estaldurak ere, baldin eta modu iraunkorrean finkaturik badaude.

Nolanahi ere, kontratu honen ondorioetarako altzaritzat hartuko dira egurrezko liburutegi finkoak, baita eraikuntzakoak ez diren materialez egindako edozein liburutegi finko ere.

Etxebizitzaren balorazioa egiteko, haren zaharberitzearen edo konponketaren kostua bakarrik hartuko da kontuan, zeina material berberekin egiterik ez badago, antzerako material edo baliokideekin egingo den, **orubean izan dezakeen eragina kontuan izan gabe, eta haren salmenta-balioari erreparatu gabe.**

Etxebizitza jabe-komunitate bateko parte denean, aseguratuta egongo da baita ere baterako jabetasun-ehunekoaren arabera asegurudunari dagokion kuota proportzionala. Hala eta guztiz ere, **behin kontratu honek babestutako gertakaria jazota, jabe-komunitateak egin beharreko ordainketaren guztizko zenbatekoa, Asegurudunak duen jabe-kidetasunaren kuota eta azken honek egindako ordainketa edo horretarako egiten zaion**

errekerimendua egiaztatzeari baldintzatuta egongo da estaldura honen eragingarritasuna.

2.2. ALTZARIAK

Kontratuaren ondorioetarako, honako hauek biltzen ditu: altzariak, etxebizitzaren hormetan jarritako zurezko edo eraikuntzakoak ez diren materialez egindako liburutegi finkoak, eta aseguruaren Baldintza Partikularretan zehaztutako etxebizitzan dauden tresnak.

Balioztatzeko, ezaugarri eta prestazio baliokideak dituzten beste berri batzuk birjarri edo haiek ordeztearen kostua hartuko da oinarritzat, kontratuetan balioztatzeko beste irizpide bat zehazten denean izan ezik.

Jarraian aipatzen diren ondasunak ez dira egongo aseguratuta baldin eta Baldintza Partikularretan berariaz adosten ez bada:

- **Merkataritzarako efektuak, loteria-zenbakiak, posta-zigiluak, tinbreak eta tinbratutako efektuak, balore higikariak, tituluak, eskriturak eta, oro har, bestelako ondasunak, ezaugarri berekoak, non merkataritzako balioa berezkoaren desberdina den.** Aldiz, aseguratuta egongo dira, Baldintza Orokor hauen arabera, bilduma baten barruan daudenean eta, haiek berreskuratzeko gastuak ordaindu behar direnean.
- **Animaliak**, edozein, Erantzukizun Zibileko Estaldurari dagozkion baldintzak kontuan hartuta.

Bestelakorik adostu ezean, honako irizpide eta mugak aplikatuko dira:

- BALIO BEREZIKO OBJEKTUAK:

Bildumek, balio historiko edo artistikoko objektuek, larruek eta antzeko luxuzko objektuek gehienez 3.000 euroko aseguruaz izango dute objektu edo bilduma bakoitzeko, ezbehar bakoitzeko higigarriengatik aseguratutako zenbatekoaren % 25eko mugarekin, Baldintza Partikularretan banaka adierazi eta zehazten ez badira. Kasu horretan, objektu edo bilduma bakoitzeko kalte-ordainen gehienezko zenbatekoa horietako bakoitzerako adierazitakoa izango da, higigarriengatik aseguratutako zenbatekoaren mugarekin.

Idazpuru honi lotutako ondasunak merkatu espezializatuan duten prezioaren arabera balioztatuko dira.

Ez dira epigrafe honetan sartzen baldintza orokor hauetako 2.3. artikuluan definitzen diren eta bitxizat jotzen diren objektuak.

- ERABILERA PROFESIONALEKO ONDASUNAK:

Gehienez **altzarientzat 100eko 25 egongo da aseguratuta.**

■ LORATEGI, GARAJE ETA ANTZERAKOETAKO OBJEKTUAK:

Ehuneko **10 arte mugatuko da gehienez, 3.000 Euroko mugaz ezbehar bakoitzeko**, hemen dauden ondasunak:

- Terrazak, lorategiak eta portxeak, **behar bezala itxita daudenean edo hesia dutenean, aseguratutako etxebizitzaren erabilera pribaturako.**
- Baldintza Partikularretan aipaturiko etxebizitzaren trastelekuak eta garajeak, **barruti horiek behar bezala isolatuta eta itxita daudenean erabilera eskusiborako.**

■ MOTORDUN IBILGAILUAK ETA ONTZIAK:

Motordun ibilgailuak, ontziak, eta haien osagaiak, ordezko piezak eta osagarriak, **tximisten edo suteen edo ondasunetatik kanpo gertatutako leherketen ondorioz izan ditzaketen kalteen aurrean bakarrik daude aseguratuta, aseguratutako 100eko 10eko eta gehienez 3.000 Euro ezbehar bakoitzeko mugarekin altzariantzat. Dena dela, aseguratuta egongo dira soil-soilik honako baldintzak betetzen dituztenean:**

- **Aseguruaren Baldintza Partikularretan deskribatutako etxebizitzaren eraikuntza berberean kokatuta egotea, edo hari atxikita.**
- **Ibilgailuen edo ontzien kalteak estaltzen dituen aseguru baten babespean ez daudenean.**

Epigrafe honetan jasotzen diren ondasunak ez dira *lorategi, garaje eta antzekoetan objektutzat* joko aurreko izenpeari dagokionez.

■ HIRUGARRENEN JABETZAK:

Aseguru Hartzailea edo Aseguruduna ez diren —errentariak barne, etxebizitza alokairuan badago— eta harekin batera bizi ez diren pertsonen ondasunen gehienezko estaldura ezbehar bakoitzeko 1.500 eurokoa izango da; betiere, ondasunak Baldintza Partikularretan aipatutako etxebizitzaren barnean badaude, jabea pertsona bakarra edo asko diren kontuan izan gabe.

2.3. BITXIAK

Baldintza Partikularretan adierazitako etxebizitzaren barne baldin badaude, atal honi dagokionean honako hauek estalitzat joko dira:

- Urrezkoak, zilarrezkoak, platinozkoak diren edo jatorri biologikoa edo minerala duten perlak edo harri bitxiak ezarrita dituzten edo ez dituzten objektu edo apaindurak.
- Aurreko paragrafoan azaldutako materialekin egindako apaintzeko edo etxean erabiltzeko edozein objektu.

Hemen zehaztutako metalekin gain beste batzuekin egindako objektuak ez dira bitxitzat hartuko, nahiz eta urrez, zilarrez edo platinoz xaflatuta, estalita edo gaineztatuta egon.

Ordainaren muga gehienez 3.000 eurokoa da objektu bakoitzeko, objektu edo bilduma bakoitzeko, Baldintza Partikularretan banaka aitortu eta zehaztu direnean salbu; kasu honetan, objektu bakoitzeko ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa izango da bakoitzarentzat adierazi den zenbatekoa, eta ezbehar bakoitzeko muga izango da Bitxientzako aseguratutako zenbateko osoa.

Aurretik azaldutako objektuak gordetzeko asmoz segurtasuneko kutxa gotorra dagoela aitortu bada, orduan bertatik kanpo egon litezkeenak aseguratuta egongo dira ere. Baina **objektu horiekiko Konpainiaren erantzukizuna mugatuta egongo da, hain zuzen, ondasun hauetarako polizaren Baldintza Partikularretan adierazten den zenbateko aseguruaren 100eko 25ekoa izango da gehienez, eta 6.000 euroko mugarekin ezbehar bakoitzeko.**

Baldintza Partikularretan bitxientzako aseguratutako zenbatekoa kontratatu denean, horren pean dirua eta kreditu-txartelak hartuko dira ere, honako baldintza hauen arabera:

■ Dirua:

Dirutzat joko dira bai eskudirua baita txekeak eta kobratzeko edo ordaintzeko antzeko medioak ere.

Konpainiak gehienez **ezbehar bakoitzeko 300 euro** ordainduko ditu eskudirua, txekeak eta kobrantzak edo ordainketak egiteko bestelakoak aintzat hartuz.

■ Kreditu-txartelak:

Kreditu-txarteltzat hartuko dira, aseguru-kontratu honen ondorioetarako, txartelak edo ordaintzeko antzeko beste bitarteko fisiko batzuk, zordunketa zein kreditukoak, baita produktu, zerbitzu nahiz hornitzaile jakin batzuk soilik ordaintzeko balio dutenak ere. **Baldintza Orokor hauen 7.2. artikuluan ezartzen dira Konpainiaren kargurako kalte-ordainaren mugak, baldin eta txartelak iruzurrez erabiltzen badira.**

Ondasun hauetarako aseguratutako zenbatekoa izango da Polizaren Baldintza Orokorretan agerian azaldu dena, eta lehen arriskutzat joko da; beraz, MH02 klausulako edukia aplikatuko zaio.

2.4. ASEGURATUTAKO ONDASUNEN ALDI BATERAKO LEKUALDATZEA

Altzari eta bitxientzako aseguratutako estaldurek eta bermeek, *berme osagarrien* kontratazioa adostu denean, Baldintza Partikularretan adierazitako etxebizitzatik kanpo aldi baterako lekualdatu diren ondasun aseguratutak ere estaliko dituzte.

Hauexek dira irizpide aplikagarriak:

- Asegurudunak erabiltzen duen hotel edo etxebizitzaren batean egon **behar dute, hiru hilabete baino laburragoa den aldi baterako bidaia edo lekualdaketa baten ondorioz.**
- Halaber, bidaia edo lekualdaketa hori egiteko erabiltzen den ibilgailuarekin istripu bat gertatzen bada eta haren ondorioz ondasun aseguratuek kalteak jasotzen badituzte, horiek estalita egongo dira. Dena dela, **garraio horretan zehar ondasun horien lapurreta, ebasketa edo galera gertatzen bada, egoera hori ez da estalita egongo.**

Ezbehar mota hauetarako Konpainiaren erantzukizuna aseguratutako zenbatekoen 100eko 10ekoa izango da gehienez, eta edozein kasutan, 3.000 euroko mugarekin ezbehar bakoitzeko.

3. ARTIKULUA. KALTEAK KONPENTSATZEKO IRIZPIDEAK

- Konpainiak, kontratatutako estalduren eta bermeen arabera, jasandako kalteak ordainduko ditu eta **ez du kalte-ordainik ordaintzeko obligaziorik aseguratutako zenbatekotik gora edo kaltetutako ondasunari dagokion mugatik gora. Baina, «hondamen ekonomikoa» ez da ordainduko, ezta ezbehar baten ondorioz konponketa, ordezkatzeko edo kaltetutako ondasunak berreraikitzea beharrezkoa dela eta aplikatuko diren legeak, araudiak edo ordenantzak egokitzeak eragindako kostuaren areagotzea ere.**
- Kaltea konpon daitekeenean, Konpainiaren betebeharra konponketa horren zenbatekoa ordaintzera edo, Asegurudunak hala baimenduz gero, konponketa egitera mugatuko da.
- Kaltetutako ondasunak berriz jarri edo ordezkatu behar badira Konpainiak hori egiteko behar diren gastuak bere gain hartuko ditu. **Halere, Asegurudunak kaltetutako ondasunen bat konpontzea erabakiko balu ordezkoaren truke, Konpainiak bere balioa eman ondoren, derrigorrez itzuli behar dio Konpainiari kalte-ordainetan jaso duen zenbatekoaren eta konpontzeko behar izan duen diruaren arteko aldea.**

- **Kaltetutako ondasuna ez da beste batekin ordeztuko edo Konpainiaren kargura konponduko antzintasunaren, erabileraren edo zaharkitzearen ondoriozko balioaren galera konpontzeko balioaren 100eko 75 edo handiagoa denean. Konpainiaren betebeharra, kasu horietan, benetan izandako galera bakarrik ordaintzea da, eta ordezkatzearen balioari haren balioaren galeraren portzentajea kenduko zaio.**
- Motordun ibilgailuentzat eta ontzientzat hurrengo irizpideak erabiliko dira:
 - **Erabateko galera gertatzen bada, ezbeharrak kaltetutako ibilgailuaren edo ontziaren salmenta-balioa ordainduko da.** Erabilitako ibilgailuen edo ontzien merkatuan erosketa eta salmenta prezioen arteko batez besteko prezioa ordainduko da.
 - **Kalteak konpongarriak** direnean, Konpainiak horien konponketa ordainduko du, Aseguruduna bat badator, konponketa baitaratuko du, **gehenez, ibilgailu edo ontziaren salmenta-baliora arteko kopuruan.**

Edozein kasutan, **Konpainiaren erantzukizuna ezingo da izan ondasun mota horrentzat zehaztutako mugak baino handiagoa.**

4. ARTIKULUA ASEGURATUTAKO ZENBATEKOEN NAHIKOTASUNA

- Etxebizitza berriro eraikitzeko edo altzariak jarri edo ordezteko balioa horien aseguratutako zenbatekoen batura baino handiagoa bada, infraaseguru egoera bat gertatu dela esango dugu. Aseguratutako zenbatekoen nahikotasunaren kalkulua bereizirik egingo da etxebizitzarako eta altzarietarako, eta bi ondasun aseguru motentzako balio bermatuen baturagatik kapitalen ordainketa ez da onartuko.

Ezbehar bat gertatutakoan infraasegururen bat dagoenean, eragindako kaltea etxebizitza berritzeko lanen balioa edo, dagokionean, altzariak konpondu edo ordezteko balioa estaltzen duen zenbatekoa ordainduko du Konpainiak.

Konpainiak azpiaseguruaeren proportzio-araua erabiltzeari uko egingo dio, **asegurutako zenbatekoak automatikoki berritzea adostuta duenean**, azpiaseguruaeren portzentajea aseguratutako balioaren ehuneko 25 edo txikiagoa denean. **Halere, ezbeharren aurreko erantzukizuna ez da inoiz aseguratutako zenbateko osoaren balioa baino handiagoa izango.**

- Aldiz, ondasunen balioa aseguratutako zenbateko osoa baino txikiagoa bada, alderdietako batek hura murriztea eska dezake, eta Konpainiak jasotako primaren gehiegizkoa itzuli beharko du. Konpainiak, ezbeharra gertatuz gero, Asegurudunak benetan jasandako kaltea bakarrik ordainduko du, eta gainasegurua izateak ez du prestazioa hobetuko.

Kalte Materialen Estaldura

5. ARTIKULUA. BERMEAK ETA PRESTAZIOAK

Suteen eta beste zenbait kalteren bermeak aseguratuko dira, baita fenomeno atmosferikoengatik kalteak, kalte elektrikoak eta urak eta hausturek eragindakoak ere, espresuki horietariko baten bat ez kontratatzeke nahia adierazi ez ezik.

Kasu hauetan gerta daitezkeen kalteak, ordea, ez dute estaldurarik jasoko:

- **Espresuki aseguratu ez diren zeharreko galerak.**
- **Lapurreta eta ebasketa.**
- **Erabilitako materialetan akatsek eragindako kalteak edo galerak, eta baita haiek instalatu edo muntatzean eragindakoak, edo aseguratutako ondasunak gaizki erabiltzeak eragindakoak, sutearen bermeak espresuki estaltzen dituen gertaeren kasuan izan ezik.**
- **Lurraren egonkortzeak edo mugimenduak (hondoratzeak, lerratzeak edo erorketak) edota aseguratutako eraikinak erortzea, erresistentzia mekanikoa edo egonkortasuna galtzeagatik, gertakizun horiek Polizak estalitako arrisku baten ondorioz gertatzen badira salbu.**
- **Fenomeno atmosferikoak, meteorologikoak, sismikoak edo geologikoak, espresuki aseguratuta ez daudenean.**
- **Ezbehar bat gertatzen bada eta estaldura «Aseguruen Kontentsazio Partzuergoari» badagokio, nahiz eta partzuergoak Asegurudunaren eskubidearen eraginkortasuna ez aitortu estaldura arautzen duen lege-xedapenen bat ez betetzeagatik, edo ezbeharra erakunde honen arabera gabezia aldiaren barruan gertatzen bada ustekabez.**

Ohiz kanpoko arrisku horien estaldura Aseguruen Kontentsazio Partzuergoaren erantzukizuna da, haren araudiarekin bat eginik; Baldintza Orokor hauen bukaeran, horren laburpena dator.
- **Pixkanaka hondatzeagatik, berezko akatsengatik edo mantentze-eta kontserbazio-gabeziagatik aseguratutako ondasunek jasaten dituzten kalteak, sutearen bermeak espresuki estaltzen dituen gertaeren kasuan izan ezik.**

5.1. SUTEA ETA BESTELAKO KALTEAK:

Berme honen bitartez aseguratutako ondasunak estalita egongo dira, kalteak honako hauen ondorio direnean:

- a) SUTEA, ustekabea, ezezagunen maltzurkeriagatik, norberaren edo erantzukizun zibila dutenen axolagabekeriagatik, LEHERKETA EDO INPLOSIOA.
- b) KEA, bat-batean eta ustekabea sortua, baita lokalaren kanpoaldetik datorrenean ere.
- c) TXIMISTAK eragindako kalte zuzena edo hark sortutako ezohiko korrante elektrikoa.
- d) Ondasun aseguratuek jasandako kalte material zuzenak, LURRAREN EGONKORTZEEN EDO MUGIMENDUEN ondorioz (hondoratzeak, lerratzeak edo erorketak), lurzoruan edo lurpean kokatuta dauden eraikuntza-lanetan nahiz eraikuntza-erreformetan jatorria dutenean, etxebizitza aseguratuan edo Jabeen Erkidegoari dagokion edozein elementu pribatu edo komunean egindakoak ez direnean, eta egitura-elementuengan kalteak eragiten dituztenean, zeinen ondorioz eraikuntzaren erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna arriskuan jartzen den. **Gertakizun hauek estalita egon daitezzen, ezinbestekoa da agintaritza eskudunak eraikina hustea agindu izana.**

Espresuki estali gabe geratuko dira:

- **Lurraren egonkortzearen edo mugimenduen (hondoratzeak, lerratzeak edo erorketak) ondorioz jasandako kalteak, aurretik azaldutako arrazoengatik ez badira.**
 - **Poliza hau indarrean sartu baino lehenago egindako lanek eragindako kalteak, kalte horiek haren indarraldian adierazten badira ere.**
 - **Eraikuntzaren egituraren segurtasuna arriskuan jartzen ez duten kalte materialak, eta eraikina hustea ez dakartenak.**
 - **Eraikuntzan edo muntaketan zehar ondasunek jasandako kalteak.**
- e) LEHORREKO IBILGAILUEN EDO AIREONTZIEN TALKA EDO INPAKTUA, eta baita haietatik edo kanpoan dagoen beste objekturen batetik datozen soinu-uhinak eta turbulentsiak.
- f) EKINTZA BANDALIKOAK, hau da, **hirugarrenek engainu asmoekin egindakoak.**

Bestelakorik adostu ezean, honako hauek ez dira aseguratuta egongo:

- **Errentariak nahiz etxean dauden bestelakoek (legalak edo ilegalak badira ere) eragindako kalteak.**
- **Beirak, kristalak eta ispiluak.**
- **Terrazetan, portxeetan, lorategietan, aparkalekuetan edo, oro har, aire zabalean ipinitako ondasun higigarriak edo objektuak.**

Berme osagarriak kontratatzea adostu bada, honako kasu hauek ere estalita egongo dira:

- g) UHOLDEAK, horien babesa Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari ez dagokionean. Irtenbide naturalik gabeko lakuetan, kanaletan, erretenetan, edo gizakiak eraikitako lur-gaineko beste edozein ubide artifizialetan, estolderian, kolektoreetan eta lur-azpiko beste ubideetan ura ohiko ibilbideetik atera delako, hodiak hautsi edo tresnak matxuratu direlako gertaturiko uholdeak, alegia.

Ez dira estaliko buxatzeengatik, ura geldiarazten duten presek edo dikeek gainezka egiteagatik edo hausturaren bat izateagatik jazotako kalte eta galerak; ezta kaltea sortu duten instalazioak aurkitzeko, konpontzeko edo ordezkatzeko behar diren gastuak ere.

- h) HOZKAILUETAN EDO IZOZKAILUETAN GORDETAKO ELIKAGAIK izan dituzten kalteak edo janaria erabat galtzea argindarra ustekabeen eten delako, tresnak matxuratu direlako edo babes honen pean dauden beste edozein ezbeharren ondorioz, nahiz eta altzariak aseguratuta egon.

Konpainiaren erantzukizuna gehienez 300 eurokoa izango da ezbehar bakoitzeko eta, halaber, ez da kalte-ordainik emango sei ordu baino gutxiagoan elektrizitaterik hornitu ez bada.

5.2. FENOMENO ATMOSFERIKOAK:

FENOMENO ATMOSFERIKOAK, hala nola: HAIZEA eta haren ondoriozko OBJEKTUEN AURKAKO TALKAK, EURIA, TXINGORRA EDO KAZKABARRA eta ELURRA, **metro karratu eta orduko 40 litrotik gora bota dituenen; 80 km/h-tik gorako HAIZEAREN abiadura**, eta KAZKABARRA edo TXINGORRA eta ELURRA, indar desberdinekin.

Fenomeno hauen larritasun eta indarra egiaztatu egin beharko da Estatuko Meteorologia Agentziaren ziurtagiriaren bitartez edo Ministerioetan, Autonomia Erkidegoetan edo Lurralde Erakundeetan dauden neurtzaile ofizialen bitartez. Teknikoki ezinezkoa bada (aseguratutako arriskua haran batean badago edo behategian bertan kalteak baldin badaude) kontuan izango dira adituen kalkuluak kaltearen benetako eraginean oinarrituz edo zuzenbidean onartutako bestelako edozein probaren bitartez, fenomenoaren larritasuna eta indarra egiaztatzeko.

Halere, ez dira estaliko:

- **Aseguratutako ondasunak behar bezala mantendu edo kontserbatu ez izanaren ondoriozko kalteak.**
- **Pixkanaka sortu diren itogin, filtrazio, hezetasun, kondentsazio edo oxidazioek eragindako kalteak.**
- **Izozteek eragindako kalteak.**

- **Landareek, zuhaitzek edo lorategiko beste elementuek jasandakoak eta, oro har, aire librean aseguratutako ondasunak, material malguez, oihalez edo plastikoz babestuta edo eraikuntza irekien barruan badaude ere.**

5.3. KALTE ELEKTRIKOAK

Berme osagarriak kontratatzea itundu bada, INSTALAZIO ELEKTRIKOAK pairatzen dituen kalteak estalita egongo dira, etxebizitza aseguratuta baldin badago, baita hari konektatutako aparatu edo ekipamenduak, altzariak aseguratuta baldin badaude, eta kalteak sareko ezohiko korronteek edo kortozirkuituek sortu badituzte. **Ez dira estalita egongo, ordea, gailu edo ekipo horiek jasan dituzten kalteak, beren funtzionamendu okerraren ondorioz.**

5.4. URAK ERAGINDAKO KALTEAK

Berme honen xedea da urarekin kontaktuan dauden aseguratutako ondasunetan instalazio eta hodi finkoetatik, propioak ala hirugarrenenak izan, edo etxetresna elektrikoetatik datozen istripuzko ihes edo jarioengatik eragindako kalteak konpontzea edo ordaintzea, baita filtrazioetatik edo balbulen itxidura, txorrotak edo iteko giltzak ez ixteagatik edo desdoitzeengatik gertatzen badira ere.

Estalita egongo dira, halaber, honako gertaera hauen ondorioz aseguratutako ondasunetan gertatzen diren kalte materialak: lurrak mugitu edo egonkortzea (hondoratzeak, lerratzeak nahiz erortzeak) edota aseguratutako eraikinak erortzea erresistentzia mekanikoa edo egonkortasuna galtzeagatik, urak lurrean duen eraginean eta aurreko paragrafoan adierazitako kasuren batean badute jatorria.

Etxebizitza berme honen pean aseguratuta baldin badago, konpainiak ere ordainduko ditu matxura aurkitzeko eta ezbeharra eragin duten hoditeria kaltetuak ordeztzeko edo konpontzeko gastuak, edo, hala badagokio, konponketa egingo du, **baldin eta aseguratutako etxebizitzakoak badira, finkoak eta pribatuak. Horretarako, hoditeri pribatutzat hartzen da, hoditeri orokorreko edo komunitarioko lotura-osagarritik abiatuta, eta hura kenduta, aseguratutako etxebizitzarako bakarrik balio duena; familia bakarreko etxebizitzaren kasuan (bakartuak, binakakoak edo atxikiak), etxebizitzaren mugen edo eremu pribatuaren barruan dagoen hoditeria da.**

Etxebizitzako hoditeria edo eroanbideen korrosioa edo narriadura orokorra gertatuz gero, etxebizitzari kaltea eragin dion hodi-tartearen edo eroanbide-tartearen kalte-ordainari edo konponketari dagokionez, aseguratzaileak gehienez ere 300 euro ordainduko ditu ezbehar bakoitzeko. Geroago ezbehar gehiago gertatuko balira eta hodian edo

eroanbideen korrosioa edo narriadura orokorra kentzeko beharrezko konponketarik egin ez balira, asegurduna errudun larritzat joko da eta, beraz, arrisku-areagotzeari buruz Baldintza Orokor hauek xedatzen dutenarekin bat, aseguru-etxeak ez du inongo betebeharririk izango berme honen inguruan.

Berme osagarriak kontratatzea adostu bada, hauek ere estalita egongo dira:

- **Buxatutako isurbide-hodiak askatzeko, garbitzeko, konpontzeko edo aldatzeko gastuak, baita estoldetako edo arketetako buxadurak kentzeko edo garbitzeko gastuak ere, baita kalterik gertatzen ez bada ere. Konpainiaren betebeharra, gastu hauetarako, esku-hartze bakarrera mugatzen da aseguruaren urte bakoitzeko, 300 euroko mugarekin.**
- **Etxebizitzan edo bertako altzarietan kalte zuzenik eragiten ez dituzten isuriak edo matxurak aurkitzea eta konpontzea.**

Bestelakorik adostu ezean, ez dira aseguraturuta egongo honako kasu hauek:

- **Meteorologia-gertakariak eragindako kalteak, filtrazioak edo isuriak, euri-uretarako zorrotan ezkutueta isurietatik ez badatoz.**
- **Inguruko hezetasunak eragindako kalteak, filtrazioak edo itoginak, edo lurzorua edo zimenduek igorritakoak, edo itsaso, ibai, ibaiadar, laku, urtegi, ubide eta izaera publikoko saneamendu- edo estolda-sareetako kanal edo erretenetatik datozen uhaldi edo gutxikako ekintzaren ondorioz eragin ez badira.**
- **Txorrotak, ixteko giltzak, ur berorako elementuak edo gailuak eta bere osagarriak, galdarak, berogailuak, metagailuak, aire girotua eta, oro har, instalazio finkoetara konektatutako gailu oro konpontzea edo doitzea, baita etxetresna elektrikoak ere.**
- **Komun elektriko eta birrintzailetako buxadurak.**
- **Jatorria igerilekuetan edo aintzira, putzu, hobi septiko, ureztatzesare, estolda, arketa edo saneamenduko sare horizontaleko bestelako elementuetan, edo euri-uretarako erreten edo zorrotenetan duten isuriak edo matxurak aurkitzea eta konpontzea.**
- **Izozteak kaltetutako hoditeriak, eroateak edo deposituak konpontzea, baita izozteak eragindako ur ihesengatik kalteak ere.**

Ezbeharrak Asegurdunaren elkarrekiko *jabetza-kuotarako* ezarritako estaldurari eragiten dionean, etxebizitza aseguraturuta badago betiere, «erabilera pribatibo»

kontzeptua, analogiaz, dagokion jabeen erkidegoko hodi orokorretara zabalduko da.

5.5. HAUSTURAK

Berme horren bidez, aseguratutako hurrengo ondasun hauek hausteagatik sortutako kalteak estaltzen ditu:

ETXEBIZITZA:

- Harraskak eta aparatu sanitario finkoak.
- Kristalak, beirak, ispiluak eta beirateak, eta horiek babesteko edo sendotzeko laminak, leihoetan, ateetan, trenkadetan edo, oro har, horman edo sabaian ez mugitzeko moduan jarritakoak.
- Sabai-leihoak eta poliester zeharrargiz edo antzeko materialez egindako trenkadak.

ALTZARIAK:

- Aseguruaren Baldintza Partikularretan adierazitako etxebizitzan dauden beirak, kristalak, ispiluak edo beirateak edo haren hormaren batean jarrita daudenak, **finkatu gabe**.

Polizaren Baldintza Partikularretan berme osagarriak kontratatzeo aukera berariaz jasota baldin badago, eta altzariak aseguruan sartzen badira, honako hauek haustea ere estaliko da:

- Gainak, apalak eta altzariak edo horiek osatzen dituztenak; metakrilatoz, marmolez, granitoz, harriz edo antzeko mineralez egindakoak.
- Material zeramiko beiratzatuz edo antzeko materialez egindako sukaldeko plakak, **horien funtzionamendu mekanismoak alde batera utzita**, hauek bitrozeramikazko plakatik bereizezinak izan ezean.

Konpainiaren erantzukizuna gehienez jota 3.000 eurokoa izango da kaltetutako piezako.

Aurkakorik hitzartu ezean, ez dira aseguratuta egongo:

- **Marko, moldura, objektu apaingarri, lanpara, beira, ontziteria, etxeko tresneria oro har haustea, baita optika-gailu edo tresnetako pantailak eta osagarriak haustea.** Hala eta guztiz ere, salbuespen hori ezingo da aplikatu "Istripuaren Arrisku Orotakoa" bermea kontratatu denean.
- **Wearable gailuak eta telefonia-, informatika-, irudi- eta soinu-aparatuak haustea, baita horien pantailak eta osagaiak haustea ere.** Halere, baztertze hori ez da aplikatuko "Arrisku Teknologiko Ororen" bermea kontratatzen denean.

- **Betaurrekoen eta haien eustoinen haustura.**
- **Gainazalak eta merkurioz estalitako azalerak urratzea, karrakatzea, zartatzea eta beste moduren batera hondatzea.**

5.6. PRESTAZIO BEREZIAK

Aseguratutako bermeez gain, eta Kalte Materialen estaldura horrek babestutako ezbehar baten ondorio zuzen gisa beharrezkoa denean, Konpainiak ondorengo kasuei dagozkien zerbitzuak ordainduko ditu edo, hala badagokio, eskainiko ditu zuzenean:

■ ETXEBIZITZAREN HABITAEZINTASUNA:

Etxebizitzan **Aseguruduna bizi bada** eta kalteak konpontzeko hustu behar izanez gero, Konpainiak honi dagozkion gastuak ere bere gain hartuko ditu:

- Herri bereko edo inguruko hoteletan aldi baterako ostatu hartzea, **ezbeharra gertatzen denetik hamar egun edo gutxiagoan; 100 euroko eguneroko mugaz Asegurudun bakoitzeko eta 3.000 euroko ezbehar bakoitzeko gehienekoaz.**

Ostatu-hartze hori, adierazitako mugen barruan, mantenu osoko erregimenean egingo da eta garbiketa-gastuak ere hartuko ditu; **gainerako gastu guztiak Asegurudunaren kontura izango dira.**

- Baldintza Partikularretan azaldutakoaren antzeko behin-behineko etxebizitza bat alokatzea, hura aseguratuta dagoenean, **ezbeharra gertatu eta gehienez ere urtebeteko epean, eta 12.000 euroko mugarekin betiere.**

Aseguruduna etxebizitzaren jabea ez denean aldi baterako etxebizitza batera lekualdatzeagatik izan daitekeen alokairu-kosturik handiena bakarrik konpentsatuko du Konpainiak.

- Aseguratutako ondasunak herri bereko edo ondoko herri bateko behin-behineko etxebizitza batera edo altzari-gordeleku batera eramateko gastuak, baita bertan egoteko gastuak ere **hilabete bateko gehieneko eperako** eta aseguratutako etxebizitzara itzultzeko tokiz aldatzea eta, hala badagokio, altzari-gordelekutik behin-behineko etxebizitzara.
- Aseguratutako ondasunek etxebizitza hustu behar izatetik eratorritako garraioan paira ditzaketen kalteak, baita altzari-gordelekuan edo behin-behineko etxebizitzan dauden bitartean ere, kontratu honetan hitzartutako estaldura-baldintza berdinetan. Hala ere, **bazter geratzen da ondasunak garraioan edo altzari-gordelekuan dauden bitartean lapurtzea edo desagertzea.**

Aseguratutako etxebizitzako sukaldean gertatutako kalte baten ondorioz sukaldea ezin bada erabili, Konpainiak bere gain hartuko ditu:

- Jatetxe- eta garbiketa-gastuak, **hamar eguneko gehieneko epean, ezbeharra gertatzen denetik aurrera, eguneroko 100 euroko mugaz eta 1.000 euroko mugaz ezbehar bakoitzeko.**

■ DOKUMENTUAK BERRIRO LORTZEA:

Kalte Materialen Estalduraren barruko ezbehar baten ondorioz kaltetutako akzio, obligazio, funts publiko edo babestu eta bankuko polizen titulu eta baloreen kopiak lortzea, baita dokumentu pertsonalak berriro eskuratzea ere, esate baterako Nortasun Agiri Nazionala, gidatzeko baimena, pasaportea eta antzekoak.

■ BESTE KALTE BATZUK:

Aseguruak honakoak ere estaliko ditu:

- Ezbeharra itzali eta geldiarazteko gastuak, baita aseguratutako ondasun guztiak salbatzeko, hondakinak ateratzeko, erausteko eta lokatza ateratzeko gastuak ere. **Hala ere, aseguratutako etxebizitzaren zimendatze-elementuen hondakinak kentzeko edo eraisteko gastuak ez dira inola ere estalita egongo, etxebizitza konpontzeko edo berreraikitzeke ez bada, ez eta ezbeharrak kaltetu ez dituen etxebizitza-zatien gastuak ere.**

Poliza honek ez ditu estaliko aseguratutako etxebizitza edo haren zati bat eraisteagatiko kostuak, agintaritza eskudunek edo etxebizitzak eraikitzea, konpontzea edo mantentzea arautzen duen edozein ordenantza edo legek eskatutakoak, Kalte Materialen Estaldurak babestutako ezbehar baten kausa ez bada.

- Kalte Materialen Estaldura honek babesten duen ezbehar bat iraungitzeko, mozteko, eragozteko edo gutxitzeko beharrezko neurriek aseguratutako ondasunetan eragindako kalteak.

Konpainiak bere gain hartuko du kalte horien konpentsazioa, ezbeharrak eragindako kaltearen kalte-ordainaren proportzio berean, eta bi kasuetan, aseguratutako zenbatekoaren 100eko 5eko muga izango du, ezbehar bakoitzeko, Etxebizitza eta/edo Altzarietarako, dagokionaren arabera.

"Prestazio Berezien" berme honetarako aurreikusitako gastuen eta/edo kalteen zenbatekoa osagarritzat joko da, eta aseguratutako gainerako kopuruetatik asketzat.

Lapurreta-estaldura

6. ARTIKULUA. BERMEAK ETA PRESTAZIOAK

LAPURRETA aseguratuta egongo da, baina bertatik edo saiakeratik eratorritako KALTEAK ere, higigarriarena, bitxiena, diruarena eta kreditu-txartelena, salbu eta berariaz hitzartuta estaldura hau ondasun horietakoren baterako kontratatzen ez bada. Etxebizitza aseguratuta dagoenean, haren elementuen lapurreta eta lapurretaren edo saialdiaren ondorioz hartan eragindako kalteak ere estalita egongo dira.

EBASKETA eta BIDEGABEKO JABETZEA gehienezko **1.500 eurora arte daude estalita ezbehar bakoitzeko. Halere, ez dira helburu horietarako estalita egongo bildumak, ezta balio historikoa edo artistikoa duten objektuak ere, larruak, bitxiak eta dirua.**

Lapurreta, legeak definitzen duen arabera, (hirugarren batek) aseguratutako ondasunez indarrez edo bortizkeriaz edo mehatxupearan jabetzea da; ebasketan, aldiz, ez da indarkeria erabiltzen ezta besteekiko bortizkeria ere; bidegabeko jabetzetzat, testuinguru berean, hirugarren batek gordetzeko, komisio gisa edo kudeatzeko hartu dituen ondasunez jabetzea jotzen da, eman edo itzuli behar dituenean.

Ez dira estaliko, aldiz, honako kasu hauek:

Galera sinpleak.

- **Baldintza Partikularretan azaldutako etxebizitzatik kanpo** dauden ondasunak, Baldintza Orokor hauetan espresuki adierazi diren kasuetan izan ezik.
- **Asegurudunak, Aseguruaren hartzaileak edo haien mendeko pertsonak edo haiekin bizi direnek zabarkeria larria egiten dutenean.** Etxeko langileak ez dira, honi dagokionez, mendeko pertsonatzat hartuko.

Estaldura honi dagokionez, hauxe ulertuko da:

■ **SEGURTASUNEKO SISTEMA ELEKTRONIKOA:**

Gutxienez etxe barrura sartzeko leihoak, atea eta pasabideak babesten dituen. Aseguruak horien artean barne harrarazteko, sistemak honako baldintzak bete behar ditu:

- Baimendutako alarma-zentral bati konektatuta egotea, eta hura arduratzea sistemaren mantentze-lanez eta kontrolaz. **Kontratu hori etena edo baliogabetua balego, Aseguruaren Hartzailearen edo Asegurudunaren erruz, baldintza hau betetzat hartuko da.**

- Bateria sistema bat edo analogoa edukitzea instalazioak funtzionatzen jarraituko duela bermatzeko hornikuntza elektrikoak huts egingo balu.
 - Asmo txarreko instalazioaren blokeatzeak edo deskonexio saiakerak detektatzen dituzten sistema edo gailuak jartzea.
- **SEGURTASUNeko KUTXA GOTORRA:**
- Ixteko elementu gisa segurtasuneko sarraila eta irekitzeko blokeatze-konbinazioa duena, zeinaren hormak altzairu tenplatuz edo hausturaren, zulaketaren edo suaren aurkako antzerako babesa ematen duen beste materialezko pareta duen, eta zeina horman sartuta dagoen eta horman obran jaso den edo lurrera euskarri bidez lotuta dagoena. Euskarririk ez badu, gutxienez 100 kiloko pisua izango du.
- **ZAINZA IRAUNKORRA:**
- Zaintza iraunkor efektiboa, berehalako esku-hartzeko zerbitzuarekin, segurtasun-entresa batek egina.
- **ATE KORAZATUA:**
- Segurtasun atean bai orria, baita markoa ere, altzairuzkoak. Ixteko mekanismoak markoaren egituraren sartuta daude.
- **BURDIN-HESIAK:**
- Barrote metalikoak leihoetako segurtasunerako eta hormetako gainerako irekiduretarako, horietara ainguratuta edo torlojuz eutsita.
- **BABES-DOMOTIKA:**
- Etxebizitzan instalatutako eta sute eta lapurreta-kontingentzien aurrean aurrez abisatzeko modua ematen duten aplikazio elektronikoak edo informatikoak.

7. ARTIKULUA. BERME OSAGARRIAK

Berme osagarriak kontratatzea adostu bada, aseguratutako ondasunen arabera honako kasu hauek ere estalita egongo dira:

7.1. ETXEBIZITZA

Etxebizitzara sartzeko sarrailak eta ateetako giltzak aldatzea, osorik nahiz zati bat:

- Lapurreta gertatu denean eta lapurreta gehiago saihesteko neurri hau beharrezkotzat jotzen denean.
- Giltza-sortaren bat lapurtu, ebatsi, bidegabe jabetu edo galdu eta etxebizitzara asmo txarrez sartzeko erabiliko direla aurreikusten bada.

7.2. KANPOAN LAPURTZEA

- EBASTEA, BIDEGABE JABETZEA ETA GAUZEN AURKAKO INDARKERIAZ LAPURTZEA

Baldintza Partikularretan higigarriako kopuru aseguratua kontratatu denean, ebastea, bidegabe jabetzea eta gauzen aurkako indarkeriaz lapurtzea, Asegurudunaren ondasunena, etxebizitzatik kanpo gertatzen badira, **ondoren zehaztuko diren baldintzetan**:

Konpainiak ordainduko duen gehieneko kopurua 200 eurokoa izango da ezbehar bakoitzeko, baita kaltetutako asegurudunak bat baino gehiago badira ere, artikulua honetako 7.1. atala aplikatzeari kalterik egin gabe, giltzak eta sarrailak aldatzeari eta muga espezifikoari dagokienez, kreditu-txartelen iruzurrezko erabileraren kasuan. **Gehieneko kalte-ordain honetan sartuko dira**:

- **Lapurtutako ondasun guztiak.**
- Agiri pertsonalak edo identifikazio agiriak eta kreditu txartelak edo bestelako ordainbideak eskuratzeko gastuak, **gehienez ere 150 euroraino** estaliak.
- Eskudirua, **150 eurora arte gehienez, Baldintza Partikularretan Bitxien estaldura kontratatuta dagoenean bakarrik estaliko da.**

- ASEGURUDUNAREN AURKAKO INDARKERIAZ EDO MEHATXUPEAN LAPURTZEA

Asegurudunaren aurkako indarkeriaz edo mehatxupear lapurtzea, etxebizitzatik kanpo, **jarraian zehaztuko diren ondasunak**:

- JANTZIAK ETA GAUZA PERTSONALAK (higigarriaren estaldura kontratatzeari atxikita).

Kontzeptu honetarako aseguratutako ondasunak **600 eurora arte ordainduko dira gehienez ezbehar bakoitzeko, baita lapurretak kaltetutako asegurudunak bat baino gehiago badira ere.**

Dokumentu pertsonalak edo identifikaziokoak berriro lortzeko gastuak, baita kreditu-txartelenak edo bestelako ordainketa-bitartekoenak, lapurtuak izan badira **150 euro arte estalita egongo dira ezbehar bakoitzeko, baita kaltetutako asegurudunak bat baino gehiago badira ere.**

- BITXIAK ETA DIRUA (Bitxien estaldura kontratatzeari atxikita).
Bitxiak **600 eurora arte ordainduko dira gehienez ezbehar bakoitzeko, baita lapurretak kaltetutako asegurudunak bat baino gehiago badira ere.**

Eskudirua **150 eurora arte ordainduko da gehienez ezbehar bakoitzeko, baita lapurretak kaltetutako asegurudunak bat baino gehiago badira ere.**

Hirugarrenek txekeak, letrak, fakturak edo antzeko kobrantza eta ordainketa metodoen bidez dirua jasotzen badute, Konpainiak **300 euro ordainduko ditu gehienez ezbehar bakoitzeko, baita kaltetutako asegurudunak bat baino gehiago badira ere.**

Aurrekoa artikuluko honetako 7.1. atala aplikatzeari kalterik egin gabe, giltzen eta sarrailen aldaketari eta kreditu-txartelen iruzurrezko erabileraren kasuko muga espezifikoa dagokionez.

■ KREDITU-TXARTELEN IRUZURREZKO ERABILERA

Bitxien estaldura kontratatu bada, Asegurudunaren titulartasuneko txartel eta antzeko beste bitarteko fisiko batzuekin baimendu gabeko eragiketa egitearen ondoriozko kalte ekonomikoa konpentsatuko du Konpainiak, baldin eta lapurtu, ebatsi, bidegabe jabetu edo galdu badira, **soilik honako baldintza hauetan:**

- **Zordunketa edo kredituko txartelak eta antzeko beste bitarteko fisiko batzuk: 50 eurora arte txartel bakoitzeko eta 600 eurora arte ezbehar bakoitzeko, baldin eta zenbatekoa Ordainketa Zerbitzuen Hornitzaileak bere gain hartu behar ez badu, bai hala adostu delako, bai hala ezartzen delako azaroaren 23ko 19/2018 Errege Lege Dekretuan, ordainketa-zerbitzuei eta finantzen arloko beste premiazko neurri batzuei buruzkoan.**
- **Txartelak edo antzeko beste bitarteko fisiko batzuk hornitzaile jakin batzuetan produktuak edo zerbitzuak erosteko nahiz produktu jakin batzuk eskuratzeko: 600 eurora arte ezbehar bakoitzeko, baldin eta baimendu gabeko eragiketa txartela lapurtu edo galdu ondorengo 48 orduetan gertatu bada eta txartelaren jaulkitzaileak bere gain hartzen ez badu.**

Ezbeharrak hainbat Aseguruduni eragiten badie ere, muga hauek aplikatuko dira.

Kreditu-txartelen lapurreta, ebasketa, bidegabeko jabetza eta iruzurrezko erabilpenarengatik ezbeharrak tramitatzeako, Konpainiaarentzat ezinbestekoa izango da Asegurudunak salaketa jartzea egoki den Epai-agintariaren edo Polizialaren aurrean. Lapurtu, ebatsi, bidegabe jabetu edo galdutako txartelek baimendu gabeko eragiketarik egin ez gero, halaber, egiaztatu beharko da Ordainketa

Zerbitzuen Hornitzaileak edo erosketa-txartelaren jaulkitzaileak, kasuan-kasuan, ez diola baimendu gabeko eragiketaren zenbatekoa itzuli Asegurudunari, haren erantzule ez izateagatik.

Ez dira estaliko, aldiz, honako kasu hauek:

- Galera sinpleak, txarteekin edo antzeko beste bitarteko fisiko batzuekin baimendu gabeko eragiketa egiten bada izan ezik. Hala ere, ez da estalita egongo galdutako euskarri edo bitarteko fisikoaren kostua.
- Ordainketa-txartel edo antzeko beste bitarteko fisiko batzuen iruzurrezko erabileraren ondoriozko galera ekonomikoak, lapurtu, ebatsi, bidegabe jabetu edo galdu izanez gero.
- Asegurudunak iruzurrez edo nahita jardutearen ondoriozko galera ekonomikoak.
- Asegurudunaren zabarkeria larriaren ondoriozko galera ekonomikoak.
- Hirugarrenak Asegurudunaren bankuko kontura sartzearen ondoriozko galera ekonomikoak.
- Kasu hauetan izandako galerak: **Ordainketa Zerbitzuen Hornitzaileak kontuko zordunketa egin eta hamahiru hilabete igarotakoan baimendu gabeko eragiketaren berri eman badu Asegurudunak eta aipatu Hornitzailearen erantzukizuna badira, azaroaren 23ko 19/2018 Errege Lege Dekretuan, ordainketa-zerbitzuei eta finantzen arloko beste premiazko neurri batzuei buruzkoan, ezarritakoari jarraikiz.**

8. ARTIKULUA. PRESTAZIO BEREZIAK

Estaldura honen bidez aseguraturatuko bermeez gain, eta estaldura honek babestutako ezbehar baten ondorio zuzenagatik beharrezkoa denean, Konpainiak ondorengo kasuei dagozkien zerbitzuak ordainduko ditu edo, hala badagokio, eskainiko ditu zuzenean:

- Larrialdian asegurua babespelan dauden pertsonak behar duten OSASUN-LAGUNTZAGATIKO gastuak, indarkeriaz edo mehatxupear lapurreta bat jasan dutenean. **Konpainiaren erantzukizuna 150 eurora mugatzen da, gehienez, asegurudun bakoitzeko.**

- ETXEBIZITZAREN HABITAEZINTASUNA, lapurreta batek eragindako kalteen ondorioz, **Kalte Materialen estaldurari dagokionez Baldintza Orokor hauetan ezartzen diren muga eta baldintzen arabera.**
- Akzioak, obligazioak, funts publikoak edo bankuetako frogagiriak eta polizak ordezkari ditzaketen titulu eta baloreen kopiak lortzea, baita DOKUMENTU PERTSONALAK BERRESKURATZEA ere, esate baterako nortasun agiri nazionala, gidabaimena, pasaporte eta antzekoak, lapurreta, ebasketa edo bidegabeko jabetze baten ondorioz.

Arrisku Orotako Estaldura

9. ARTIKULUA. BERMEAK ETA PRESTAZIOAK

Estaldura honek Istripuagatiko Arrisku Orotako eta Arrisku Teknologiko Orotako bermeak barne hartzen ditu; Baldintza Partikularretan berariaz jasotakoak bakarrik aseguratuko dira.

Istripuz joko da supituki (aurreikusitako gabe, bat-batean), ezustean (ezin aurreikusitako edo saihestu daitekeena) eta Aseguradunaren nahia eragiten dena.

9.1. ISTRIPUAGATIKO ARRISKU OROTAKOA

Berme hau kontratatzea hitzartu bada, aseguruak, aurreko 5. eta 6. artikuluetan ezarritako Kalte Material eta Lapurreta Estalduretan zehaztutako kasuz gain, honako hauek ere estaliko ditu:

- Istripuz gertatutako beste edozein arrazoiengatik aseguratutako ondasunetan **zuzeneko kalteak, telefonia-, informatika-, irudi- eta soinu-aparatuetan eta wearable gailuetan gertatzen direnak izan ezik, horiek berariaz baztertzen baitira.**
Aurkakorik hitzartu ezean adosten da **ez dela kalterik ordainduko, ezta konponduko ere, baldin eta ezbeharraren zenbatekoa 100 euro edo gutxiagokoa bada. Kalteen zenbatekoa 100 euro edo gehiagokoa izanez gero, 100 euro kenduko zaizkio.**
- Aseguratutako pertsonak, etxebizitzan gertatutako ezbeharrengatik behar izan dezaketen presazko osasun-asistentziako gastuak. **Konpainiaren erantzukizuna, mota horretako gastuetarako, 150 eurora mugatzen da, gehienez, aseguradun bakoitzeko.**

9.2. ARRISKU TEKNOLOGIKO OROTAKOA

Berme hau kontratatzea hitzartu bada, aseguruak, aurreko 5. eta 6. artikuluetan ezarritako Kalte Material eta Lapurreta Estalduretan zehaztutako kasuez gain, honako hauek ere estaliko ditu:

- **Telefonia-, informatika-, irudi- eta soinu-aparatuetan eragindako kalte zuzenak, eta beste edozein istripuzko ezbeharraren ondorioz aseguratutako wearable gailuetan eragindako kalte zuzenak.**

Kasu hauetan, objektu horiekiko Konpainiaren erantzukizuna mugatuta egongo da, gehienez altzarienezako aseguratutako zenbatekoaren 100eko 5era eta 3.000 eurora ezbehar bakoitzeko eta aseguru urte bakoitzeko.

Aurkakorik hitzartu ezean adosten da **ez dela kalterik ordainduko, ezta konponduko ere, baldin eta ezbeharraren zenbatekoa 100 euro edo gutxiagokoa bada. Kalteen zenbatekoa 100 euro edo gehiagokoa izanez gero, 100 euro kenduko zaizkio.**

9.3. ESTALI GABEKO GERTAKARIAK

Aurkakorik hitzartu ezean, irizpide hauek aplikatuko dira estaldura honen barruan sartzen diren bermeetarako:

- **Ezbeharra Kalte Material eta Lapurreta-estalduretan aurreikusitako kasuren bati dagokionean, aipatutako Estaldura horietan ezarritako bermeak, prestazioak, mugak eta salbuespenak aplikatuko zaizkio, eta ez ordea Arrisku Orotako Estalduran ezarritakoa.**
- **Berme hauek ez dituzte kasu hauetatik eratorritako kalteak estaliko:**
 - **Aseguratutako etxebizitzatik kanpo jazotako gertaerak.**
 - **Altzariak, apalak edo bestelako objektuak osorik edo zatika erortzea edo askatzea, behar ez bezala jarrita egoteagatik, gehiegi erabiltzeagatik, gehiegizko pisua izateagatik edo heldulekuen narriadurarengatik. Kasu horietan polizak ez ditu erori edo askatzen den ondasunak pairatutako kalteak estaltzen, ezta bertan edo bertatik kanpo jarritako ondasun, objektu edo gauzenak ere, ezbeharraren ondorioz kaltetuz gero.**
 - **Ondasunen erabilerak berak eragindako narriadura edo higadura, edo izaera mekaniko, elektriko edo elektronikoko matxurak.**
 - **Mota guztietako kutsadura.**

- **Termita, zizare, zerren edo edozein intsektu-plagaren ekintza.**
 - **Aseguratutako ondasunak besterentzea, konfiskatzea edo nazionalizatzea edo horietan edozein gobernu edo agintariren aginduz sortutako kalteak (egitez edo zuzenbidez).**
 - **Edozein mota edo izaerako likidoen isuriak.**
 - **Aseguratutako ondasuna konketa, harraska, komun edo beste edozein osasun-aparatutako hustubidetik erori edo jaustea. Kasuotan, polizak ez ditu estaliko eroritako ondasunarengatik jasandako kalteak, ez galera bera, ezta hura berreskuratu edo salbatzeko gastuak ere.**
 - **Aseguratutako ondasunen galera sinpleak.**
- **Estaldura honek ez du barne hartzen harramazka, urradura, zartatu, zipriztin, marradura edo kaltetutako objektuetako bestelako azalerako edozein alterazio, salbu eta bestelako kalte handiagoak ere baldin badaude, ondasun berean, polizak estalita badaude eta ezbehar berean gertatu badira.**

Kalte Estetikoaren Estaldura

10. ARTIKULUA. KALTE ESTETIKOAK

Aseguruaren Baldintza Partikularretan berme hau barne hartzea adostu bada, estalita egongo dira, horretarako aseguratutako zenbatekoaren mugaraino, ezbeharra gertatu aurretik kaltetutako ondasunak zuen koherentzia estetikoaren berregitea lortzeko beharrezkoak diren konponketa edo birjartze gastuak.

Berme horretarako aseguratutako zenbatekoak lehen arriskuko tratamendua izango du, MH-02 klausularen edukia aplikatuz.

Bestelakorik adostu ezean, honako estaldura-irizpide hauek aplikatuko dira:

Objektu eta egoera hauek ez dira aseguratuta egongo:

- **Ezbeharrean kaltetu ez diren gailu sanitarioak eta bere osagarriak.**
- **Motordun ibilgailuak eta ontziak.**
- **Igerilekuak eta jolas- edo kirol-instalazioak, zuhaitzak, landareak, lorategiak eta Asegurudunaren etxebizitzaren eremua mugatzen duten hesi edo euste-hormak eta perimetro-hormak.**
- **Kalte Materialen, Lapurreten eta Arrisku Orotako Estaldurek babestutako ezbehar batetik eratorritako galerak nahiz kalteak.**

- **Bildumen eta liburutegien desorekatze edo galera eta, oro har, edozein motatako ondasun higigarrien multzo edo sortenak. Hala eta guztiz ere, helburu hauetarako ez dira multzo edo sortatzat joko altzariak berek osatzen dituztenak (hirukoak, sukaldeko altzariak, etab.).**
 - **Konponketa edo birjartze estetikoaren ondoren, Kalte Materialen, Lapurreten eta Arrisku Orotako Estaldurek babestutako ezbeharren eragina zuzenean jasan ez duten gela edo barrutietako galera.**
 - **Narriadurak edo hondamen orokorrak kaltetutako aseguratutako etxebizitzako hoditeriaren edo kondukzioen konponketa edo aldaketako lanen ondorioz beharrezkoa izan daitekeen berrezarpen estetikoa.**
- **Konpainiak gastu horiek ordaindu baditu eta Asegurudunak kohesio estetikoa ez berregitea erabakitzen badu, emandako kalte-ordainaren eta egindako konponketaren kostuaren arteko aldea itzuli beharko du azken honek.**

Etxeko Laguntza Estaldura

11. ARTIKULUA. BERMEAK ETA PRESTAZIOAK

Konpainiaren obligazioa izango da, prestazioaren xede den bermea kontratatzen denean, haren ondoriozko zerbitzuak ematea eta hala badagokio, behin baimenduta, Konpainiaren kargura dauden prestazioak lortzeko egindako gastuak Asegurudunari ordaintzea.

11.1. ASISTENTZIA URGENTEA ETA ADITUEKIN KONEXIOA

11.1.1. Zerbitzu urgenteak

Kontratatu diren sute, leherketa, uholde edo lapurreta-estalduren babespeko ezbehar baten ondorio zuzenagatik, honako zerbitzu hauek ematea beharrezkoa denean, **Konpainiak bere gain hartuko ditu, Asegurudunak espresuki eskatzen baditu:**

- **Langile kualifikatuek etxebizitza zaindu eta babestea, etxebizitza babesik gabe gelditu denean.**
Etxebizitzan ezbeharra gertatu aurretik zuen babes eta segurtasun maila lortu arte iraugo du zerbitzuak eta **gehienez prestazioa eragin duen ezbeharra gertatu eta hurrengo hiru egunetan zehar.**

- *Telebista- edo bideo-gailuak aldi baterako aldatzea* gailu horiek erabilezin geratzen direnean, 15 egunez gehienez, horiek etxebizitzan uzten diren egunetik aurrera.

Epe hori amaitu ostean aparatu horiek itzultzeko konpromisoa hartuko du Asegurudunak, Konpainiarengandik edo hark baimendutako hornitzaileengandik jaso zituen egoera berean.

11.1.2. Konponketak, berritze-lanak eta bestelako zerbitzuak

Gainerako estaldurek hartzen ez dituzten kasuetan, eta izartxo (*) batekin adierazitako jardueri dagozkien zerbitzuentzat, Konpainiak desplazamenduaren kostuak eta eskulanaren lehenengo 3 orduak hartuko ditu bere gain **konponketa urgenteen kasuan; Asegurudunak erabilitako materialak ordainduko ditu eta, dagokionean, gerta daitekeen eskulanaren gehiegizko denbora ere; lan eta zerbitzu horiek Baldintza Partikularretan adierazitako etxebizitzan eta hartan bizi diren pertsonen inguruan izango dira.** Gainerako jardueretarako, edo urgentiak ez diren eta gainerako estalduretan sartzen ez diren konponketetarako, Asegurudunak Konpainiaren *Zerbitzu Zentroa* erabili ahal izango du, eta Konpainiak dagozkion profesionalak jarriko dizkio bere zerbitzura, aurrekontu egokiak egin diezazkioten eta, hala badagokio, baita eskatutako lanak edo zerbitzuak ere. **Lan eta zerbitzu horiek, ordea, Asegurudunak ordaindu beharko ditu.**

Konpainiak eskaini ditzakeen zerbitzuak hauexek dira:

- Aire girotua
- Alarma sistemak eta segurtasuna
- Ate blindatuak
- Atezain automatikoak
- Beiragintza (*)
- Bernizatzaileak
- Berokuntza
- Berritze-lan orokorrak
- Buxadurak kentzea
- Elektrizitatea (*)
- Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa eta Diagnostika (IT+D)
- Eraikinen Ziurtatze Energetikoaren Zerbitzua
- Errotuluak
- Gama marroiko etxetresna elektrikoak

- Gama zuriko etxetresna elektrikoak
- Garbiketa orokorrean
- Gas teknikariak
- Igeltserotza
- Igeltsua
- Iturgintza (*)
- Margotutako paperak
- Marmolariak
- Mocketak
- Ordenagailuak
- Parkea
- Pertsianak
- Pintura
- Sarrailagintza (*)
- TB antenak
- Toldoak
- Zaintza
- Zurgintza (zura eta metala)

Zerrenda hori luzatu egin ahalko da, beraz, bertan agertzen ez diren zerbitzuei buruzko kontsultak egin daitezke.

«Premiazko» kontzeptuak berehala konpontzeko beharra duten matxurak biltzen ditu, irizpide hauei jarraiki:

■ BEIRAGINTZA

Leihoetako beiren edo etxebizitzaren itxieraren zati bat diren beira duen beste edozein gainazalen haustura, fenomeno meteorologiko edo hirugarrenen asmo txarreko ekintzen aurrean babes eza agerian uzten duenean.

■ ELEKTRIZITATEA

Etxebizitzaren instalazioaren faseetako batean energia elektrikoaren hornikuntza eza, matxuraren jatorria haren barruan edo haren gelaren batean dagoenean.

■ ITURGINTZA

Etxebizitzaren instalazio finkoen haustura, bai Asegurudunaren bai hirugarren baten ondasunenak; **Komunitatearen instalazioen hausturak edo hirugarrenenak ez dira etxebizitzaren ondasun gisa hartuko, haren barrutian daudenean ere.**

■ SARRAILAGINTZA

Aseguratua etxera sartzera eragozten duen eta sarrailariaren lana edo larrialdien zerbitzuena beharrezkoa duen kontingentzia, beste aukerarik ez dagoelako.

Ezbehar bakoitzeko 600 Eurora arteko estaldura izango dute etxera sartzeko atea blokeatuta geratu dela eta etxe barruan geratu diren pertsonen salbamenduaren ondoriozko gastuek eta kalteek.

11.2. KONPONKETA ETA BRIKOLAJERAKO ASISTENTZIA

11.2.1. Etxetresna elektrikoak konpontzeko zerbitzua

Gainerako estaldurek babesten ez dituzten kasuetan, Konpainiak lekualdaketaren, eskulanaren lehenengo hiru lanorduen eta linea zuriko etxetresnak konpontzeko erabilitako materialen kostua hartuko du bere gain, eta Konpainiak alde aurretik baimenduko ditu profesionalak, ondoren adierazten diren baldintzen arabera.

Ezin izango da, inola ere, kalte-ordain batengatik edo Asegurudunari gastuak itzultzeagatik aldatu ahal izango.

Prestazio honetarako ezbehartzat joko da matxura mekanikoa, elektrikoa edo elektronikoa, horrek pieza edo tresna elektronikoa bat gabetzen duenean eta ondorioz, fabrikantearen zehaztapenen arabera funtzionatzen ez duenean.

Zerbitzuak linea zuriko ondoko etxetresna elektrikoak bakar-bakarrik konpontzea bermatuko du:

- Hozkailu edo izozkailua.
- Garbigailua eta/edo lehorgailua.
- Ontzi-garbigailua.
- Sukalde elektrikoa edo bitrozeramika.
- Labea eta/edo mikrouhina.
- Ke-kanpaia.

Adierazitako etxetresna elektrikoak konpontzeko gastuak ordainduko ditu Konpainiak, eta profesional egokiekin harremanetan jartzea bermatzen du, gehienez 48 orduko epean Hartzailak edo Asegurudunak abisua eman duenetik zenbatzen hasita. **Hartzailari / Asegurudunari profesionalarekin konexioa erraztu ondoren, bi alde horiek adostuko dute zerbitzua egiteko hitzordua.**

ZERBITZUAK HONAKO HAUEK HARTZEN DITU BARNE:

- **Gehienez ere 2 esku-hartze aseguruaren urte bakoitzeko;** esku-hartzetat joko da profesionala aseguraturutako etxebizitzara joatea, nahiz eta horrek konponketarik egiten ez duen, hori bideraezina delako edo polizak estaltzen ez duelako.
- Esku-hartze bakoitzean erabilitako pieza edo materialen kostua sartuko da, baita lekualdatzeko gastuak eta aseguraturutako etxebizitzan egindako eskulanaren lehenengo 3 orduak.
- Zerbitzua hartzaileak izenpetutako polizaren Baldintza Partikularretan agertzen den aseguraturutako etxebizitzan bakarrik emango da.

ZERBITZUAK EZ DITU BARNE HARTZEN HONAKO HAUEK:

- **Ezbeharra jasan duen etxetresna elektrikoaren konponketak, baldin eta ondoko zenbatekoetatik txikiena gainditzen badute:**
 - **Salmenta-balioa, hau da, ezbeharra gertatu aurreko berehalako unean zuen salmenta-balioa.**
 - **300 euro.**
- **Hartzaileak eta/edo Asegurudunak bere gain hartu beharko du ematen den zerbitzu bakoitzean behar izan daitezkeen gainerako eskulan orduen kostua, eskulanaren lehenengo hiru orduena izan ezik.**
- **Erosketa fakturarekin bat fabrikatzailearen bermeak estalitako etxetresna elektrikoaren gaineko esku-hartzeak edo, edozein arrazoiengatik berme epea ezagutzen ez bada, haren iraupena izango da salerosketa egin den uneko indarreko legedi aplikagarriarekin bat fabrikatzaileak eman behar duena.**
- **Etxetresna elektrikoaren matxura mekaniko, elektriko edo elektronikoa eta, zehazki, haren osagai ez mekaniko edo elektronikoen urradurak, kolpeak, deformazioak edo hausturak ez diren edozein motatako kalteak.**
- **Etxetresna elektrikoetan istripuz (erorketa, kolpe, kanpo inpaktu, tentsio igoera eta likido isurien ondorioz) sortutako edozein motatako kalteak.**
- **Akats estetikoak, korrosiokoak, oxidaziokoak, ingurumen inguruabarren edo erabileraren ondorioz sortuak.**
- **10 urte baino gehiagoko fabrikazio-antzinakotasuna duten etxetresna elektrikoak.**

11.2.2. Etxeko brikolaje zerbitzua

Gainerako estalduretan sartzen ez diren kasuetan, Konpainiak joan-etorrien kostua eta aseguraturutako etxean egindako Brikolaje ez urgentearen eskulanaren lehenengo hiru orduen kostua hartuko du bere gain. **Erabilitako materialak Asegurudunak ordainduko ditu eta, hala badagokio, gehiegizko eskulan orduak ere ordainduko ditu.** Honako hauek bakarrik sartzen dira Brikolaje zerbitzuan:

Igeltserotza:

— Bainuontzi eta dutxaontzian hondatutako junturen zigilatzea.

Brikolaje Teknologikoa:

— Ekipamendu teknologikoa abian jartzea, konektatzea eta konfiguratzea: TDT, DVD, Kamera digitala, Home Cinema, Bideo Digitala, Ordenagailuak, TB eta Bideo Kontsolak.

Egur-arotzeria:

— Amaiera-pletinak jartzea: lurreko edergarriak (bi lur ezberdinen arteko juntura estaltzekoak) eta hormen izkinetako babesgarriak.
— Heldulekuak, eskutokiak, eskulekuak, malgukiak eta kisketa txikiak jartzea egurrezko barruko ateetan.

Elektrizitatea:

— Lanparak jarri edo ordezkatzera, argi-puntuak dauden lekuetan aplikeak jartzea.
— Entxufeak, argi-etengailuak, bonbillak eta tinbre-pultsadoreak beste batzuekin ordeztea (**kokapena aldatu gabe**).

Iturgintza:

— Tangaren mekanismoa aldatzea.
— Txorrotak eta ixteko giltzak ordeztu eta jartzea ur-hargunea dagoen lekuan, **baldin eta iturgintza-lanik edo hidromasaje-zutabe zein -kabinak desmuntatzea ez badakar.**
— Erradiadoreen detentore eta mozteko giltzak ordeztea eta purgagailu automatikoak jartzea.

Askotariko Esku-hartzeak:

— Sukaldeko eta bainugelako osagarriak besterik ez kokatzea: eskuoihal-euskarriak, saskiak, esekitokiak, kakoak, xaboi-ontziak, edalontzi-euskarriak, bilkari-euskarriak eta eskuila-euskarriak.
— Ate edo leihoetan burletak jartzea.
— Apalategiak jartzea.

- Koadroak, binilo apaingarriak, horma-irudiak, ispiluak edo paretetara atxikitako irudi apaingarriak jartzea edo finkatzea.
- Gortinak, sare-errezelak eta estoreak jartzea.
- 32"-ra arteko telebisten euskarriak jartzea.
- Kanpoko edo barruko terrazetan esekilekua jartzea, **ez fatxadetan, baldin eta eraisten laguntzeko bitartekorik behar ez bada hura jartzeko.**
- Kit altzariak muntatu eta jartzea.
- Bitrozeramika edo indukziozko plaka ordezte, **baldin eta kokapena, neurria, altzaria edo euskarria aldatzea ez badakar ordezkapenak, ezta instalazio elektrikoa aldatzea ere.**
- Kableak ezkutatzeko kanaletak jartzea (**igeltserotzako lanik gabe**).

Konpainiak profesional egokiekin konektatzea bermatzen du zerbitzuari dagokion lanak buru ditzaten, Hartzaileak edo Asegurudunak **eskatzen duenetik 48 orduko epean, lanegunak badira, eta bi alderdiek hitzordua adostuko dute hura burutzeko, astelehenetik ostiralera (jaiegunak izan ezik), 9:00 eta 19:00 bitartean.**

ZERBITZUAK HONAKO HAUEK HARTZEN DITU BARNE:

- **Gehienez ere 2 esku-hartze aseguruaren urte bakoitzeko; esku-hartzetzat joko da eskatutako zerbitzuari dagokion profesionala aseguratutako etxebizitzara joatea, nahiz eta horrek konponketarik egiten ez duen, hori bideraezina delako edo polizak estaltzen ez duelako.**
- Esku-hartze bakoitzean joan-etorrien gastuak eta etxebizitza aseguratuan egindako lanen esku-lanaren lehenengo 3 orduak sartuko dira.
- Zerbitzua Hartzaileak sinatutako polizaren Baldintza Partikularretan datorren etxebizitza aseguratuan bakarrik emango da.

ZERBITZUAK EZ DITU BARNE HARTZEN HONAKO HAUEK:

- **Zerbitzua osatzen duten lanak egiteko erabilitako materialen kostua; hartzaileak edota asegurudunak hura ordaindu beharko du.**
- **Hartzaileak edota Asegurudunak bere gain hartu beharko du, halaber, ematen den zerbitzu bakoitzean behar izan daitezkeen gainerako eskulan orduen kostua, eskulanaren lehenengo hiru orduena izan ezik.**
- **Instalazioa, lotutako edozein lanetan, baldin eta elementu edo materialen finkapena gainazalean guztiz egonkorra ez bada.**

11.3. FAMILIA-ASISTENTZIA

11.3.1. Familia-asistentzia

Baldintza Partikularretan deskribatzen den etxebizitzan edo hura kokatzen den eraikinean gertatutako istripu baten ondorioz, eta **Konpainiako Osasun Zerbitzuek** hala aginduta, **Asegurudunak** lesioren bat baldin badu eta aldi batean ezin baditu ohiko etxeko lanak edo lan akademikoak egin eta etxean osasun- edo eskola-asistentzia behar badu, **Konpainiak** bermatzen du, ezarritako terminoetan eta mugara arte, zerbitzua ematen duen enpresak edo profesional autonomoak legez jaulkitako fakturaren zenbatekoa itzuliko duela, beti ere **Konpainiak** aurrez horretarako baimena eman badu.

Istriputzat joko da indarkeriazko, bat-bateko, kanpoko eta **Asegurudunaren** nahiaz besteko arrazoi batetik eratorritako gorputzeko lesioa.

Hauk dira berme horren barruan sartzen diren zerbitzuak:

■ OSASUN-LANGILEAK

Fisioterapeutak, osasun-laguntzaile teknikoak eta klinikako laguntzaileak, asegurudunaren osasun egoera dela-eta beharrezkoak diren bitartean, **gehienez ere hiru hilabetez eta 3.000 euroko mugarekin, eta prestazio hori beste edozein aseguruaren bidez lortu ezin badu** (publikoa edo pribatua).

■ ETXEKO LANGILEAK

Garbiketa-lanetan laguntzeko beharrezkoa dena, **istripuaren hamargarren egunetik aurrera eta bere egoerak Konpainiako osasun-zerbitzuaren iritziz beharrezkoa egiten duen bitartean, hiru hilabetez gehienez, ezbehar bakoitzeko egunean 20 euroko mugarekin eta, edonola ere, 1.500 euroko mugarekin istripu bakoitzeko.**

■ IRAKASLEAK

Asegurudunaren ikasketak arautzen dituen plan ofizialeko ikasgaien klase partikularrak emateko egokia dena, **istripua jazo eta hogeita hamargarren egunetik aurrera** eta haren egoera dela-eta beharrezkoa den bitartean, **gehienez ere sei hilabetez eta 1.200 euroko mugarekin.**

Berme honen objektu diren prestazioak eragiten dituen ezintasuna, baita horren iraupena ere, **Konpainiako Osasun Zerbitzuek** erabakiko dituzte beti, eta beste mediku batzuek egin ditzaketen balioespenetatik askea izango da, **Gizarte Segurantzak** eta **Osasun Zerbitzu Publikoak** barne.

11.3.2. Animaliei buruzko informazio-zerbitzua

Albaitarien Zerbitzuaren bidez Konpainiak telefonoz animaliei buruzko Asegurudunaren zalantzei, galderei edo arazoei erantzuna emango die, hain zuzen alderdi hauen inguruan:

■ Legeria:

Animalien jabeen obligazioen inguruan indarrean dauden lege eta arauei buruzko informazio orokorra, Aseguruduna bizi den Autonomia Erkidegoaren arabera, baita zehapen araubideari buruzkoa ere.

■ Albaitaritzaren inguruko honako galderak:

- Elikadura.
- Garbiketa eta zaintza orokorra.
- Parasitoak kentzea eta txertoak jartzea.
- Portaera.

■ Txakur eta katuentzako egoitzak, maskotak onartzen dituzten hotelak, udal harrera zentroak, Animaliak Babesteko Elkartek eta antzeko Erakundeak, arrazen liburu-genealogiko ezberdinen Erakundeak.

■ Honakoen inguruko galderak:

- Animalia-arraza eta -espezie ezberdinen prezio hurbilduak.
- Animalia-arraza eta -espezie ezberdinak izateko gomendapenak, etxebizitzaren ezaugarrien arabera.
- Animaliak hezteko zentroak.
- Zaldiketa zentroak. Ibilaldietarako zaldi-hazkuntzari buruzko informazioa eta hezte-lekuetan mantentze kostuak.
- Akuarioak. Eraikuntza, ohiko arrainak, algak, landareak eta horien prezio hurbila.
- Terrarioak. Ezaugarriak eta eraikuntza, ohiko espezieen arabera (urlehortarrak, narrastiak, intsektuak eta araknidoak).
- Animalia exotikoak. Araudi ezargarriari, zaintza zehatzei eta arretarako albaitariei buruzko informazio orokorra.
- Ehiza-hegaziak. Araudi ezargarriari, hezteko zentroei eta prezio hurbilari buruzko informazio orokorra.
- Gertakarien ospakizuna. Edertasun erakusketak, agility lehiaketak eta bestelako edozein lehiaketa noiz eta non ospatzen den jakiteko informazioa.

Asegurudunak telefono zerbitzua izango du bere eskura, astelehenetik ostiralera, goizeko 9etatik 14ak arte, jaiegunak kenduta.

11.3.3. Telefono bidezko orientabide medikoko zerbitzua

Estaldura honen bitartez, Asegurudunak pertsonen osasunari buruz egiten dizkion zalantza, galdera edo arazo guztiak erantzungo ditu Konpainiak, mediku eta espezialisten zerbitzuaren bidez, 918 365 365 / 900 822 822 telefono-zenbakietan, eguneko 24 orduz eta urtean 365 egunez.

Zerbitzu honek hain zuzen ere honako zerbitzu hauen inguruan emango du aholkua:

Gaixotasun eta sintomen gaineko zalantza klinikoen ebazpena.

- Gaixotasunak aurreikusteko aholkuak.
- Proba diagnostikoentzako edo ebakuntzentzako prestakuntzari buruzko ebazpenak.
- Sendagaien erabilerari eta interakzioei buruzko aholkuak.
- Prozesu patologiko jakin baten aurrean espezialista hautatzeko aholkua.
- Osasunarekin zerikusia duen beste edozein alderdiri buruzko informazioa.

Zerbitzu honek soil-soilik egindako galderari buruz telefonozko aholkua emango duelarik, ez da diagnostikorik nahiz idatzizko irizpenik bidaliko.

11.3.4. Laguntza informatikoko zerbitzua

Estaldura honen bitartez, Konpainiak laguntza telematikoa emango du, 918 365 365 / 900 822 822 telefono bidezko zerbitzuetan edo INTERNET bidez, www.soporteinformatico.mapfre.com helbidean, eguneko 24 orduz eta urtean 365 egunez. Estalduraren xede diren aplikazio eta sistemak honakoak dira:

- Windows eta Mac sistema eragileak, fabrikatzaileak zerbitzua eskatzen den unean laguntza ematen jarraitzen duen bertsio guztietan.
- IOS eta Android sistema eragileak, fabrikatzaileak zerbitzua eskatzen den unean laguntza ematen jarraitzen duen bertsio guztietan.
- Hardware-a: PCa, pantailak, kanpoko biltegitratze-gailuak, Webcam-a, inprimagailuak, eskanerrak.
- Bulegotika-programak.
- Internet-arakatzaileak.
- Posta elektronikoko kudeatzaileak: Outlook, Thunderbird.
- Multimedia programak.
- Fitxategi-kompresoreak.
- Antibirusak eta Firewall-ak.

- Gailu mugikorak: Smartphone eta tabletak.
- Streaming-plataformetarako laguntza.
- Sare sozialetarako aplikazioetako laguntza.

A) URRUTIKO LAGUNTZA INFORMATIKOA

- Estalitako aplikazio eta sistemek gaizki funtzionatzearen ondoriozko arazoak.
Kanpo geratzen dira software profesionalekoak.

- Aplikazioen eta ordenagailuaren erabilera.

- Ordenagailuen konfigurazioa. Halakotzat hartzen da funtzionamendua hobetzeko nahiz funtzioak, aplikazioak edo periferikoak eransteko edo kentzeko asmoz aplikazio eta sistemen parametroetan egindako aldaketak.

Kontsultatutako softwareari buruzko arazo orok sistemaren gutxieneko baldintzak bete beharko ditu, eta ezin izango da etenda egon; baxter geratzen dira fabrikatzailearen laguntza behar duten gorabeherak.

- Smartphone eta tablet-ei buruz:

- Hauek kontsulta daitezke: aplikazioen konfigurazioa, posta elektronikoa, aplikazioak, haririk gabeko sareak, aplikazio-kudeatzailea, web bilatzaileak eta berehalako mezularitza, segurtasun-kopiak eta datu-sinkronizazioa eta mapak.
- Urrutiko kontrolari esker gailuetako edukien segurtasun-kopiak eta berreskuratzeak (agenda, multimedia-fitxategiak, deskargak...) kudeatuko dira, ordenagailuarekin datuak eta fitxategiak sinkronizatuko dira, edukiak eta aplikazioak deskargatu, legezko softwarea instalatu, eguneratu eta berrasieratu, eta ordenagailuan gailuetako driver-ak instalatu.

Urrutiko kontrol bidezko prestazioa gailuen sistema eragilearen, bertsioaren eta firmware berrikusketaren baitan dago; zerbitzua eskaini ahal izango da fabrikatzailearen kudeaketa-softwarea eskura izanda eta gailua ordenagailura konektatuta.

Zerbitzua urrutiko laguntza teknikora mugatzen da, planteatu daitezkeen kontuei dagokienez, inola ere idatzizko ebazpenik eman gabe, **eta hiru ordenagailu eta hiru gailu mugikorrera mugatuko da poliza bakoitzeko.**

B) DATUAK BERRESKURATZEKO ZERBITZUA

Gainera, datu fisikoak berreskuratzeko laguntza tekniko hau ere eskainiko dugu:

Asegurudunarena den datuak biltegitzeko gailu bat kaltetzen denean, arrazoi fisikoengatik (sutea, urak edo istripuak eragindako kalteak) edo logikoengatik izan (birusak, erabilera okerra edo giza akatsa), eta bertan gordetako datuak ezin erabil daitezkeenean, Konpainiak bere gain hartzen du kaltetutako ekipoa jasotzeko, aztertzeko eta, posible bada, gordetako datuak berreskuratzeko konpromisoa.

Estaldurak, kasu horretan, bi berreskuratze barne hartuko ditu aseguru urte bakoitzean.

Zerbitzua Asegurudunaren jabetzako informatika-prozesaketarako ekipamenduetan erabilitako datuak gordetzeko barneko euskarrietarako emango da, zehazki esatera, disko gogor, fitxategi, sistema eragile, gailu ateragarri, memoria-txartel eta periferikoetarako. Horrela, datuak beste edozein biltegitragailutan barneratuta daudenean, datu horiek berreskuratzeko prozesua ez da estalduran sartzen.

Espresuki adierazten da zerbitzu hau eman aurretik datuak galdutzat hartzen direla. Hala, Konpainia ez da kaltetutako euskarrietan barneratutako informazioaren arduradun, ezta datuak berreskuratzeko prozesuarena ere.

Objektu eta egoera hauek zerbitzutik kanpo geratzen dira:

- a) Poliza honek asegurutzen duen Edukiaren barruan ez dauden biltegitratze euskarriak.
- b) Biltegitratze euskarrien gain egindako berreskuratzeak baldin eta Asegurudunari itzuli aurretik manipulatuak izan badira.
- c) Berreskuratzea ezinezkoa baldin bada, eta bereziki euskarria galdu denean edo azidoen nahiz antzeko produktuen eragineko kalteen kasuan, euskarrian gainidatzi den kasuan edo "Head-Crash" (pelikula magnetikoaren galera) delakoaren kasuan.
- d) Euskarri magnetiko edo optikoetan dauden jatorrizko fitxategien berreskuratzea, adibidez CDak, DVDak, bideokaseteak, etab.
- e) Poliza honetako estalduraz kanpoko fitxategi eta gailuak eta, edozein kasutan, biltegitratze-sistema konplexuak (Raid, NAS eta bolumenak), aplikazioen zerbitzariak eta web zerbitzariak.
- f) Euskarriak berriz konfiguratzeko edo berriz instalatzeko.
- g) Euskarri-gailuaren matxurak, zeinak zerbitzu honen prestazioa emateko arrazoia diren.
- h) Smartphone eta tabletetan dauden datuen berreskurapena, bai biltegitratzeko barne-euskarrietan, baita memoria-txartel erauzgarrietan ere.

Beharrezkoa den guztietan, Asegurudunari SATA disko gogorretarako USB kanpo-kutxa emango zaio.

C) URRUTITIK SEGURTASUN KOPIA EGITEKO ZERBITZUA

Zerbitzu honen bitartez, Konpainiak hala eskatzen duen Asegurudunaren eskura segurtasun-kopiaren kokapen-zerbitzua jarriko du, babestutako zerbitzari batean, 15 Gbyte informazio artekoa.

Babestutako zerbitzarian edukitako informazioa Asegurudunaren bost gailutik erabili ahal izango da (ordenagailuak, tabletak, smartphoneak). Asegurudunak berriazko baimena eman beharko dio zerbitzuaren hornitzaileari beharrezkoak diren programak instalatzeko. Segurtasun-kopiak modu guztiz automatikoan egingo dira, Asegurudunak berriaz adierazten duen edukiarenak. Halere, kopiak egin daitezke eskuz edo programa bidez, Asegurudunak aldeztu aurretik eskatu gero. Hala egoki denean gailuetan instalatzen den softwarea zerbitzu honetarako bakarrik erabili ahal izango da eta aseguru-kontratua bertan behera geratzen bada, edozein arrazoi dela-eta, Asegurudunak instalatutako programak desinstalatu egin beharko ditu.

Datuak biltegitatu egingo dira Asegurudunak berak egindako disoziazio eta zifratu prozedura erabilita. Beraz, datuak INTERNET bidez igortzen badira segurtasuna bermatuta egongo da eta Asegurudunaren esku jartzen den gune birtualean egindako segurtasun-kopiak isilpekoak izango direla ere bai. Asegurudunak bakarrik jakingo du deszifratzeko kodea, eta berak bakarrik izango duenez datuetarako sarbidea, Konpainia ez da inola ere erantzule izango kode hori galtzen, hedatzen, uzten edo igortzen bada.

D) ANTIBIRUSA ETA GURASOEN KONTROLA

Zerbitzu honen bitartez Konpainiak segurtasun aurreratuko zerbitzua halaxe eskatzen duen Asegurudunaren eskura jartzen du, Windows, Mac Os, Android, IOS eta Gurasoen Kontrolak osatua.

Denbora errealeko babesa da Windows-erako birusen kontrako softwarea. Haren bidez, edonolako mehatxuen aurka egongo da babestuta programa, besteak beste: malware, spyware, ransomware, exploits, botnets, troiarrak, phishing, spam eta pirata informatikoak.

Denbora errealeko babesa da Mac-erako birusen kontrako softwarea. Hainbat mehatxu blokeatu eta deuseztatzen ditu, besteak beste: ransomware, adware, spyware, birusak, troiarrak, leylogers eta harrak. Hori dena sistema eragilearen errendimenduan eragin gabe.

IOS-erako birusen kontrako softwareak aukera ematen du hari gabeko sare arriskutsuak erabiltzean datuak babesteko, online kontuak ez filtratzeko eta gailuaren datuak aurkitu, blokeatu eta ezabatzeko, hura galdu edo lapurtuz gero.

Android-erako birusen kontrako softwareak (Mobile Security) aukera ematen du malwarea aztertzeko, webean babesteko, VPN konexioak kudeatzeko, aplikazioak blokeatzeko eta gailuaren datuak aurkitu, blokeatu eta ezabatzeko, hura galdu edo lapurtuz gero.

Gurasoen Kontrol Sistemari esker Asegurudunak Interneterako sarrera mugatuko du, aplikazio espezifikoak kontrolatu, webguneak blokeatu, eta posta elektronikoak eta kategoriak, adinaren arabera, iragazi.

Gutxieneko betebeharrak teknikoak berrikusita eta baliozkotuta eta soluzioa instalatuta, Asegurudunak produktua erregistratu beharko du softwarearen eguneratzeak jasotzeko.

Lizentziak bost instalazio ahalbidetzen ditu, gehienez ere.

E) ETXEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK

Asegurudunak teknikari informatiko bat izango du eskura aseguratutako etxebizitzan, hartzailak sinatutako polizaren Baldintza Partikularretan agertzen den horretan hain zuzen ere, baldin eta asegurudunak egindako kontsulta edo azaldutako gorabehera laguntza teknikoak zentroak telefonoz edo telematikoki ezin izan badu konpondu, urruneko laguntza informatikorako ezarritako moduan. Konpainiak bere gain hartuko ditu teknikari bat aseguratutako etxebizitzara joateko joan-etorrien eta eskulanaren kostuak. **Osagarriren bat edo piezaren bat ordezkatu behar bada Asegurudunari fakturatuko zaio zuzenean, zenbatekoa onartu ondoren.**

Kasu horretan, estaldura gehienez ere hiru ordenagailura helduko da poliza bakoitzeko, eta bi esku-hartze ordenagailu bakoitzeko, aseguruaren urte bakoitzeko.

Etxeko Laguntza Teknikoaren estaldurarik ez dute jasoko smartphone-ak, tablet-ak, elementu periferikoak eta antibirus eta gurasoen kontrol sistemen zerbitzuak.

Gorabeherak jasotzeko etxeko laguntza teknikoaren zerbitzuaren ordutegia lanegunetan 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara izango da; tokiko lanegunetan joango da teknikaria asegurudunaren etxera. Erantzuna jasotzeko epea gehienez 16 lanordu izango da (48 ordu natural), baldin eta Asegurudunak epe horren ondorengo egun eta orduren bat eskatzen ez badu.

F) ESKLUSIOAK

Laguntza Informatikoa atalean sartutako zerbitzuen estaldurak ez ditu honako hauek barne hartuko:

- **Konpainiak baimendu ez dituzten langileek egindako lanak.**

- **Datuak galtzea.**
- **Softwarea instalatzea baldin eta Asegurudunak lizentzia hori ez badu.**
- **Arrazoi fisikoek eragindako kalteak: Erorketen, urarengatiko kalteen edo istripuengatiko ezbeharrak.**
- **Prestazioa eragiten duen gertakariaren ondorioz Asegurudunak jasandako kaltea edo lortu gabeko irabazia.**
- **Konpainiak ez du bere gain hartuko edozein prestazio ez gauzatzearen edo berandu gauzatzearen erantzukizunik, baldin eta gauzatze falta edo atzeratze hori ezinbesteko kasu baten ondorioz edo ustekabean gertatu bada; eta, zehazki, kasu hauetan: hondamendi naturalak, IP paketeak transmititzean gertatutako akatsak, gerra, setio egoera, ordena publikoaren asaldurak, garraio greba, hornikuntza elektrikoaren mozketak edo administrazio edo gobernu agintaritzek hartutako beste edozein salbuespenezko neurri.**
- **Konpainiak ez ditu bere gain hartzen Asegurudunaren informazio sistemak birusak, kode maleziatsuak (adib.: troiarrak, zizareak, etab.), software espioiak, peer to peer programak edo instalatuta dituzten beste edozein programa, aplikazio, software edo hardware instalatuta izateagatik (berdin dio asegurdunak horren berri duen ala ez) jasan ditzaketen informazio galerak edo kalteak. Asegurudunaren ardura izango da datu-euskarria edukitzea.**
- **Ekipoen, hardwarearen eta softwarearen agerian estali gabeko beste edozein mantentze-zerbitzu edo euskarri tekniko.**

Aurreko edozein zerbitzu emateko software bat edo urrutiko kontroleko tresnaren bat instalatu beharko balitz Asegurudunaren ordenagailuan, Konpainiak lizentzia guztiak emango ditu berme honetan dauden zerbitzu guztiak erabili daitezen, eta programa hauek eskusiboki dagokien zerbitzuetarako bakarrik erabili beharko ditu Asegurudunak, eman zaizkion lizentzien arabera. Edonola ere ezinbesteko betekizuna izango da Asegurudunak berariazko eta zalantzarik gabeko baimena ematea Konpainiak izendatutako ordenagailuak eta gailuak erabiltzeko modua izan dezan, egoki diren programak instalatzeko edo galdutako datuak berreskuratzeko. **Asegurudunak baimen hori ematen ez badu, Konpainiak une bakoitzean eskatzen den zerbitzua emateari uko egin ahal izango dio.**

Asegurudunak bermatzen du informatika-ekipoen bidezko jabetza, baita hardwarearena ere, eta aplikazioak eta sistemak erabiltzeko lizentzia eta aitortzen du estalduraren xede izan daitezkeen informazio eta artxibo guztiak indarrean dagoen legeriarekin bat datozela.

Edozein arrazoi dela-eta estaldura honetan jasotako zerbitzu telematikoaren bitartez gorabehera konpontzeko modurik ez badago, edo poliza honek estaltzen ez duen kaltea bada eta Asegurudunak aurrez eskatzen badu, Konpainiak egoki diren profesionalak jarriko dizkio eskura, aurrekontuak aurkeztu eta, hala badagokio, eskatutako zerbitzuak egin ditzaten; **Asegurudunaren kargura izango da lan eta zerbitzu horiek burutzeari dagokion zenbatekoa.**

11.3.5. Babes digitala

Estaldura honen bitartez, Konpainiak ondoren zehaztuko diren prestazioen kostua bere gain hartuko du, Asegurudunak eskatzen duenean Internet bidez www.mapfre.cudadodigital.es webgunean edo 918 365 365 / 900 822 822 telefono-zenbakien bitartez, eguneko 24 orduz eta urtean 365 egunez..

Zerbitzua enpresa espezializatu batek emango du, eta behin Asegurudunari harekiko konexioa emanda, hura izango da Asegurudunarekin harremanetan jarri eta prestazioa burutzeko beharrezkoak diren zehaztapenak ezarriko dituena.

Ezin izango da, inola ere, kalte-ordain batengatik edo Asegurudunari gastuak itzultzeagatik aldatu ahal izango.

Estaldurak Interneterako sarbidea duten 6 nortasun edo gailu hartuko ditu gehienez (ordenagailuak edota gailu mugikorak bakarrik), poliza bakoitzeko.

Hauek dira estaldurak hartzen dituen prestazioak:

A) EGIAZTAPEN ELEKTRONIKOKO ZERBITZUA INDARKERIA DIGITALAREN AURREAN

Polizan asegurdun batek edozein komunikabide elektronikoren bidez jazarpenik edo indarkeria digitalik pairatzen badu, **ahots-deiak izan ezik, telefono bidezkoak edo bestelako edozein sistema baten bitartez**, Konpainiak bere gain hartuko du egiazkotasun-egiaztapen bat jaulkitzeko kostua, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

Asegurudunak jazarpen-jokabideak gertatu eta konpainiari jakinarazi ondoren, horretarako laborategi espezializatuan aztertuko dira, ebidentzia digitalak ateratzeko. Gailu hori Asegurudunaren etxean jaso eta entregatuko da eta laborategira ere aparteko kosturik gabe garraiatuko da.

Ekintza horien ostean, egiaztapen-prozesua honako hau izango da:

- Frogak hartu eta testuinguruan aztertzea, baita indarkeria digitalari loturiko eduki guztiak ere.
- Asegurudunari emango zaion txostena jaulkitzea, egiazkotasun- eta zaintza-katearen egiaztapenarekin.

B) ARRASTO DIGITALA JARRAITU ETA EZABATZEA

Estaldura horren bidez, Konpainiak kostu hauek hartuko ditu bere gain:

- Interneteko alde publikoan ageri den eta polizak aseguraturako pertsonen ekonomia edo erreputazioa kaltetu dezakeen informazioa ezabatzea.

Asegurudunak berari azalduko du ezabatu nahi duen informazioa eta informazio horrek bakarrik jasoko du estaldura.

- Sareko kontuak berreskuratzea edo ezabatzea, baldin eta hacking tekniken bidez usurpatu badira.

Asegurudunak espresuki azalduko ditu sarean kaltetuak izan daitezkeen kontuak, eta bakarrik horiek egongo dira prestazioaren pean.

Zerbitzua ematen duen enpresak egoera aztertzeke beharrezkoak diren datuak eskatuko dizkio eta jarduteko aukerak ezarriko ditu; hala badagokio, informazioa ezabatzeko edo hackeatutako kontuak ezabatzeko edo berreskuratzeke beharrezkoak diren biderapenak egingo ditu.

C) GAILU MUGIKORREN KOKAPENA ETA BLOKEOA

Konpainiak lapurtutako edo galdutako Interneteko sarbidea duten eta Asegurudunarenak diren gailuen kokapenaren eta blokeoaren kostua bere gain hartuko du.

Asegurudunaren gailuak ahalbidetzen duen aplikazioa, www.mapfre.cuidadodigital.es helbidean eskuragarri dagoena, gertakaria jazo baino lehen instalatuta daukanean bakarrik eman ahal izango da estalduraren erabilera hau.

Aplikazioa instalatutakoan, eta adingabeen kasuan, gailuaren alarmak eta funtzionalitateak aktibatu ahal izango dira, adingabea gorabeheraren bat jasaten ari bada.

D) GUARDIÓN KANALA

Konpainiak bere gain hartuko du laguntza espezializatuko lanen kostua, ziberjazarpena, espioitza edo baliabide digitalen bidezko jazarpena gertatuz gero, polizako edozein aseguraduni.

Prestazioa telefonoz edo Internet bidez eskatzeaz gain, asegurdunak WhatsApp eta/edo Chatweb kanal bat izango du bere eskura. Kanal horren bidez, gertaeraren aurrean behar den laguntza kudeatuko da, eta zerbitzua ematen duen enpresak beharrezkoak diren jarduketak teknikoak burutuko ditu asegurdunaren gailuari buruz, eta berak egin behar dituen kudeaketei buruzko aholkuak emango dizkio, salaketa edo komunikazioei buruzkoak, esaterako.

Halaber, asegurdunari aholku emango zaio gorabehera gertatzen den gailu edo bitartekoen pribatutasun-konfigurazioari, pasahitzei, eguneratzei, blokeoei eta ikuskapenari buruz, bai eta gorabehera hori arintzeko familia-tresnak erabiltzeari buruz ere, eta gertaeraren bilakaeraren berri emango zaio.

E) ESTALI GABEKO GERTAKARIAK

Estaldura honek ez ditu barne hartzen:

- a) **Asegurdunak burutu ditzakeen legezko ekintzak, ezta horietatik erator daitezkeen kostuak ere.**
- b) **Estaldura hau behar ez bezala erabiltzeagatik Asegurdunaren kontra burutu daitezkeen legezko ekintzen defentsa.**
- c) **Asegurdunak datu faltsuak emateagatik erator daitezkeen ondorioak.**
- d) **Estaldura honetan deskribatutakoak ez diren edozein prestazio edo zerbitzu.**
- e) **Konpainiak izendatu ez dituen profesionalek burututako ekintza guztiak.**

11.3.6. Laguntza online jardueretan: telelana, ikasketak, aisia eta erosketak

Estaldura honen bidez, Konpainiak ondoren zehazten diren prestazioen kostua bere gain hartuko du, Asegurdunak Internet bidez (www.mapfre.nuevohogardigital.es) edo 918 365 365 / 900 822 822 telefonoen bidez eskatzen duenean, urteko 365 egunetako 24 orduetan.

Estaldura eskuratzeko alde zuzeneko baldintzak, asegurdunak bere kontura egiaztatu beharrekoak:

Fabrikatzaileak bakarrik eman ahal izango du estaldura euskarridun gailuetan, eta etxeko gailuen kasuan, beharrezkoa da administratzaile-maila izatea zerbitzua emateko behar diren programak instalatzeko.

Zerbitzua enpresa espezializatu batek emango du, eta behin Asegurdunari harekiko konexioa emanda, hura izango da Asegurdunarekin harremanetan jarri eta prestazioa burutzeko beharrezkoak diren zehaztapenak ezarriko dituen.

Zerbitzua emateko asegurdunaren helbidean bertan laguntzea beharrezkoa bada, eta mugikortasun-murrizketengatik hori ezinezkoa bada, prestazio guztiak asegurdunaren telefono mugikorraren bideoaren bidez eman ahal izango dira, errealitate areagotuko zerbitzuaren bidez.

Ezin izango da, inola ere, kalte-ordain batengatik edo Asegurdunari gastuak itzultzeagatik aldatu ahal izango.

Hauek dira estaldurak hartzen dituen prestazioak:

A) TELELANERAKO LAGUNTZA

■ Abiadura-testa eta estaldura-azterketa.

Prestazio honen bidez, tresna automatiko baten bidez Internetera konektatzeko abiadura aztertuko da, bai eta sarearen estaldura ere. Asegurdunak bere sarearen egoerari buruzko txostena jasoko du, eta espezialista batek router-ean edo WiFi sarean gomendatu eta konfiguratu ahal izango ditu konexio-abiadura eta estaldura optimizatzeko ekintzak. Eskatu eta bi (2) laneguneko epean bidaliko da txostena.

Prestazioa mugatuta dago aseguruaren urteko lau (4) eskaeretara.

■ VPN konexioa (Sare Pribatu Birtuala)

Aseguratuari VPN konexio baterako berariazko software bat emango zaio, bere gailutik lan-sistemetaraino informazioaren segurtasuna bermatzeko aukera ematen duena, azpiegituraren ahultasunak direla eta (adibidez, etxeko bideratzaileak edo sare publikoak) informazioa lapurtzea saihesteko.

Windows eta Mac ordenagailuetarako bakarrik balio du, eta gehienez ere lau (4) lan-estaziotarako poliza bakoitzeko.

■ Erabiltzaile anitzeko konfigurazioa

Baldintza Orokor hauetan definitzen den bezala, asegurduntzat hartzen diren pertsonen artean partekatutako gailuetan, erabiltzaile anitz konfiguratu dira, familiako kideen artean nabigatzeko eduki eta historialen pribatutasuna mantentzeko.

■ Etxeko Bulegoaren (Home-Office) Aditua

Asegurdunak aholkularitza izango du bere bulegoa etxean instalatzeko eta mantentzeko, bere lanerako behar duen ekipamenduaren inguruan, eta lankidetzarako inguruneen erabilera eta konfigurazioari buruz: **Teams, Googleren suitea, Office 365...**

Informazio hori web-aren plataforma automatikoaren bidez (non aholkuak etengabe eguneratuko diren) eta, behar izanez gero, aditu baten bidez emango da.

B) LAGUNTZA ETXEKO IKASKETETARAKO ETA AISIARAKO

■ Laguntza eskola-tresnekin

Sarbide, instalazio, konfigurazio edo erabilgarritasun arazoei buruzko laguntza zehatza emango da **merkatuko hezkuntza-tresna hauetan: Google-classroom, Moodle cloud, Microsoft Teams, Zoom, G-suite Google, Microsoft Learning Tools, Alexia, Edmodo, aGora, Aula1.**

Laguntza haurrei eta gurasoei zuzenduta dagoelarik, irakasleei laguntza aurreratuagoa emango zaie. Beharrezkoa izanez gero, tresnen erabilerari buruzko prestakuntza-dokumentuak ere bidaliko dira.

■ Hodeiko gailu fisikoak eta joko-plataformak optimizatzea (Cloud-Gaming)

Online jokoetarako ekipamendu fisikoaren aholkularitza, konfigurazioa eta optimizazioa eskainiko dira, bideo-jokoen plataformek eta horien periferikoek normal funtzionatzea ahalbidetzen ez duten gorabeheren aurrean.

Asegurudunak eskatuz gero, driverrak eguneratuko dira eta laguntza emango da hodeiko joko-plataformentzako, eta aholkuak emango dira adingabeentzako jokoen inguruan, adin eta kategoria bakoitzeko (PEGI sistema).

Bakarrik Windows eta Mac ordenagailuetarako balio du, eta onartzen diren bideo-jokoen plataforma hauetarako: Sean, Origin, Gforce Now, Gog, Google Stadia, Prime Game.

C) LAGUNTZA ONLINE EROSKETETAN

■ Erosketa segurua

Erosketa egin nahi duen merkataritza elektronikoko webguneari buruzko txosten bat emango zaio asegurudunari, plataforma espezializatu baten bidez, segurtasun-hornitzaile nagusiak kontsultatuta, eta bertan merkataritza-transakzioak egiteko arriskua adieraziko zaio.

Halaber, webguneko "Online Protection" txataren bidez, nabigatzeko eta Interneten segurtasunez erosketak egiteko aholkuak emango dira. Kontseilu horiek etengabe eguneratuko dira.

■ Posta-kontu segurua

Aseguratuak bere posta elektronikoko kontuaren ahultasuna aztertu ahal izango du prebentzio txostenen bidez, bai eta txosten puntualen bidez ere, ahultasunen bat aurkituz gero.

Estaldura honen prestazioengatik asegurudunari bidali behar zaizkion txostenak bi laneguneko epean bidaliko zaizkio, eta

aseguruaren urte bakoitzeko gehienez ere lau (4) eskaera onartuko dira.

Erantzukizun Zibileko Estaldura

12. ARTIKULUA. BERMEAK ETA PRESTAZIOAK

Espresuki Baldintza Partikularretan sartuta dagoenean, Konpainiak ordainduko ditu, **ezbehar bakoitzeko adostutako zenbatekoaren mugara arte**, Aseguruduna erantzule zibila denean, eta zuzenbideari jarraituta, hirugarrenei eragindako kalteak edo kalte materialengatik, eta haiek eragindako galerengatik kalte-ordainak, eta baita kostu judizialak eta ezarri ahalko zaizkion gastuak ere, erantzukizun horiek estaldura honetan aurreikusitako kasuen ondoriozkoak badira eta haietan oinarrituta euren erruarengatik edo zabartasunaren ondoriozko ekintzengatik gertatu badira.

Estaldura hau ez zaie ondorengoei aplikatuko:

- **Asegurudunak alokairu erregimenean ustiatzen dituen etxebizitzetzi.** Haien aseguruua xede horretarako ezarritako kontratu bidez egin behar da (MH.03 klausula).
- **Nortasun juridikoko asegurdunen etxebizitzetzi.** Haien aseguruua xede horretarako ezarritako kontratu bidez egin behar da (MH.07 klausula).

12.1. ESTALDURAREN NORAINOKOA

Barne hartuko ditu hirugarrenei eragindako gorputzeko kalteak edo kalte materialak, baita kalte horiek eragin dizkieten galerak ere, baldin eta asegurdunari lepora badakizkioke honako hauen ondorioz:

- Pertsona pribatua izatea.
- Haietan bizitzeko etxebizitzak eduki edo erabiltzeagatik, **ondasun higiezinan izanik**, aldi baterako denean ere.

Jabeen erkidego baten parte badira, erkidego hori hirugarrentzat joko da, bere elementu eta eremu komunengan Asegurudunak eragin ditzakeen kalteei dagokienez. Honi dagokion kuota proportzionala ere egongo da aseguraturata, erkidegoaren portzentajearen arabera, eraikineko atal komunek hirugarrenei eragindako kalteen ondorioz; halere, **konpainiak banaka aseguraturatutako hainbat erkidegoren baturak eragiten duenean, erantzukizun maximoa haiei dagozkien kontratuetan zehaztutakoa izango da.**

Etxebizitza alokatuta badago, Asegurudunaren erruz diren eta sutearen, leherketaren edo uraren ondoriozko kalteak ere estaliko dira; altzariekin alokatu bada, aipaturiko kausa horien ondorioz, altzariak eta etxeko gauzek izandako kalteak ere egongo dira estalita.

- Berritze-lanak egiteagatik, lanen administrazio-iritzia lan txikiena denean. Horri dagokionez, lan txikitzat hartuko dira eraikinaren egiturako elementuetan eraginik izan ez dutenean.
- Kirola egiteagatik, zaletu gisa.
- Su-armak edo arma zuriak edukitzeagatik, asegurdunak agintari eskudunek emandako lizentziak dituztenean eta armak arautzen dituen araudia betetzen duenean.

Nolanahi ere, ez dira estaliko ehizan jardutearen ondorioz eragindako kalteak edo arma horiek Aseguruaren Baldintza Partikularretan aipatutako etxebizitzaz bestelako leku batean gordeta egoteagatik, edo haien legez kanpoko edo armen araudia betetzen ez duen beste edozein erabilera.

- Arraunak edo pedalak dituzten ontziak erabiltzeko, eta motorrik gabeko ibilgailuak erabiltzeagatik, bizikletak, patinak edo antzerako ezaugarriak dituztenak.
- Erabilera partikularrekin erabiliko diren motordun ibilgailuetan garraiatutako objektuen erorketa eta 750 kilo edo gutxiago karga daitekeenean.
- Etxeko langileen egiteak edo ez-egiteak, asegurdunarentzat lanean ari diren bitartean. Etxeko langileak izango dira etxea eta honen instalazioak zaintzeaz edo etxeko lanak egiteaz arduratzen direnak.

Estaldurak barne hartuko ditu, orobat, etxeko langileek agindu zaizkien lanak egiterakoan jasan izan ditzaketen gorputzeko kalteen ondorioz jurisdikzio arruntaren aurrean asegurdunaren aurka egindako erreklamazioak.

Estaldura hau ez zaie aplikatuko Gizarte Segurantzaren alta eginda ez dauden langileei.

- Artikulu honetako "ESTALI GABEKO ARRISKUAK" atalean ezarritakoa partzialki bertan behera utziz, Asegurdunari egotz dakiokkeen Erantzukizun Zibila estalita geratzen da, honako hauen ondorioz hirugarren pertsonari eragindako kalteengatik:
 - Mugikortasun urria duten pertsona ezgaien motore bidezko ibilgailuak, **baldin eta 10 km/h-ko gainditzen ez badute.**

- Pedalei eragiteko sistema lagundua duten pedalen bizikletak erabiltzea; halako bizikletatzat joko dira motor elektriko osagarria dutenak, 250 W-eko gehieneko potentzia izendatu jarraitua edo txikiagoa dutenak, zeinaren potentzia gutxituz doan **eta, azkenik, geldiarazi egiten den ibilgailuaren abiadura 25 km/h-ra iritsi baino lehen edo txirrundulariak pedalei eragiteari uzten dienean.**

Polizak kalteak estaliko ditu soil-soilik ibilgailua edo bizikleta aplikatu beharreko araudiaren arabera homologatuta dagoenean, legez ezarritako bideetatik zirkulatzen duenean eta zirkulatzeko behar diren baimen, ziurtagiri edo lizentzia guztiak dituenetan eta, legez beharrezkoa bada, asegurdunak hura gidatzeko lizentzia duenean.

Ez dira estaliko, indarreko araudiari jarraiki, Erantzukizun Zibileko Nahitaezko Asegurua izan behar duten gertakariak.

- Etxeko animaliak izategatik. **Halakotzat hartuko dira, bakar-bakarrik, txakurrak, katuak, kaiolatutako hegaztiak eta karraskariak, arrainak, dortokak; baztertuta geratuko bestelako edozein animalia.**

12.2. DEFENTSA ETA FIDANTZA ZIBILEKO GASTUAK

Baldintza Partikularretan zehaztutako aseguratutako zenbatekoaren mugarekin, eta erreklamazioaren xedea poliza honen estalduran sartzen denean, hauek ere egongo dira bermatuta:

- Prozeduraren ondorio zibilak bermatzeko eskatutako fidantza judizialak eratzea.
- Kostu judizialak, zeinak Aseguratzailari ordaindu behar zaion polizan datorrena beteaz kalte-ordainaren eta ezbeharrean Asegurdunaren erantzukizunaren zenbateko osoaren artean dagoen proportzio berean ordainduko diren.
- Aseguratzailak lege zuzendaritza bere gain hartuko du kaltetuaren erreklamazioari aurre egiteko eta bere kontu izango dira sor daitezkeen defentsa-gastuak. Asegurdunak beharrezkoa den laguntza eskaini behar du Aseguratzailak bere gain hartutako lege zuzendaritzari dagokionez. **Asegurdunak bere defentsa hautatzen badu, gastu judizialak bere kontu bakarrik izango dira.**
- Arestian aipaturiko prestazioak aseguruaren xedea den jarduera gauzatzera koan Asegurdunaren aurka aurkeztutako prozesu kriminaletan ere aplikatuko dira, defendatutakoak aurretik adostu duenean. Asegurdunak bere defentsa hautatzen badu bere kontu bakarrik izango dira defentsaren kostuak eta gastuak.

- Asegurudunaren aurka jarraitutako prozesu judizialean zigorra ebazten bada, Asegurudunak eskuduna den Auzitegi Nagusiaren aurrean helegitea jartzeko aukera izango du; helegitea bidezkoz hartzen ez bada, interesdunari jakinaraziko zaio, eta nahi badu bere kabuz aurkeztu ahal izango du hark. Azken hau gertatuz gero jarritako errekursoak Aseguratzaillearen interesen aldeko epaia izango balu, bere kontu den kalte-ordaina gutxituz, Aseguratzailleak errekurso horrek sortutako gastuak bere gain hartu beharko ditu.
- Asegurudunaren eta Aseguratzaillearen artean Asegurudunaren defentsaren aurkako intereseko ezbeharrean oinarritu behar delako, Aseguratzailleak hari jakinarazi beharko dio, urgentea dela-eta, bere defentsarako beharrezkoak diren izapideak egin behar baditu ere. Kasu honetan Aseguratzailleak bitako bat aukera dezake: Aseguratzailleak lege zuzendaritzari eustea edo bere defentsa beste pertsona bati ematea. **Azken kasu horretan, Aseguratzailleak derrigorrez ordaindu beharko ditu zuzendaritza juridiko horren gastuak, 3.000 euroko mugarekin.**
- Erantzukizun zibilari dagokionez adiskidantzazko akordioaren bat adostu bada, Asegurudunaren defentsa penala Aseguratzaillearen eskumena izango da eta beti alde zuzenetik defentsa jasotzen duen pertsonaren baimenarekin.

Ordaindutako kalte-ordainei gehitutako arestian aipaturiko epaiketa-gastuen kasuan, muga hori gainditzen duten kantitateak ordainduko ditu Aseguratzailleak, **Espainiako epaitegietan burutzen badira.**

Polizaren estaldura-lurraldea espresuki zabaltzea adostu den kasuetan eta ekintzak atzerriko auzitegietan burutzen badira, Aseguratzailleak ordaindu beharreko zenbatekoa polizak ezbehar bakoitzeko ezartzen duen indemnizazio-muga izango da gehienez ere, indemnizazioa eta gastu judizialak batuta.

12.3. ESTALI GABEKO ARRISKUAK

Estalduran ez da sartzen hauen ondorioz sor daitezkeen indemnizazioen ordainketa:

- **Doluzko egitateak edo asegurudunak, haren soldatapekoek edo ardurapekoek nahita eragindakoak, baita aipatu aurreko edozeinek apustu, erronka eta liskarretan parte hartzearen ondorioz gertatutako kalteak ere.**
- **Etxebizitzak edo eraikinak eta hauen instalazioak (bereziki hur-hurreko hondamen deklarazioa dutenak) mantentzeari buruzko arau, lege, ordenantza eta araudiak nahita ez betetzeak eragiten dituen kalteak.**

- Hodien edo eroanbideen korrosioa edo narriadura orokorra eragiten duten kalteak, beste edozein arrazoiengatik, baldin eta, aldez aurreko ezbehar batean badaudela jakin ondoren, haiek kentzeko behar diren konponketak egin ez badira.
- Etxeko abere ez diren animaliek eragindako kalteak.
- Zigorren eta isunen ordainketa, eta haiek ez ordaintzearen ondorioak.
- Erabili edo gozatzeko, manipulatzeko, eraldatzeko, konpontzeko, zaintzeko, gordetzeko edo garraiatzeko Asegurudunari utzi, laga edo errentan utzi zaizkion edo haren kontrolpean dauden ondasun higigarri edo higiezinei eragindako kalteak, Baldintza Orokor hauetan berariaz ezarritako kasuetan izan ezik.
- Hitzarmenen edo akordioen bitartez onartutako betebeharrak, zeinak ez lirateke legez exijitzekoak izango Asegurudunari akordio horiek izan ezean.
- Lan-jurisdikzioak edo administrazioak onetsi behar dituen erantzukizunak.
- Elkarreetan edo erkidegoetan gauzatzen diren kargu edo jardueren industriren edo negozioen ustiapenaren ondoriozko erantzukizunak, eta ordaindutako profesio edo zerbitzuena ere, ohorezko tituluarekin burutzen direnean.
- Motordun ibilgailuei, aireontziei, ontziei, droneak eta aeromodeloak barne, eta, oro har, arraunez, pedalez edo gizakiaren indarrez mugitzen diren gainerako mekanismoei esker mugitzen ez den bestelako ibilgailu edo objektuei eragindako kalteen erantzukizunak.
- Uretan zein airean ibiltzeko balio duen ontzi edo aireontziei, droneak eta aeromodeloak barne, eta, oro har, arraunez, pedalez edo gizakiaren indarrez mugitzen diren gainerako mekanismoei esker mugitzen ez den bestelako ibilgailu edo objektuei eragindako kalteen erreklamazioak.
- Erreakzio edo erradiazio nuklearrak edo kutsadura erradioaktiboak sortutako edozein kalte, gai horri buruzko legediak bildu zein ez.
- Polizak babesten duen gorputzeko kalte edo kalte materialen baten ondorio ez diren galera ekonomikoak, baita polizak babesten ez duen gorputzeko kalte edo kalte materialen baten ondorio diren galera ekonomikoak ere.

- **Zuzenean edo zeharka airearen egoera naturalaren, lurreko, itsasoko edo lurrazpiko uraren, zorukoa nahiz lurpekoa eta, oro har, Ingurumenaren nahasmenek eragindako kalteengatik erantzukizunak, hauek sorturikoak:**
 - **Kutsatzaileen isurtzeak, injekzioak, biltegitratzeak, ihesak, deskargak, jarioak edo iragazketak.**
 - **Erradiazioak, zaratak, bibrazioak, usainak, beroa, tenperatura-aldaketak, eremu elektromagnetikoak edo beste edozein uhin-mota.**
 - **Ke toxikoak edo kutsagarriak, suteak edo eztandak sortuak.**

Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legean eta hori garatzen duen araudian —Herri Administrazioak eskatzen duena edo eska dezakeena— oinarritutako ingurumen erantzukizunagatik edozein erreklamazio, edo 2004/35/EE Europako Zuzentarauaren (Ingurumen Erantzukizunari buruzko Zuzentaraua) transposizioan oinarritutako ingurumen erantzukizunagatik edozein erreklamazio, edo Herri Administrazioak urari, zoruari edo basa espezie nahiz ekosistemei eragindako kaltea konpontzeko eskatzen duen edo eska dezakeen edozein ingurumen erantzukizun —kaltea kutsadurak eragin duen gorabehera—, baita kalte hori saihesteko eginiko gastuak ere.

12.4. ESTALDURAREN MUGATZE GEOGRAFIKOA

Polizak Espainian gertatu diren gertaerengatik espainiar auzitegiei aurkeztutako erreklamazioak bakarrik estaliko ditu, **ondoaz ondoko hiru hile baino gehiago iraungo ez duten aldizkako joan-etorri pribatuetan gertatzen direnean aplikatuko da estaldura hau.**

12.5. ESTALDURAREN DENBORA-EREMUA

Estaldurak indarraldian lehenengo aldiz gertatutako kalteengatik izango ditu ondorioak, betiere, kalteak eragin dituen kontratua indarrean sartzeko dataren ondoren gertatu bada eta horren inguruko erreklamazioa modu frogagarrian jakinarazten bazaio aseguratzaileari, polizaren indarraldian edo kontratua amaitzen den egunetik hasi eta 24 hilabeteko epean.

Defentsa Juridikoko Estaldura

Kudeaketaren modalitatea: konpainiak bermatzen du, estaldura honi dagokion aholku juridikoan lan egiten duen inork, aldi berean beste alor batean antzeko jarduerarik burutzen ez duela.

13. ARTIKULUA. BERMEAK ETA PRESTAZIOAK

Polizaren Baldintza Partikularretan adostutako mugara arte, aseguratuek esku-hartzearen ondorioz izan ditzakeen gastuen ordainketa bermatzen da, norberaren edo poliza honetan aseguratutako gisa agertzen den edonoren izeneko prozeduraren parte dela, prozedura judizial, administratibo edo arbitralean, artikulua honetan berariaz aurreikusitakoaren artean, edo aseguruaren estalduraren ondoriozko laguntza juridiko, judizial edo estrajudizialeko beharrezko zerbitzuen prestazioa.

Polizaren Baldintza Partikularretan MH06 klausula kontratatzen dela agertzen bada, Defentsa Juridikoko berme honek barne hartuko ditu klausula horretan deskribaturiko prozedura judizialak ere.

Aurkako hitzarmena izan ez ezik, aseguru honek estaltzen dituen bermeak soilik Espainian egoitza duten epaitegi, auzitegi edo erakunde publiko eta pribatuek aipaturiko prozesamenduetan aplikatu ahal izango dira.

Polizaren Baldintza Partikularretan Defentsa Juridikoaren estaldurarako finkatutako aseguratutako zenbatekoa da aseguratzaileak ordainduko duen gehieneko zenbatekoa, aseguruaren kopurua edozein izanda ere, gertaera edo kausa berari loturiko jarduketa guztiengatik; berdin dio zenbat prozedura jarraitzen diren, horien iraupena edo zein instantzia judizialek jota den.

13.1. ESTALDURA

Estaldura honetan, honako berme hauek daude:

A) KONTRATUZ KANPOKO ERRU EDO ARDURAGABEKERIENGATIKO KALTEEN ERREKLAMAZIOA

Asegurudunak pairatutako kalteak eta galeren erreklamazioa bermatuko da, eragileak erantzun beharreko kontratuz kanpoko erruz edo axolagabekeriak eratoritzen badira, betiere, Kode Zibileko 1.902tik 1.910era arteko artikuluen arabera.

Estalduraren barruan sartutzat joko dira Asegurudunak kaltetu gisa hirugarren batek erruz edo axolagabekeriak eragindako kalteak erreklamatzeko parte hartzen

duen prozeduretatik eratorritako gastuak, horien artean kontratuzko harremanik ez dagoenean eta erreklamatzeko ekintza aipatutako artikuluetatik erortzen den erantzukizuna exijitzeko bakarrik burutzen denean, **Baldintza Orokor hauetan berariaz zehazten diren prozeduraren bat ez bada, horiek ez baitira inola ere estalita egongo.**

B) KONTRATUAN EZARRITAKO ERRU EDO ARDURAGABEKERIENGATIKO KALTEEN ERREKLAMAZIOA

Halaber, Asegurudunarengan pertsonalki nahiz bere ondasunengan beren jabe izanik eragindako kalte eta galeren erreklamazioak bermatzen dira, horiek kontratuaren erruz edo axolagabekeriagatik jazo badira, honako zerbitzuren bat hornitu ez izanagatik:

- Medikoak, ospitalekoak eta tratamendu odontologikoak.
- Ostalaritza edo bidaia-agentzien zerbitzuak.
- Irakaskuntza edo eskola-garraio zerbitzuak.
- Garbiketa zerbitzuak.
- Mudantza zerbitzuak.
- Abokatuak, Auzitegietako Prokuradoreak, Notarioek, Jabetzaren Erregistratzaileak eta Administrazio Kudeatzaileak beren lanbidean hornitutako zerbitzuak.
- Pertsona fisiko edo juridikoek burututako konponketak eta eraberritze-lan orokorrak, horiek lanak burutzeko behar bezala baimenduta daudenean.

Kalteen erreklamazioak, kontratuzko nahiz kontratuz kanpoko erru edo zabarkeriagatik, ondoko prestazioak sartzen ditu:

- a) Epaietat kanpoko kudeaketak eta izapideak bideratzea, kalte eta galerak konpentsatzeko, eta erreklamazio horretatik eratorritako gastuen ordainketa.
- b) Babes juridikoa kalteen erreklamaziorako adierazitako kausek jarraitutako prozeduretan, epaietat kanpoko konpentsazioa lortu ez denean.

C) DEFENTSA PENALA

Asegurudunaren defentsa penala bermatuta dago bere aurkako **delitu arinen epaietat**; kasu horretan, prestazio hauek bilduko dira:

- a) Abokatuaren defentsa juridikoa, eta hala badagokio, prokuradorearena, baita hauen ordainsarien eta gastuen ordainketa ere.
- b) Gastu judizialen ordainketa.

Halaber, Asegurudunaren defentsa bermatuta dago ekintza penal eta zibilen jardueran, bera salatzailea edo auzilaria denean eta delitu batengatik kaltetuta denean.

D) LANEKO ERREKLAMAZIOAK

Asegurudunaren defentsa bermatzen da etxeko zerbitzuko langileek, laneko harremanaren esparruan, bere aurka abiarazitako prozedura edo espedienteetan.

E) ABSENTZIA ETA LEGEZKO HERIOTZA

Asegurudunen absentsia eta legezko heriotzaren aitorten judizialerako aurkeztutako prozedurak estalita egongo dira, baldin eta izaera hori dutenek aurkezten badituzte.

13.2. ESKLUSIOAK

1. artikuluaren seigarren atalean estalduraz kanpo geratuko direnez gain, eta hitzartutakoaren aurka ez badoa, ondoko hauek ez dira estalduran barne hartuko:

- a) Zehapenak eta isunak ordaintzea, horien aurkako helegiteak eta agintaritza eskudunek jarritako zigorrek eragindako edozein gastu.
- b) Kudeaketetatik, izapideetatik, espedienteetatik edo prozeduretatik eratorritako defentsa edo gastuen ordainketa, edozein izaera eta motakoak badira ere, eta baldintza hauek betetzen badituzte:
 - 300 eurotik beherako auzitegi kostua izatea.
 - Banku-jardueratik eta ur-, gas-, elektrizitate- eta telefono-hornikuntzatik eratorriak izatea.
 - Garraio kontratuetatik eratorriak izatea, aurreko atalean bildutako mudantzak izan ezik.
 - Asegurudunaren langileen erreklamazioak, etxeko zerbitzuko langileenak izan ezik, eta hirugarrenenak, beren zereginak burutzeko ekintzen edo zabarkeriengatik.
 - Asegurudunaren jarduera profesionalak eragindako erreklamazioak, edo jarduera horri loturiko ondasunen gainekoak.
 - Gidariak edo ibilgailuaren jabeak egindako ekintza penal edo zibilak, motordun ibilgailuaren erabileraren edo zirkulazioaren jardueraren ondorioz.
 - Ondasun higiezin baten salerosketa kontratu batetan kausa duten erreklamazioak, eta eraikuntza akatsengatiko erreklamazioak.
 - Asegurudunak Konpainiaren aurka, edozein izanik ere arrazoia, edo harekin, erabaki-unitate bakarra osatuz, zuzenean edo zeharka, lotura duen edozein enpresaren aurka eta, oro har,

MAPFRE izena daraman enpresa baten aurka ezarri nahi dituen erreklamazioak.

- **Sustatzaile, eraikitzaile, arkitekto eta bestelako edozein teknikariren aurkako ekintzak, ondasun higiezin baten eraikuntzan egin duten lana dela-eta, zuzenean edo zeharka.**
- **Babes juridikoaren bermea indarrean sartu baino aurretik jazotako gertaeretan jatorria edo zergatia dutenak.**
- **Alokairu kontratuetatik eratorritako erreklamazioak.**

c) Frogak ez dituzten eta, hortaz, bideragarriak ez diren erreklamazio bidegabeen gastuak, baita pairatutako kalte eta galeren balorazioa neurritz kanpoko delako agerian uzten duten erreklamazioen gastuak ere. Dena dela, Konpainiak gastu horiek ordainduko ditu Aseguratuak bere asmoen aldeko ebazpen irmoa edo hasierako asmoaren antzeko zenbatekoko kalte-ordaina lortzen badu. Horretarako, Konpainiak bere gain hartzen du asegurdunari baldintza hori jakinarazteko betebeharra, baita presazkoak izateagatik beharrezkoak diren diligenziak egiteko ere, babesgabetasunik ez eragiteko.

13.3. ASEGURUDUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. Asegurdunak ordezkaturiko duen Prokuradorea eta defendaturiko duen Abokatuak askatasunez aukeratzeko eskubidea izango du.
2. Auzia nola tratatu interes gatazka edo desadostasuna egongo balitz, Konpainiak aurreko puntuko eskubideez baliu daitekeela jakinaraziko dio berehala Asegurdunari.
3. Asegurdunak edozein profesional izendatzen badu, egoera hori jakinarazi beharko du, gertakizun hori jazotzen denetik zazpi eguneko epean. **Asegurdunak Abokatuaren nahiz Prokuradorearen izendapena jakinarazten ez badu, jakinarazpenik ezaren ondorioz Konpainiak kalte eta galerak erreklamatzeko eskubidea izango du.**

13.4. PROFESIONALEN JARDUKETAK ETA ORDAINSARIAK

1. Asegurdunak hautatutako Abokatuak eta Prokuradoreak ez dituzte Konpainiaren jarraibideak bete behar.
2. Asegurdunak izendatu duen Abokatuaren ordainsariak ordainduko ditu Konpainiak, baldin eta burututako kudeaketak eta jarduketak zehatz-mehatz aurretik justifikatu badira; halaber, jarduketak burutu diren lurraldeko Abokatuaren Elkargoak ezarritako ordainsarien baremoaren arabera ordainduko dira ordainsariak, **eta zenbateko hori ordainduko da gehienez. Kudeaketak eta**

jarduketak amaitu aurretik, horiengatik Konpainiak ez du inolako fondoan hornidurarik ordainduko. Dena dela, Konpainiaren kargurako gehieneko muga polizaren Baldintza Partikularretan adostutakoa izango da.

3. Konpainiak ez ditu ordainduko Asegurudunak erabili ahal izan duen Abokatu eta Prokuradorearen ordainsariak, eskubideak eta aurrerakinak, kontrako alderdiak horiek ordaintzen dituenean, ebazpe-nean horiek ordaintzea inposatu izanagatik.

13.5. ORIENTAZIO JURIDIKOA

Orientazio Juridikoaren Zerbitzuaren bidez, lege kontuetan Asegurudunak azaldutako galdera, zalantza edo arazoei erantzuna emango die Konpainiak.

Zerbitzu honek soil-soilik egindako galderari buruz telefonozko aholkua emango duelarik, **ez da idatzizko irizpenik bidaliko.**

Etxeko Animalien Estaldura

14. ARTIKULUA. BERMEAK ETA PRESTAZIOAK

Estaldura hau kontratatzean, Aseguruaren Baldintza Partikularretan azaldutako etxe-animaliak estalita egongo dira, honako irizpide eta definizio hauen arabera.

14.1. KALTEEN BERMEA

a) Definizioak

Estaldura honen eraginetarako horrela ulertuko dira hurrengoak:

Ezinbesteko sakrifizioa: Albaitariak egingo du, animaliaren atzeraezineko sufrimenduarekin amaitzeko.

Lapurreta: Baldintza Partikularretan azaldutako animalia hirugarrenek legez kontra bereganatzen dutenean, jabearen gogoz kontra, eta horretarako indarkeria erabiltzen denean.

Galera: Asegurudunaren edo animalia zaintzen ari den pertsonaren oharkabetasunagatik animaliaren galera.

Aseguratutako zenbatekoa: Poliza honen Baldintza Partikularretan zehaztutako zenbatekoa; ezbeharraren kasuan kalte-ordainketaren muga izango da, eta honako kontzeptuak zehazten dira:

- **Animaliaren balioa:** Istripuagatik hil bada edo sakrifizioa ezinbestekoa bada, edo lapurreta gertatu bada, ezbeharra jasan duen animaliaren antzeko ezaugarriak

dituen kume baten balioaren balioakidea izango da, **gehienez 300 eurora arte.**

300 eurotik gorako balorazioen kasuan, animalia-aren dokumentu zehatzen bidez frogatu beharko da; horretarako, hauek hartuko dira kontuan: Pedigria, arrazaren jatorriaren liburuan inskripzioa, ziurtagiria eta heztearen faktura.

- *Albaitaritzaren laguntzako gastuak:* Albaitariak egindako jarduketari dagozkien gastuak dira, asegurutunaren animaliak izandako istripu baten ondorioz eta gehienez 1.000 eurora arte.

Albaitaritzaren laguntzako gastutzat hauek joko dira:

- Hasierako miaketak, erradiografiak, analisiak eta elektrokardiogramak.
- Beharrezkoak diren ebakuntza kirurgikoak edo bestelakoak, anestesia, material kirurgikoa, sendagaiak, osteosintesia, protesia eta/edo fibroendoskopia.
- Ebakuntza-ondoko zaintzak, sendakuntza eta klinikan egonaldia, beharrezkoak badira.
- Ezinbesteko sakrifizioa eta hilotza desagerraraztea.

Urdail-zabalkuntza/-bihurdura: Digestio-sindromea, non urdaila zabaltzen den eta ardatz nagusiaren inguruan bihur daitekeen; horrek aldaketa patologiko sorta eragin dezake, eta ondorioz okada elkorrak, distentsio abdominala, gehiegizko listu-jariatzea, ahultasuna eta depresioa.

Gorputz arrotza: Elikagaia ez den objektu edo substantzia da, irentsi eta gero prozesu patologikoa eragiten duena eta digestioaren egitura eta/edo funtzionaltasun aldaketa eragiten duena; ondorioz albaitariaren tratamendua eta/edo kirurgia ezinbestekoa da. **Seguruari dagokionean ez dira gorputz arrotzatzat hartuko material toxikoak nahiz pozoiak, ezta egoera txarreko elikagaiak edo edariak. Halaber, gorputz arrotzaren irenstetzat joko da albaitariak zalantzarik gabe halaxe identifikatu duenean erradiologia, ekografia edo laparotomia esploratorio bezalako proba diagnostikoez baliatuta, edo egoera hori argi eta garbi dagoenean gorputz arrotza bota edo atera izanagatik.**

Bero-kolpea: Tenperatura altuetan denbora luzez egoteagatik istripua, sukar larria eta lesio fisiologikoak eragin ditzakeelarik, animalia-aren bizitza arriskuan jarritz.

Erditze distozikoa: Txakurrek edo katuek kumeak eta/edo beren mintzak ateratzeko izan ditzaketan zailtasuna, ernaldia amaitzean eta erditzeko unea heltzen denean.

Zesarea: Erditze distozikoa ebazteko ebakuntza kirurgikoa da.

b) Asegura daitezkeen animaliak

Estaldura honen babesa jaso dezakete lagun egiteko edo zaintzeko txakurrek eta/edo katuek, **baina ez ehizarako edo edozein kirol mota egiteko erabiltzen direnek.**

Animalia bizi den udaleko ordenantzetan edo Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoaren arabera, animaliak erroldatuta egon behar du eta txapa-zenbakiaz, tatuajez edo mikrotxipaz identifikatuta egon behar du.

Poliza honetako bermeak indarrean egon daitezen, animaliek txertoen egutegi ofiziala jarraitu beharko dute, eta bereziki hauekiko:

- **Txakurrak:** **Leptospirosia, mukieria, hepatitis (hirukoitza) eta parbobirosia, eta osasun-agintaritzak une bakoitzean agindutakoaren arabera derrigorrez jarri beharko liratekeenak.**
- **Gastuak:** **Errinotrakeitisa, kalizibirusa, katuen panleukopenia (tribalentea) eta katuen leuzemia, eta osasun-agintaritzak une bakoitzean agindutakoaren arabera derrigorrez jarri beharko liratekeenak.**

Ezingo dute aseguruaren babesik jaso hiru hilabete bete ez dituzten edo bederatzirte bete dituzten animaliek; dena dela, azken kasu horretan, kontratuaren legezko luzapena onartuko da.

c) Estalitako arriskuak

Berme honen prestazioak honako hauek dira:

- **Istripuak.** Berme honengatik, kontzeptu bakoitzerako bermatutako zenbatekoaren mugarekin, Konpainiak albaitaritzatzaile laguntzako gastuak eta animalia balioren ordainduko dituen heriotzagatik edo ezinbesteko sakrifizioagatik, horiek animalia aseguratuak jasandako istripuan jatorria dutenean, honako egoeren arabera:
 - Harrapatzea.
 - Beste animaliekin borrokak.
 - Istripuek eragindako hausturak, traumatismoak edo barne-lesioak, animaliak ohiko korrika edo jauzi egiten zutenean.
 - Zirkulazio-istripuak motordun ibilgailuetan joatean.
 - Animaliarengan traumatismoak edo barne-lesioak sortarazi dituzten altuerako erorketak.
 - Gorputz arrotzen irenstea. **Gorputz arrotzaren irensetzat joko da albaitariak zalantzarik gabe halaxe identifikatu duenean erradiologia, ekografia, erresonantzia edo laparotomia esploratorio bezalako proba diagnostikoez baliatuta, edo egoera hori argi eta garbi dagoenean gorputz arrotza bota edo atera**

izanagatik. Beraz, gorputz arrotza tratamendu medikoaren bidez, endoskopiaren bidez edo kirurgiaren bidez ateratzeko albaitaritzako gastuak soil-soilik estalita egongo dira, baldin eta proba diagnostiko horien bitartez gorputz arrotza aurretik identifikatu bada. Atal honek aseguru urte bakoitzeko ezbehar bateko muga izango du.

- Indarkeriazko, bat-bateko, kanpoko eta Asegurudunaren nahiaz besteko arrazoi batetik, baita ekintza bandalikoetatik eratorritako gorputzeko edozein lesio.
- Erditze distozikoa edo zesarea, **beren ezaugarri anatomikoengatik erditzeko albaitariaren laguntza oro har behar duten arrazak salbu eta bereziki arraza brakizefaloak, adibidez, bulldog frantsesa, bulldog ingelesa eta boston terrier arrazak.**
- Bero-kolpea.
- Urdail-zabalkuntza/-bihurdura konplexua.

Estaldura honetarako albaitaritza-laguntzako gastuen barne hartuko dira aseguratutako animalia ezinbestean sakrifikatzeko gastuak eta ondoren hilotza desagerrarazteko gastuak, albaitariaren ustez jasandako lesioengatik hura gomendagarria izango balitz, eta egoera hori aurretik azaldutako gertakizunengatik eraginda balitz.

■ **Lapurreta edo galera.** Berme honen arabera Konpainiak honakoa onartzen du:

Lapurreta: Asegurudunari animalia baliogatik ordaintzea, **gehienez 1.000 euro.** **Galera:** Tokiko prentsan nahiz irratian iragarkiak jartzea, **gehienez 150 euroko kostuarekin.**

d) Baztertutako arriskuak

Egoera hauek ez dira aseguratuta egongo:

- **Gaixotasun infektzioso/kutsakorrek, epizootikoak, parasitokoak edo beste edozein gaixotasun, intsektuen, akaroen, marraskarien edo bestelako ugaztunen zizten edo hozken ondorioz kutsatutakoak barne.**
- **Pozoidurak eta intoxikazioak.**
- **Babestutako Arriskuen atalean azaldu ez diren kalteak.**
- **Animaliaren adina dela-eta edo egoera horretatik eratorritako lesioak edo gaixotasunak.**
- **Ebakuntza kirurgiko estetikoak, adibidez, zenbait arrazei belarriak edo buztana modelatzeko edo atzazalak erazteko.**

- **Ehizatik eratorritako edozein gertaera.**
- **Erditze distozikoa edo zesarea, beren ezaugarri anatomikoengatik erditzeko albaitariaren laguntza orokorrean behar duten arrazak salbu eta bereziki arraza brakizefaloak, adibidez bulldog frantsesa, bulldog ingelesa eta boston terrier arrazak.**

Aurkakorik adostu ezean hitzartzen da berme hau ez dela indarrean sartuko kontratuaren efektu-datatik 15 egun oso igaro arte.

e) Ezbeharren jakinarazpena.

Oro har kasu hauetarako ezarritakoaz gain, istripuen bermeari eragiten dioten ezbeharretan honako arau hauek aplikatuko dira:

Asegurudunak ezbeharren tokitik hurbilen dagoen albaitariarengana joko du, eta albaitaritzaren txosten bat jasotzeko beharko du, non honako informazioa agertu beharko den behintzat:

- Klinikaren sartzeko data eta ordua.
- Arreta jasotzeko animaliaaren deskribapena.
- Izandako istripu mota.
- Animaliaaren egoera klinikara heldutakoan.
- Hornitutako albaitaritzaren zerbitzuak.
- Ondorioak eta, hala badagokio, jarraitu beharreko tratamenduaren buruzko oharra.
- Animalia tratatu duen albaitariaren sinadura eta elkargokide zenbakia.
- Animalia tratatzeko klinikari buruzko datuak.

Dokumentu hori eta laguntzagarri ordaindutako faktura Konpainiari aurkeztuko zaio, baldin badagokio ordaindu dezan.

Galdu den kasuan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

f) Kalteak baloratzea eta kalte-ordaina kalkulatzeko

Kalteak baloratzeko animaliaaren balioa hartuko da kontuan, Definizioak eta Estalitako Arriskuak atalean ezarritakoaren arabera.

Istripuaren kasuan kalte-ordainketa honako arau hauen arabera ezarriko da:

- Animaliaaren heriotzaren edo ezinbesteko sakrifizioaren kasuan, Konpainiak animaliaaren balioa eta sakrifikatzearen eta hilotza desagerrarazteko gastuak ordainduko dituelarik, gastu horiek albaitaritzaren laguntzako gastutzat hartuko ditu, kontzeptu bakoitzerako aseguratutako zenbatekoaren mugarekin.

- Animaliaaren heriotza nahiz sakrifizioa eragiten ez duen istripua. Kasu honetan, tratatzen duen albaitariak Konpainiari idatzizko txostena igorriko dio; bertan azalduko dira animaliaaren diagnostikoa, tratamendua eta haren ostean animaliak izan ditzakeen arrastoak.
 - Albaitariaren ustez animaliak normaltasunez funtzio guztiak berreskuratu behar baditu, orduan Konpainiak albaitaritzaren laguntzaren gastuak ordainduko ditu, kontzeptu honetarako aseguratutako zenbatekoaren mugarekin.
 - Albaitariaren ustez animaliak arrasto iraunkor garrantzitsuak izan behar baditu, Asegurudunak erabaki ahalko du berarekin geratu nahi duen ala ez.
 - Animaliarekin geratzea erabakitzen badu, Konpainiak albaitaritzaren laguntzaren gastuak ordainduko ditu, kontzeptu honetarako aseguratutako zenbatekoaren mugarekin. Bestela, Konpainiak dagokion balioa ordainduko du, kontzeptu honetarako aseguratutako zenbatekoaren mugarekin; halaber, Konpainiak albaitaritzaren laguntzaren gastuak ordainduko ditu ere, sakrifizioa eta hilotza desagerraraztea barne.

14.2. SAKRIFIZIORAKO ETA HILOTZA DESAGERRARAZTEKO BERMEA ZAHARTZAROAGATIK EDO GAIXOTASUNAGATIK

a) Definizioak

Berme honen eraginetarako horrela ulertuko dira honako hauek:

Ezinbesteko sakrifizioa: Albaitariak egingo du, animaliaaren atzerazineko sufrimendurekin amaitzeko.

Hilotza desagerraraztea: Albaitaritzaren klinikak hornitutako zerbitzua da, ezbeharra jasan duen animaliaaren hilotza desagerrarazteko.

b) Estalitako arriskuak

Aseguratutako animalia ezinbestean sakrifikatzeak eta hilotza desagerrarazteak duten kostua ordainduko du Konpainiak, gehienez 150 eurora arte, baldin eta albaitariaren ustez hura beharrezkoa bada, animaliaaren narriatze fisiko eta atzerazinezkoa dela-eta, zahartzaroagatik edo gaixotasunagatik.

Berme hau gauzatzeko, honako arau hauek ezarriko dira:

- **Animalia aseguratua bermean sartzeko data eta urte bat igaro arte, estaldura hau ez da indarrean sartuko.**
- **Albaitariak tratamenduaren beharra agintzea, aurretik azaldutako zergatien arabera.**

c) Baztertutako arriskuak

Berme honetan ez dira honako gastu hauek estaliko:

- **Animalia sakrifikatzeko eta hilotza desagerrarazteko ez diren albaitaritza-prestazioetatik eratorritakoak.**
- **Ezinbesteko sakrifiziotik eta hilotza desagerrarazi izanagatik eratorritakoak, horretarako kausak «Estalitako Arriskuak» atalekoak ez direnean.**

d) Ezbeharren jakinarazpena.

Ezbeharra gertatu denean, Asegurudunak honako datu eta dokumentu hauek aurkeztuko dizkio Konpainiari:

- Aseguratutako animalia tratatu zuen klinikak luzatutako ziurtagiria, non hauxe agertzen den:
 - Klinikari sartzeko data eta ordua.
 - Arreta jaso duen animaliaaren deskribapena.
 - Animaliaaren egoera klinikara heldutakoan.
 - Animalia sakrifikatzeko arrazoiak.
 - Animalia tratatu duen albaitariaren sinadura eta elkargokide zenbakia.
 - Klinikaren datuak.
- Sakrifikatzeko eta hilotza desagerrarazteko zerbitzuengatik ordaindutako faktura.

14.3. TXAKUR EDO KATUEN EGOITZAKO EGONALDIRAKO BERMEA

a) Definizioak

Berme honen eraginetarako horrela ulertuko dira honako hauek:

Aseguratutako zenbatekoa: Aseguru-aldi bakoitzeko Konpainiak ordainduko duen zenbatekoa; aldi hori da estaldura honen iraupen materialaren denbora, Baldintza Partikularretan edo hurrengo epealdietarako primen ordainagirian agertzen dena.

b) Estalitako arriskuak

Konpainiak, **300 euroko mugarekin aseguru-aldi bakoitzeko**, egoitza batean animaliaaren egonaldia bermatzen du, **baldin eta egoera hau jabearen istripuagatik edo gaixotasunagatik ospitaleratzearen ondorio bada, eta haren senide batek animalia zaindu ezin badu.**

Berme honi dagokionean, animalia egoitzan egon daiteke jabea ospitalean dagoen egun kopuruan zehar, eta gehienez bi egunez luzatu ahalko da, ospitalean alta eta baja egunak direla-eta.

c) Baztertutako arriskuak

Prestazio hau ez da estaliko ospitalean dagoen pertsona jabea ez bada, nahiz eta horrek animalia zaintzen duen.

Ez da estaliko jabea hiltzen bada eta ospitaleratu ez badute, edo ospitaleratzea egun bakar batekoa izan bada.

d) Ezbeharren jakinarazpena.

Ezbeharra gertatu denean, Asegurudunak honako dokumentuak aurkeztuko dizkio Konpainiari:

- Aseguratutako animalia jabea ospitaleratu den ospitaleak luzatutako ziurtagiria; bertan honako datuak agertu beharko dira:
 - Ospitalearen izen soziala.
 - Egonaldia (sartzeko data eta alta data).
 - Ospitaleratzeko arrazoiak.
- Aurreko arrazoa dela-eta animalia uzteko egoitzaren faktura, non egonaldiaren egun kopurua zehazki adierazten den.

Bidaiako Laguntza Estaldura

15. ARTIKULUA. BERMEAK ETA PRESTAZIOAK

Bere helburua da dagozkion zerbitzuak hornitzea eta, hala badagokio, dagozkion ordainak ordaintzea.

Estalita egongo dira normalean Espainiako lurraldean egoitza duten pertsonak; **hala ez bada, estaldura soil-soilik Espainiako lurraldearen barne egindako joan-etorrietara mugatuta egongo da.**

Bidaiatzat hartuko da **gehienez ere 60 eguneko iraupena** duen edozein bidaiak. Muga hori ez da aplikatuko bidaiak Espainiako lurraldean ikasketa arautuak eta bideratuak egiteko helburua duenean, eta betiere prestazioak eragiten dituen gertaera **asegurudunaren ohiko bizilekutik 15 km-tik gorako tokian jazotzen denean; asegurduna penintsulatik kanpo bizi bada, 10 km-ko muga aplikatuko da. Estaldura honen ondorioetarako ez dira bidaiatzat hartuko osasun laguntza jasotzeko egindako joan-etorriak.**

Aurreko paragrafoan azaldutako kasuan izan ezik, **Asegurudunaren bidaiarako aurreikusitako iraupena 60 egunetik gorakoa bada, estaldura hau ez da aplikagarri izango. Beraz, 60 egun baino gehiagoko aurreikusitako iraupena duten bidaien kasuan, lehenengo 60 egun horietan gertatutako ezbeharrek ez ditu babestuko.**

Konpainiak bidaiaren iraupena agiri bidez frogatzeko eska dezake, estaldura baieztatzeko.

Besterik hitzartu ezean, **ez da aseguru honetan sartuko Asegurudunak beste edozein aseguru edo estaldura baten bidez izan ditzakeen prestazioak, nahiz eta estaldura honek horiek babesten dituen.** Hala eta guztiz ere, berme honek beste hori osatuko du, ezean nahiz gehiegizkoan, aseguraturako mugen barne.

■ **Ez dira honakoetatik eratorritako laguntzak estaliko:**

- **Asegurudunaren nahita egindako lesioak edo intoxikazioak.**
- **Alkohola, drogak, sorgarriak edo sendagaiak nahita hartu izanagatik eragindako egoera patologikoak, mediku batek errezeta eman ez duenean.**
- **Lehiaketa ofizialetan kirolak praktikatzea.**

15.1. ASEGURATUTAKO PRESTAZIOAK

■ **SENDATZEKO GASTUAK**

Prestazioaren gertaera eragilea **atzerrian** jazo bada, orduan botikako gastuak, medikuen ordainsariak, ambulantiak, ospitaleratzea eta ebakuntza kirurgikoak estaliko ditu Konpainiak, **gehienez 12.000 euroko mugarekin Asegurudun bakoitzeko.** Premiazko kasuetan izan ezik, **Asegurudunak Konpainiarekin harremanetan jarri beharko du, bertako medikuek beharrezkoak diren profesionalak zeintzuk diren erabaki dezaten eta, hala badagokio, prestazioak zuzenean jasotzeko ordaindu beharreko gastuak baimendu ditzaten.**

Berme hau ez da aplikagarri Espainian izandako osasun-gastuekiko, ezta bidaiaren hasieran aurreikus litezkeen gertaeretatik eratorritako gastuekiko, adibidez, garaiko erditzeak eta aspaldiko gaixoen tratamenduak edo zaintzak (fisikoak nahiz mentalak). Hala eta guztiz ere, ustekabeko erditze goiztiarrak eta haurdunaldiaren etendura espontaneoak estalita egongo dira, baita aspaldiko gaixotasunen agerraldi akutuak ere, bat-batean eta ustekabean gertatzen direnean.

■ **BIDAIAREN LUZAPENA**

Medikuak aginduta asegurudunak **atzerrian** egonaldia luzatu behar badu, istripu baten ondorioz edo gaixotasun bat izateagatik jasandako lesioen ondorioz, egonaldi horren gastuak ordainduko ditu Konpainiak, **150 euro eguneko mugarekin, eta 1.500 eurora arte gehienez.**

■ **LEKUALDATZEA EDO HERRIRATZEA**

Asegurudunaren osasun-egoerak, istripua edo gaixotasun larria dela-eta, etxera bere kasa itzultzea eragozten badio, Konpainiak bere garraioa antolatuko du, bertaraino

edo osasun-etxe egokiraino. **Konpainiako osasun-zerbitzuek, arreta ematen dioten sendagileekin elkarlanean, zerbitzua emateko modua antolatu eta garraio-bide egokiak ezartzeko ardura bere gain hartuko dute. Aireko bide berezien erabilera, egoki denean, Mediterraneo ertzetako herrialdeetara eta Europako gainerako herrialdeetara mugatzen da. Asegurudunak garraioa bere kasa antolatzen badu, ez da izan ditzakeen gasturik itzuliko.**

Aseguruduna hil egiten bada, Konpainiak gertakaria jazo den tokitik Espainian ehorzketa egingo den udalerriraino eramateko edo herriratzeko beharrezkoak diren tramiteak egingo ditu.

■ LOKALIZATZEA ETA SALBAMENDUA

Hurbileko arrisku egoeran Aseguruduna desagertuko balitz, Konpainiak hura lokalizatzeko eta salbatzeko gastuak ordainduko ditu, **1.500 euroa arte gehienez.**

■ LAGUNKIDEAREN GASTUAK

Asegurudunaren prestazioak osatzeko, Konpainiak honako hauek bermatzen ditu ere:

- ASEGURUDUNA OSPITALERATZEN badute.

Ospitaleratzearen iraupena bost egunetik gorakoa bada, Konpainiak lagunkide baten gastuak ordainduko ditu, baldin badaude, honako irizpideen arabera:

- * Garraiobide publikoak erabiliz ospitalera joateko eta etxera itzultzeko joan-etorria.
- * Egonaldia eta ostatua:
 - Espainian: **egun bakoitzeko 120 euro gehienez, 1.200 euroko mugarekin.**
 - Atzerrian: **egun bakoitzeko 150 euro gehienez, 1.500 euroko mugarekin.**

- Asegurudunaren LEKUALDATZEA EDO HERRIRATZEA gertatzen denean, bere osasun-egoera dela-eta.

Lagunkide baten bidaiak-gastu guztiak ordainduko ditu Konpainiak, baldin eta laguntza beharrezkoa bada, Asegurudunak itzultzeko erabiltzen duen garraiobide berdinean. Aseguruduna edo lagunkidea hamabost urtetik beherakoa balitz eta bakarrik bidaiatuko balu, itzuleraren kasuan beharrezkoa bada Konpainiak laguntzeko langile bat hornituko du.

- Aseguruduna hiltzen bada, SEGIZIO-GASTUAK.

Gastu hauek dira bidaia gastuak, hots, hiltze-tokira heltzeko eta ehorzketa-tokira itzultzeko bidaia-gastuak, hildako Asegurudunaren gorpuzkiak ekartzeko haren onuradunek izendatutako pertsonarenak, eta zergati honengatik egonaldia, lagunkidearen gastuentzako ezarritako mugak gainditu gabe Asegurudunaren ospitaleratzearen kasuan.

Zergatia Asegurudunaren heriotza baldin bada, bere lekualdaketarako aurreikusitako arauak eta mugak aplikatuko dira, **eta muga horiek ez dira bikoiztuko lagunkidearen bidaia dela-eta.**

Halaber, honako prestazio berezi hauek aseguratuko dira:

■ AURRETIAZKO ITZULERA

Asegurudunak bidaia eten behar badu, honako arrazoiren batengatik:

- Bere etxebizitzan, industrian edo negozioan ezbehar larri batengatik.
- Senide baten gaixotasun larriagatik edo heriotzagatik (ahaidetasuneko edo ezkontzazko bigarren mailara arte).

Eta itzultzeko garraiobide berberak erabili ez baditu, Konpainiak bueltatzeko bidaiaren gastuak ohiko garraiobide publikoetan ordainduko dizkio.

■ BAGAJEA

- Asegurudunaren bagajea eta efektu pertsonalak lapurtzen edo galtzen badira, horiek aurkitzeko kudeaketetan lagunduko du Konpainiak, eta behin aurkitu dituztenean, Asegurudunak adierazitako helbidera bidaliko ditu, edo horiek biltzeko gastatu duen zenbatekoa ordainduko dio.
- Galera aireko nabigazioko garraiobide publikoko hegaldi baten ondorioz jazo bada, eta norako aireportura heldu eta 24 orduko epean agertuko ez balitz, Konpainiak **300 euro asegurudun bakoitzeko ordainduko du gehienez, ezbehar bakoitzeko 1.200 euroko mugarekin**, asegurudunak jantziak eta garbitzeko izakiak eros ditzan.

Prestazio honi dagokionean garraiobide publikotzat ez dira hartuko hegazkin-taxiak eta helikopteroak.

■ SENDAGAIEN BIDALKETA

Medikuak agindutakoan Asegurudunak sendagaiak behar baditu eta dagoen tokian eskuragarri ez baleude, eta produktu baliokiderik ez balego, Konpainiak lehenbailehen bidaliko dizkio.

■ FUNTSEN BIDALKETA

Atzerrian gertatutako istripu, gaixotasun, ondasunen lapurreta edo galeraren ondorioz Aseguruduna baliabide ekonomikorik gabe gertatuko balitz eta bertan eskuratzetik ez balu, **interesik gabeko maileguaren kontzeptupean** premiazko beharrei aurre egiteko Konpainiak behar duen zenbatekoa bidaliko dio, **gehienez 900 euroko mugarekin, edo zenbateko hori bertako dibisan.**

Asegurudunak kontzeptu honetan jasotako zenbatekoa itzuli beharko du, bere ohiko etxebizitzara heldu bezain pronto eta gehienez hirurogei eguneko epean, dirua jaso zuen datatik zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan mailegua itzuli ez bada, **Konpainiak zenbatekoa erreklamatu dezake, eta erreklamazioa aurkezteko uanean indarrean dagoen legezko interesean handitu ahalko du zenbateko hori.**

■ PREMIAZKO MEZUAK IGORTZEA

Justifikatutako premiazko Asegurudunaren mezuen igorpena kudeatuko du Konpainiak, estaldura honen prestazioen xede den gertaera orori buruzkoak.

Arau Orokorrak

16. ARTIKULUA. ASEGURATUTAKO ZENBATEKOEN EGUNERATZEA

Aseguratutako zenbatekoen balioa handitzeak kontratuaren primak eta aseguratutako zenbatekoak modu proportzionalen handitzea ekarriko du. **Dena dela, frankiziek eta Baldintza Orokor hauetan berme bakoitzarentzat ezarritako mugek ez dute aldaketarik izango.**

Adostutako indizea beti aurreko urte epeko aseguratutako zenbatekoei aplikatuko zaie, betiere irizpide hauei jarraituta:

■ Ehuneko finkoa.

Errebalorizazioa horretarako adostutako portzentajea gehituta handituko da.

■ Kontsumo Prezioen Indizea.

Primak eguneratzeko, primen azken aldaketaren datari dagokion azken indizea aurreko urtean ezarritakoarekin alderatuta lortzen den aldaketa-portzentajea aplikatuz kalkulatu da, eta horrek ez du aseguratutako zenbatekoa murriztuko.

17. ARTIKULUA. PRIMAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA ETA EZ ORDAINTZEAK DITUEN ONDORIOAK

Aseguruaren Hartzailera prima ordaintzera behartuta dago, kontratuaren Baldintza Orokor eta Partikularren arabera. Ordainketa egiteko lekuari buruzko hitzarmenik ezean, Konpainiak Aseguru Hartzailera jakinarazi dion azken helbidean aurkeztuko ditu ordainagiriak.

Prima zatiezina da eta Aseguratzaileri dagokio, osorik, hitzartutako kontratuaren indarraldi osoan, baita ordainketa zatikatzea adostu bada ere. Kontratua, edo bere luzapenen bat, hitzartutako mugaeguna baino lehen iraungitzen bada, Aseguratzailera ez dio Hartzaileri osorik ordaindutako sariari dagokion bat ere kopururik ordaintzeko betebeharririk izango, legez aurreikusitako kasuetan izan ezik.

ARAU OROKORRA

• Hasierako prima

Hasierako prima Baldintza Partikularrek xedatzen dutena izango da, eta haiek zehazten duten estalduraren hasierako epeari dagokio.

Aseguruaren Hartzaileren erruz prima ordaindu ez bada, kontratua sinatu ondoren edo, dagokionean, hark iraungi duenean, Konpainiak kontratua bukatutzat emateko edo primaren ordainketa bide betearazlearen bitartez eskatzeko eskubidea izango du.

Aurkako hitzarmen zehatzik ezean, prima ezbeharra gertatu aurretik ordaindu ez bada, Konpainia bere betebeharririk aske geratuko da.

• Hurrengo primak

Kontratuaren luzapen tazituaren kasuan, hurrengo epealdien prima zehazteko Konpainiak une bakoitzean ezarritako primen tarifa aplikatuko da. Tarifa horiek finkatzeko irizpide tekniko aktuarialak erabiliko dira eta, horrez gain, bermeetan izandako aldaketak edo arriskuak areagotu edo murrizteko balizko kausak hartuko dira kontuan, Baldintza Orokor hauetan adierazitakoaren arabera. Halaber, kontuan hartuko da polizaren ezbeharren historia, aurreko aseguruaren epealdietan erregistratutakoak.

Estaldura aldi berrirako zehaztutako prima aurreko aldikoa baino handiagoa bada, Konpainiak estalduraren aldi berrirako primaren zenbatekoa jakinaraziko dio Aseguruaren Hartzaileri, dagokion ordainagiria kobratu izanaren abisu bat bidalita Baldintza Orokor hauen 19. artikuluan komunikaziorako zehaztutakoaren arabera.

Ondorengo primaren bat ez bada ordaintzen, estaldura hilabetez etenda geldituko da, epemugatik kontatzen hasita. Hilabete horretan ezbeharren bat gertatuz gero, Konpainiak aldi horretarako zor duen primaren zenbatekoa kendu ahal izango du kalte ordainetan eman beharreko zenbatekotik.

Konpainiak ordaintzeke dagoen primaren ordainketa egitea eskatzen ez badu muga-eguna igaro eta hurrengo sei hilabeteen barruan, orduan kontratua automatikoki etengo da.

GORDAILU-ERAKUNDE BIDEZKO ORDAINKETA

Ordaintzeko modu gisa primaren bankuko helbideratzea adosten bada, Aseguruaren Hartzailleak Konpainiari emango dio Banku, Kutxa edo Kreditu-kooperatibari zuzendutako gutuna, zeinak dagokion agindua emango duen eta, izatera orokorreko arauez gain, hurrengoak ere aplikatuko dituen:

• Lehenengo prima

Prima kontratua indarrean sartzen den egunetik ordaindutzat joko da, dagokion gordailu erakundeak ordainagiria ordaindu gabe itzultzen duen kasuetan izan ezik, kobrantza kontratua indarrean sartu ondorengo hilabeteke epean kobratzen saiatu ondoren. Kasu horretan, Konpainiak idatziz jakinaraziko dio Aseguru Hartzailari ordaindu ez duela eta ordainagiria Konpainiaren helbidean izango duela 15 egunez, hura ordain dezan. Epe hori igarotakoan primak ordaindu gabe jarraitzen badu, kontratua bertan behera utziko da.

• Hurrengo primak

Gordailu-erakundeak erreziboa ordaindu gabe itzuliko balu, Konpainiak ordaindu eza jakinaraziko dio Aseguru Hartzailari eta ordainagiria bere helbidean duela adieraziko dio, ordain dezan. Ordainketa ez bada egiten epemuga ondorengo hilabetean edo, hilabete hori igarotakoan, hartzailari egindako jakinarazpen horren ondorengo 15 eguneko epean, aseguru eten egingo da.

ASEGURUA ETEN DEN BITARTEAN ORDAINTZEA

Kontratua aurreko ataletan azaldutakoaren arabera bukatutzat eman edo eten bada, Aseguruaren Hartzailleak prima ordaindu duenetik 24 orduko epean izango da berriz ere eragile prima.

ORDAINKETA ZATITZEA

Urteroko primaren ordainketa zatikatu ahalko da kontratuaren Baldintza Partikularretan ezartzen diren epeekin eta xedapenekin bat.

Aseguruaren Hartzaileak ez badu primaren ordainketaren zatiei dagozkien ordainagiri bat ere ez ordaintzen, Konpainiak Hartzaileari eskatu ahal izango dio gelditzen diren ordainagiri guztiak ordaintzea, eta horretarako hogeita hamar eguneko epea izango du Hartzaileak Konpainiaren jakinarazpena jaso duenetik; halere ordainketa gertatzen ez bada, aseguruia etengo da ordaindu ez den primaren lehenengo zatiak iraungi duen egunetik hasita hile batez.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, eta estaldura eten ez den bitartean, ezbeharren bat gertatuz gero, Konpainiak kalte-ordainari kendu ahal izango dio iraungita dauden eta Aseguruaren Hartzaileak ordaindu ez dituen zatiak. Aseguratutako ondasun guztiak galduz gero, indarreko aseguruaren urteari dagozkion epemuga gairitu gabeko prima zatien zenbatekoa ere kenduko zaio kalte ordainari, legeak eta kontratu honek horretarako zehaztutakoa alde batera utzi gabe.

18. ARTIKULUA. EZBEHARREN AURREAN NOLA JOKATU

- Ahalik eta bizkorren eman behar zaio ezbeharren berri Konpainiari, gehienez Aseguratuak edo Aseguruaren Hartzaileak ezagutu eta hurrengo zazpi egunetan, epe luzeagoa adostu ezean. Betebehar hori betetzen ez bada, Konpainiak ezbeharra jakinarazi ez izanak sortutako kalte-galerak erreklamatu ahal izango ditu, hartzaileak horren ezagutarik izan ez zuela frogatzen den kasuetan salbu.

Telefonoz jakinarazi ahal izango da, Konpainiaren **Zerbitzu-gunearen** bitartez, baina **idatziz berretsiko da konpainiak beharrezkotzat ematen badu** ezbeharra behar bezala izapidetzeko.

- Lapurreta, ebasketa, bidegabeko jabetzea eta txartelen iruzurrezko erabilera gertatzen direnean, salaketa aurkeztu beharko da. Salaketa horretan, ondasunak aseguratzen dituzten konpainia eta polizaren zenbakia aipatu beharko dira.
- Txartelak edo ordaintzeko antzeko gailu fisikoak (zordunketakoak edo kreditukoak) eta erosketa-txartelak produktu, zerbitzu edo hornitzaile jakin batzuentzat bakarrik desagertuz gero, egoera hori ahalik eta azkarren jakinarazi behar zaio erakunde jaulkitzaileari, betiere, ezbeharra konpainiari jakinarazi baino lehen.
- Aseguruduna eta Aseguruaren Hartzailea, kasuaren arabera, honetara daude behartuta:
 - Ezbeharren ezaugarrien arabera beharrezkoa den informazioa Konpainiari ematea.

- Jasotako edota ezbeharrarekin zerikusia duten jakinarazpen judizial, estrajudizial edo administratiboak lehenbailehen Konpainiari helaraztea.
 - **Inoiz ez dute negoziatuko, onetsiko edo baztertuko ezbeharraren inguruko hirugarrenen erreklamaziorik, Konpainiak espresuki hori egiteko baimena eman ezean.**
 - Konpainiari jakinarazi, Lapurreta Estalduran eragina ez duenean, lapurtutako gaiak berreskuratzen badira. **Ondasunak lapurreta ondorengo 60 egunetan agertuz gero, Asegurudunak horiek jaso eta, hala badagokio, jasotako konpentsazioa itzuli beharko du, kontrakorik adostu ezean.**
- Kalte edo lapurreta ezbeharren kasuan, Konpainiako perituak edo ordezkariak ezbeharraren lekura joan beharko du ahalik eta azkarren, balioztatze lanei hasiera emateko eta dagozkion ezbeharraren arrazoien eta ondorioen egiaztapenak egiteko.

Alderdiak, edo kaltetua eta Konpainia, edozein unetan kalte ordainen zenbatekoari eta ordainketa moduari dagokionez ados jarritz gero, Konpainiak adostutako zenbatekoa ordaindu edo aseguratutako edo kaltetutako objektua ordeztzeko beharrezko lanak egin beharko ditu, objektuak hala ahalbidetuz gero. Ezbeharra aitortu eta ondorengo berrogei egunetan akordiorik lortu ezean, ondorengo arauak aplikatuko dira:

- Alderdiek peritu bana esleituko dituzte, eta idatziz jasoko da haiek onesten direla. Alderdietako batek esleipen hori egin izango ez balu, derrigorrez egin beharko du berea esleitu duen egunetik hasita zortzi eguneko epean; epe horretan egingo ez balu, beste alderdiaren perituak egindako ebazpena onetsizat joko da, eta hari geratuko da lotuta.
- Perituak adostasun batera iristen badira, bien artean egindako akta batean jasota geratuko da. Bertan, ezbeharraren arrazoiak, kalteen balorazioa, kalte-ordainaren zehaztapenean eragina duten beste baldintzak eta horren zenbateko likidoaren proposamena adieraziko dira.
- Bi alderdiak bat etortzen ez badira, bien artean hirugarren peritu bat izendatuko dute adostasunez. Izendapen hori egin ezean, ondasunak aurkitu diren lekuko lehen auzialdiko epaileak izendatuko du, borondatezko jurisdikzio ekitaldian eta Prozedura Zibilaren Legean perituak zakuratzeko ezarritako izapideei jarraiki. Kasu horretan, perituaren txostena alderdiek adierazten duten epean igorriko da edo, halakorik ezean, hirugarren perituak egindako izendapena onartu eta ondorengo hogeita hamar egunetan.

- Perituen ebazpena, aho batez edo gehiengoak adostuta, alderdiei jakinaraziko zaie berehala, eta zalantzarik gabe. Alderdientzako loteslea izango da, alderdietako bat judizialki aurkatzen bada izan ezik, hogeita hamar eguneko epean, Konpainiaren kasuan, eta ehun eta laurogei eguneko epean Asegurudunaren kasuan, biak jakinarazpena jaso den unetik hasita. Epe horietan dagokion egintza aurkezten ez bada, perituaren txostena aldaezina bihurtuko da.
- Perituen irizpena aurkatuko balitz, Konpainiak ezagutzen dituen ezaugarrien arabera gutxienerako zenbatekoa ordaindu beharko du; aurkatuko ez balitz, perituek adierazitako kalte-ordainaren zenbatekoa ordaindu beharko du bost eguneko epean.
- Konpainia indemnizazio aldaezinaren ordainketa atzeratuko balitz eta Asegurudunak bide judiziala erabiliz erreklamatu beharko balu, indemnizazioari Legez ezarritako berandutzako interesa gaineratuko zaio. Interes hori Konpainiak ordaintzeko indemnizazioaren balioespena aldaezintzat jotzen denetik sortzen hasiko da eta, edozein kasutan, prozesuak Asegurudunari sorrarazitako gastuen zenbatekoa gaineratuko zaio indemnizazioari.

Alderdi bakoitzak bere perituaren ordainsariak ordainduko ditu. Hirugarren perituarenak eta perituaren balioztapenak sor ditzakeen gainontzeko gastuen erdia Asegurudunak ordainduko du eta beste erdia Konpainiak. Dena dela, alderdietako batek peritazioa nahitaezko bihurtzen badu, kaltearen balorazio neurrigabea egin duelako, alderdi hori izango da gastu horien guztien erantzulea.

Konpainiak eta perituak ezbeharra gertatu den jabetzetan sartzeko, liburuak eta dokumentuak egiaztatzeko eta bere interesak defendatzeko arrazoizkoak diren neurri guztiak hartzeko eskubidea izango dute.

- Konpainiak kalte ezbeharra izan dela zehazteko egin beharreko ikerketak eta peritazioak ordaindu behar ditu eta, hala badagokio, baita horiek sortutako kalteen zenbatekoa ere. Edonola ere, ezbeharren aitortzea jaso eta ondorengo berrogei egunetan, Konpainiak ezagutzen duen egoeraren arabera zor dezakeenaren gutxienerako zenbatekoa ordaindu beharko du.

Aseguruak ahalbidetzen duenean eta Asegurudunak horretarako baimena ematen duenean, Konpainiak kalte ordainen ordainketa ezbeharra jasan duen objektuaren konponketarekin edo birjartzearekin ordeztu dezake.

Ezbeharra gertatu eta ondorengo hiru hilabeteetan Konpainiak ez badu kaltea konpontzen edo kalte ordainaren zenbatekoa ordaintzen, eta arrazoi justifikaturik edo egoz dakioken arrazoirik ez badu, kalte ordainari legeak ezartzen duen berandutza interesa gehituko zaio.

- **Baldintza Orokor, Partikular edo Berezietan frankiziaren bat adostu bada, Konpainiak bere gain hartuko du haren gehiegizko ezbehar gastuen ordainketa, aseguratutako zenbatekoaren mugara arte.** Konpainiak kalteak konpontzen baditu edo ezbeharra jasan duten ondasunak ordeztzen baditu, Asegurudunari dagokion berreskuratze ordainagiria aurkeztuko dio edo, Asegurudunaren aurretiko baimenarekin, **zordunketa egingo du primen ordainagiriaren ordainketa helbideratutako banku kontuan edo horretarako izendatutakoan.**

19. ARTIKULUA JAKINARAZPENAK

1. Aseguruaren Hartzailearen, Asegurudunaren edo Onuradunaren jakinarazpenak, baliodontzat joko dira soilik Aseguratzailari idatziz helarazi bazaizkio. Urruneko kontratazioaren kasuan, aldeek hala onartuta, kontratua burutu bada arrisku faktorearen deklarazioei eta poliza edo gehigarriak jaulkitzeko edo harpidetzeko beharrezko datuei lotutako komunikazioak hitzez egingo dira. Alderdiek baimena ematen dute gai honen inguruan izan ditzaketan telefonozko elkarrizketak bata besteari grabatzeko.
2. Poliza honen inguruan hartzailearen, asegurudunaren edo onuradunaren eta aseguratzailaren artean egin daitezkeen komunikazio guztiak, baliozkoak izango dira idatzizko bide hauek erabiliz: posta, posta elektronikoa edo SMS, aseguratzaileak eta hartzaileak poliza kontratatzeko unean edo ondoren adierazitako helbideetan, eta hartzaileak Aseguratzailari jakinarazi beharko dio, ahalik eta bizkorren, helbidea, telefonoa edo helbide elektronikoa aldatu duela.
3. Aseguru-artekari batek Aseguruaren Hartzailearen izenean Aseguratzailari egindako jakinarazpenek hark egindakoen eragin berbera izango dute, aurkakoa adierazi ezean.

20. ARTIKULUA. PRESKRIPZIOA, JURISDIKZIOA ETA ERREKLAMAZIOAK

Kontratu honetatik eratorzen diren ekintzak bi urteko terminoan amaituko dira, gauzatu ahal diren egunetik aurrera zenbatuta, kalte pertsonalei dagozkien prestazioak ezik, kasu horretan preskripzio-epea bost urtera luzatuko da-eta.

Kontratu hau jurisdikzio espainiarren menpe gelditzen da eta, haren barruan, kontratuaren ondoriozko egintzen ezagutzarako eskumeneko epailea Asegurudunaren helbideari dagokiona izango da. Horretarako, Asegurudunak Espainiako helbide bat emango du, berea atzerrian egonez gero.

Baldintza Bereziak

Finantza-zerbitzuetako erabiltzaileen babeserako ezarritako araudiarekin bat etorritik, aseguru kontratu honen interpretazio edo egikaritzean eztabaidaren bat sortuko balitz, Aseguru Hartzaileak, Asegurudunak, onuradunek eta kaltetutako hirugarrenek edo horien eskubidedunek erreklamazioa edo kexa jarri ahal izango dute. Horretarako idazkia igorri beharko dute MAPFRE Konpainiaren erreklamazioetarako zuzendaritzara gutunez (281 Posta-kutxa, 28220 Majadahonda, Madril) edo baliabide elektronikoz www.mapfre.es webgunean, MAPFRE Taldeko Sozietateen eta hartako Finantza-zerbitzuetako Erabiltzaileen artean sortzen diren gatazkek ebazteko araudiaren ("[mapfre.es](http://www.mapfre.es)" webgunean kontsulta daiteke) eta hura laburbiltzeko esku-hartze arauen (kontratu honekin batera Hartzaileari helarazten zaizkionak) arabera. Jakinarazten dizugu, bestalde, erreklamazioaren ebazpenarekin ados ez bazaude, eta gure arauei jarraikiz Asegurudunaren Defendatzaileak esku hartu dezakeen kasuetan, Defendatzaileari hura helaraztea eskatu ahal izango duzu.

Halaber, erreklamazioak eta kexak aurkeztu ahal izango dituzte Asegurutzaileren bezeroek eta haien eskubidedunek, aseguru agenteen eta banku-aseguruko operadoreen jarduketaren inguruan, aurrez aipaturiko Erregelamenduaren eta prozeduraren arabera.

Erreklamazioa paperean edo baliabide informatiko, elektronikoa edo telematikoen bidez egin ahal izango da, lege aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorritik eta 900 205 009 telefono-zenbakian.

Erreklamazio edo kexa hori onartzen ez bada, edo aurkeztu eta bi hilabeteko epea igarotzen denean, erabiltzaileak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzuen aurrean (Paseo de la Castellana, 44, 28046, Madril; helbide elektronikoa: www.dgsfp.mineco.es), eta, eskatuz gero, kasuan kasuko formularioa jarriko dugu haren eskura.

Alderdien berarizko adostasunarekin bakarrik jarri ahal izango dira bitartekariaren edo arbitroaren iritzian kontratu hau interpretatu eta betetzerakoan dauden desberdintasunak, indarreko legeriaren arabera.

Baldintza Bereziak

Baldintza Partikularretan baldintza hauetako baten bat aplikatzea adosten bada, Baldintza Orokorrek aldatutzat emango dira haien edukiaren arabera.

Baldintza Berezi hauen testuak lehenetsuta izango du Baldintza Orokorren aldean. Hortaz, Baldintza Orokorretako artikulua edo atal batek Baldintza Bereziaren zehaztutakoaren kontrakoa esaten badu, lehenengok ez dute baliorik izango.

MH-01 KLAUSULA. HIPOTEKAK, BAHIAK EDO KREDITU PRIBILEGIATUAK ORDAINTZEARI LOTUTAKO ONDASUNAK

Klausula hau Hartzaileak edo Asegurudunak Konpainiari aseguratutako ondasunen baten gaineko bahia edo hipoteka eratu edo kreditu pribilegiatu bat sortu izana jakinarazi badio aplikagarri izango da; horrekin berekin dakar eragindako ondasunei eta adierazi den hartzekodunari dagokienez, Aseguru Kontratuaren Legeko 40., 41. eta 42. artikuluetan ezarritakoa aplikatzea.

Aseguratzailerak ezin izango du zor den kalte-ordaina ordaindu eskubide errealdaren edo pribilegioaren baimenik gabe.

Hartzekodunei ezbeharrak jakinarazi eta hiru hilabete igarota haiek aurkeztu ez balira, kalte-ordaina ordaindu behar duen Aseguratzailerak bere betebeharratik libre geratuko da.

Interesdunen artean liskarra suertatuz gero edo indemnizazioa bermatutako betebeharraren indarraldia amaitu aurretik gauzatu beharko balitz, zenbatekoa interesdunek egoki ikusten duten moduan gauzatu da eta, Kode Zibileko 1.176. eta hurrengo artikuluetan ezarritako hitzarmenik ez balego.

Kalte-ordaina ezbeharrak pairatu duten gauzak berreraikitze erabili behar bada, Aseguratzailerak ez du kalte-ordaina ordainduko Aseguruduna eta Aseguru Kontratuaren Legeko 40. eta 41. artikuluetan aipatzen diren hartzekodunak gauza horiek berreraikuntzari lotuta geratzeko bermeen inguruan ados jartzen ez badira. Akordiorik lortu ezean, kalte-ordaina gordailutu egingo da, aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraiki.

Hipoteka, pignorazio edo pribilegioaren hartzekodunak ezingo du aurkaratu aseguru kontratua etetea, etete horren arrazoia jakinarazten zaionetik hilabete igaro arte.

Klausula honetan aipatzen diren hartzekodunek aseguruaren Hartzaileak edo Asegurudunak ordaindu gabeko saria ordaindu ahal izango dute, hauek aurka eginagatik. Helburu horretarako, Aseguratzailerak hartzekodun horiei Asegurudunaren ez-ordaintzearen berri eman beharko die.

MH-02 KLAUSULA. LEHENENGO ARRISKUAN ASEGUATUTAKO ZENBATEKOAK

Klausula hau txertatuta, kontratuak babesten dituen ondasunen infraaseguru kasuetarako proportzio erregela indargabetuta geldituko da.

Konpainiak bere gain hartuko du ezbeharren ordainketa, aseguratutako zenbatekoa muga gisa hartuta, ondasunen balioa aintzat hartuta hura nahikoa izan zein ez.

MH-03 KLAUSULA. ETXEBIZITZAREN JABEAK ALOKAIRU ERREGIMENEAN

Estaldua mota hau kontratatzea adostu denean, Aseguruaren Baldintza Orokorrek horrela aldatuko dira:

EKINTZA BANDALIKOAK

«Sute eta bestelako kalteak» bermea kontratatu bada, «ekintza bandaliko» gisa hartuko dira ere **maizterrak gezurrezko asmoz egindakoak eta ekintza horiekin aseguraturako ondasunetan eragiten diren kalteak estalita egongo dira**. Dena den, **gai horri dagozkion ondorengo irizpideak eta mugak aplikatuko dira:**

- **Ondasunen erabilerak eta gutxikako higadurak eragindako kalteak ez dira aseguraturata egongo, ezta haiek martxan mantentzeko beharrezkoak diren ohiko lanak ere.**
- **Errentari baten erantzukizun diren kalte guztiak ezbehar bakartzat joko dira, data desberdinetan gertatu badira ere.**
- **Konpainiaren gehieneko erantzukizuna 3.000 eurokoa izango da ezbeharreko, aseguratuaren urte eperako 6.000 euroko mugarekin.**
- **Dena dela, Asegurudunak bere gain hartuko du, ezbehar bakoitzean, alokairu hilabete bakoitzari dagokion zenbatekoa (gutxienez 600 euro).** Frankizia horren gaineko gehiegikeriak Konpainiak ordainduko ditu, aseguraturako mugara arte.

ETXEBIZITZAREN HABITAEZINTASUNA

Kontrataturako estaldurek estalitako ezbehar baten ondorioz eta kalteak konpontzeko aldian etxebizitza hustu behar bada, **kasu hauek baino ez dira aseguraturata egongo:**

- Alokairuen galera, benetakoa eta eraginkorra, konponketa aldian. **Gehienez urte batez,** ezbeharra gertatzen den egunetik zenbatzen hasita eta **12.000 euroko mugarekin edozein kasutan.**

Ezbeharra gertatzen den unean etxebizitza alokatu gabe baldin badago, ez da estaldura hau aplikagarri izango.

- Aseguraturako altzariak herri bereko edo ondoko herri bateko altzari-gordeleku batera eramateko gastuak, baita bertan egoteko gastuak ere **sei hilabeteko gehieneko eperako** eta aseguraturako etxebizitzara itzultzeko tokiz aldatzeko gastuak.

- Aseguratutako ondasunek etxebizitza hustu behar izatetik eratorritako garraioan paira ditzaketen kalteak, baita altzari-gordelekuan dauden bitartean ere, kontratu honetan hitzartutako estaldura-baldintza berberetan. Halere, **bazter geratzen da ondasunak garraioan edo altzari-gordelekuan dauden bitartean lapurtzea edo desagertzea.**

ERANTZUKIZUN ZIBILA

Estaldura hori kontratatu bada, Baldintza Orokorren 12. artikulua guztiz balio gabetuko da eta aseguruari hurrengo baldintzak aplikatzea adosten da, Konpainiak ordainduko ditu, **ezbehar bakoitzeko adostutako zenbatekoaren mugara arte**, Aseguruduna erantzule zibila denean, eta zuzenbideari jarraituta, hirugarrenei eragindako kalteak edo kalte materialengatik, eta haiek eragindako galerengatik kalte-ordainak, eta baita kostu judizialak eta ezarri ahalko zaizkion gastuak ere, erantzukizun horiek estaldura honetan aurreikusitako kasuen ondoriozkoak badira eta haietan oinarrituta euren erruarengatik edo zabartasunaren ondoriozko ekintzengatik gertatu badira.

ASEGURUAREN NORAINOKOA

Barne hartuko ditu hirugarrenei eragindako gorputzeko kalteak edo kalte materialak, baita kalte horiek eragin dizkieten galerak ere, baldin eta aseguruaren lepora badakizkioke honako hauen ondorioz:

- Aseguruaren baldintza partikularretan aipaturiko etxebizitzaren jabetza eta alokairu erregimeneko erabilera, edo gozamenerako hura lagatzea.
Jabeen erkidego baten parte badira, erkidego hori hirugarrentzat joko da, bere elementu eta eremu komunengan Asegurudunak eragin ditzakeen kalteei dagokienez. Honi dagokion kuota proportzionala ere egongo da aseguratuta, erkidegoaren portzentajearen arabera, eraikineko atal komunek hirugarrenei eragindako kalteen ondorioz; halere, **konpainiak banaka aseguratutako hainbat erkidegoren baturak eragiten duenean, erantzukizun maximoa haiei dagozkien kontratuetan zehaztutakoa izango da.**
- Etxeko langileen egiteak edo ez-egiteak, aseguruaren erantzukizunaren barruan ari diren bitartean. Etxeko langileak izango dira etxea eta honen instalazioak zaindaturak edo etxeko lanak egiteaz arduratzen direnak.
Estalduarak barne hartuko ditu, orobat, etxeko langileek agindu zaizkien lanak egiterakoan jasan izan ditzaketen gorputzeko kalteen ondorioz jurisdikzio arruntaren aurrean aseguruaren aurka egindako erreklamazioak.

Estaldua hau ez zaie aplikatuko Gizarte Segurantzaren alta eginda ez dauden langileei.

- Etxebizitzak edo haren instalazioek maizterrari edo horietaz gozaten duenari edo haiekin bizi diren pertsoneri eragindako kalteak, eta asegurdunaren langileei eragindakoak, lan-jardueraren ondorioz langileek jasan ditzaketen kalteak izan ezik.
- Berritze-lanak egiteagatik, lanen administrazio-iritzia lan txikiena denean. Horri dagokionez, lan txikitzat hartuko dira eraikinaren egiturako elementuetan eraginik izan ez dutenean.

DEFENTSA ETA FIDANTZA ZIBILEKO GASTUAK

Baldintza Partikularretan zehaztutako aseguratutako zenbatekoaren mugarekin, eta erreklamazioaren xedea poliza honen estalduran sartzen denean, hauek ere egongo dira bermatuta:

- Prozeduraren ondorio zibilak bermatzeko eskatutako fidantza judizialak eratzea.
- Kostu judizialak, zeinak Aseguratzailari ordaindu behar zaion polizan datorrena betetz kalte-ordainaren eta ezbeharrean Asegurdunaren erantzukizunaren zenbateko osoaren artean dagoen proportzio berean ordainduko diren.
- Aseguratzailak lege zuzendaritza bere gain hartuko du kaltetuaren erreklamazioari aurre egiteko eta bere kontu izango dira sor daitezkeen defentsa-gastuak. Asegurdunak beharrezkoa den laguntza eskaini behar du Aseguratzailak bere gain hartutako lege zuzendaritzari dagokionez. **Asegurdunak bere defentsa hautatzen badu, gastu judizialak bere kontu bakarrik izango dira.**
- Arestian aipaturiko prestazioak aseguruaren xedea den jarduera gauzaterakoan Asegurdunaren aurka aurkeztutako prozesu kriminaletan ere aplikatuko dira, defendatutakoak aurretik adostu duenean. Asegurdunak bere defentsa hautatzen bada bere kontu bakarrik izango dira defentsaren kostuak eta gastuak.
- Asegurdunaren aurka jarraitutako prozesu judizialetan zigorra ebatzen bada, Asegurdunak eskuduna den Auzitegi Nagusiaren aurrean helegitea jartzeko aukera izango du; helegitea bidezkotzat hartzen ez bada, interesdunari jakinaraziko zaio, eta nahi bada bere kabuz aurkeztu ahal izango du hark. Azken hau gertatuz gero jarritako errekurtsuak Aseguratzailaren interesen aldeko epaia izango balu, bere kontu den kalte-ordaina gutxituz, Aseguratzailak errekurtsu horrek sortutako gastuak bere gain hartu beharko ditu.

- Asegurudunaren eta Aseguratzaillearen artean Asegurudunaren defentsaren aurkako intereseko ezbeharrean oinarritu behar delako, Aseguratzailleak hari jakinarazi beharko dio, urgentea dela-eta, bere defentsarako beharrezkoak diren izapideak egin behar baditu ere. **Kasu honetan Aseguratzailleak bitako bat aukera dezake: Aseguratzailleak lege zuzendaritzari eustea edo bere defentsa beste pertsona bati ematea. Azken kasu horretan, Aseguratzailleak derrigorrez ordaindu beharko ditu zuzendaritza juridiko horren gastuak, 3.000 euroko mugarekin.**
- **Erantzukizun zibilari dagokionez adiskidantzazko akordioaren bat adostu bada, Asegurudunaren defentsa penala Aseguratzaillearen eskumena izango da eta beti alde aurretik defentsa jasotzen duen pertsonaren baimenarekin.**

Ordaindutako kalte-ordainei gehitutako arestian aipaturiko epaiketa-gastuen kasuan, muga hori gainditzen duten kantitateak ordainduko ditu Aseguratzailleak, **Espainiako epaitegietan burutzen badira.**

Polizaren estaldura-lurraldea espresuki zabaltzea adostu den kasuetan eta ekintzak atzerriko auzitegietan burutzen badira, Aseguratzailleak ordaindu beharreko zenbatekoa polizak ezbehar bakoitzeko ezartzen duen indemnizazio-muga izango da gehienez ere, indemnizazioa eta gastu judizialak batuta.

ESTALI GABEKO ARRISKUAK

Poliza honek ez du estaltzen honen ondoriozko kalte-ordainak:

- **Doluzko egitateak edo asegurudunak, haren soldatapekoek edo ardurapekoek nahita eragindakoak, baita aipatu aurreko edozeinek apustu, erronka eta liskarretan parte hartzearen ondorioz gertatutako kalteak ere.**
- **Etxebizitzak edo eraikinak eta hauen instalazioak (bereziki hur-hurreko hondamen deklarazioa dutenak) mantentzeari buruzko arau, lege, ordenantza eta araudiak nahita ez betetzeak eragiten dituen kalteak.**
- **Hodien edo eroanbideen korrosioa edo narriadura orokorra eragiten duten kalteak, beste edozein arrazoiengatik, baldin eta, alde aurreko ezbehar batean badaudela jakin ondoren, haien kantzeko behar diren konponketak egin ez badira.**

- **Zigorren eta isunen ordainketa, eta haien ez ordaintzearen ondorioak.**
- **Etxebizitzako maizterrei edo asegurudunaren langileei modu pertsonalean egoz diezazkiekeen erantzukizunak.**
- **Erabili edo gozatzeko, manipulatzeko, eraldatzeko, konpontzeko, zaintzeko, gordetzeko edo garraiatzeko Asegurudunari utzi, laga edo errentan utzi zaizkion edo haren kontrolpean dauden ondasun higigarri edo higiezinei eragindako kalteak.**
- **Hitzarmenen edo akordioen bitartez onartutako betebeharrak, zeinak ez lirateke legez exijitzekoak izango Asegurudunari akordio horiek izan ezean.**
- **Lan-jurisdikzioak edo administrazioak onetsi behar dituen erantzukizunak.**
- **Elkarteetan edo erkidegoetan gauzatzen diren kargu edo jardueren industriaren edo negozioen ustiapenaren ondoriozko erantzukizunak, eta ordaindutako profesio edo zerbitzuena ere, ohorezko tituluarekin burutzen direnean.**
- **Higiezinaren administrazioaren erantzukizun zibila bere xedearen berariazko jardueretan.**
- **Asegurudunaren zerbitzura lan egiten duten jardueren leialtasun eza.**
- **Motordun ibilgailuei, aireontziei, ontziei, droneak eta aeromodeloak barne, eta, oro har, arraunez, pedalez edo gizakiaren indarrez mugitzen diren gainerako mekanismoei esker mugitzen ez den bestelako ibilgailu edo objektuei eragindako kalteen erantzukizunak.**
- **Uretan zein airean ibiltzeko balio duen ontzi edo aireontziei, droneak eta aeromodeloak barne, eta, oro har, arraunez, pedalez edo gizakiaren indarrez mugitzen diren gainerako mekanismoei esker mugitzen ez den bestelako ibilgailu edo objektuei eragindako kalteen erreklamazioak.**
- **Erreakzio edo erradiazio nuklearrak edo kutsadura erradioaktiboak sortutako edozein kalte, gai horri buruzko legediak bildu zein ez.**
- **Polizak babesten duen gorputzeko kalte edo kalte materialen baten ondorio ez diren galera ekonomikoak, baita polizak babesten ez duen gorputzeko kalte edo kalte materialen baten ondorio diren galera ekonomikoak ere.**

- **Zuzenean edo zeharka airearen egoera naturalaren, lurreko, itsasoko edo lurrazpiko uraren, zorukoa nahiz lurpekoa eta, oro har, Ingurumenaren nahasmenek eragindako kalteengatik erantzukizunak, hauek sorturikoak:**
 - **Kutsatzaileen isurtzeak, injekzioak, biltegitratzeak, ihesak, deskargak, jarioak edo iragazketak.**
 - **Erradiazioak, zaratak, bibrazioak, usainak, beroa, tenperatura-aldaketak, eremu elektromagnetikoak edo beste edozein uhin-mota.**
 - **Ke toxikoak edo kutsagarriak, suteak edo eztandak sortuak.**
 - **Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legean eta hori garatzen duen araudian —Herri Administrazioak eskatzen duena edo eska dezakeena— oinarritutako ingurumen erantzukizunagatik edozein erreklamazio, edo 2004/35/EE Europako Zuzentarauaren (Ingurumen Erantzukizunari buruzko Zuzentaraua) transposizioan oinarritutako ingurumen erantzukizunagatik edozein erreklamazio, edo Herri Administrazioak urari, zoruari edo basa espezie nahiz ekosistemei eragindako kaltea konpontzeko eskatzen duen edo eska dezakeen edozein ingurumen erantzukizun —kaltea kutsadurak eragin duen gorabehera—, baita kalte hori saihesteko eginiko gastuak ere.**

ESTALDURAREN MUGATZE GEOGRAFIKOA

Polizaren estaldurak Espainian gertatutako gertaerengatik jurisdikzioari aurkeztutako erreklamazioak bakarrik hartuko ditu.

DENBORA EREMUA

Estalduak indarraldian lehenengo aldiz gertatutako kalteengatik izango ditu ondorioak, betiere, kalteak eragin dituena kontratua indarrean sartzeko dataren ondoren gertatu bada eta horren inguruko erreklamazioa modu frogagarrian jakinarazten bazaio aseguratzaileari, polizaren indarraldian edo kontratua amaitzen den egunetik hasi eta 24 hilabeteko epean.

MH-04 KLAUSULA. ETXEBIZITZAREN ERABILTZAILEAK **ALOKAIRU ERREGIMENEAN**

Klausula hau txertatuta, «Aseguratutako ondasunak» epigrafearen alderdi hauek aldatu egingo dira:

■ *Etxebizitza.*

Ez da sartuko, hura aseguratuko balitz, Jabekideen erkidego baten barruan egoteagatik ordaintzen den kuota proportzionala.

■ *Higigarriak.*

Hauek aseguratzekotan, **errentatzailearen altzariak** ere sartuko dira, zeinaren **balioa ezbeharraren aurretik zuen benetako balioan oinarrituta kalkulatu den**. Benetako balio gisa ulertuko da ordeztearen balioari haren erabileraren edo balioaren galeraren portzentajea kentzen lortzen dena.

Konpainiaren erantzukizuna, altzari horiei dagokienez, gehienez 3.000 eurokoa izango da ezbehar bakoitzeko.

«Erantzukizun zibileko» estaldurari dagokionez, kontratatutako estaldura hedatu eta etxebizitzaren instalazioetan ur-ihesen ondorioz hirugarrenei eragindako kalteak ere sartuko dira; ez dira estaliko, aldiz, etxebizitza berean eragindakoak, Asegurudunari egotz badakizkioke salbu.

MH-05 KLAUSULA. BIGARREN ETXEBIZITZAK **EDO SASOIKOAK**

Klausula hau polizaren baldintza partikularretan agertzen bada, aseguruaren baldintza orokorrak aldatu egingen dira, alderdi hauetan:

- **2.4. artikuluan adierazitakoa ez da aplikatuko. Aseguratutako ondasunen aldi baterako lekualdatzea. Horrenbestez, etxebizitzatik kanpora eramandako ondasunak ez dira inola ere estaliko, berme osagarriak kontratatu arren.**
- **Aseguratutako etxebizitza uzteko aldian, hau da, aseguruduna 10 egun baino gehiagoz etxebizitzatik kanpo dagoenean, ondasun, estaldura, berme eta kasu hauek salbuetsita egongo dira:**
 - **Terrazetan, portxeetan eta lorategietan dauden objektuak eta altzariak.**
 - **Hozkailu edo izozkailuetan utzitako elikagaiak erabat galtzea edo hondatzea, arrazoia edozein dela ere.**
 - **Etxebizitzaren barruko aseguratutako ondasunak ebastea eta bidegabe jabetzea.**

Lapurretaren kasuan, aseguratzailearen gehieneko erantzukizuna 3.000 eurokoa izanen da objektu bakoitzeko, baldintza orokorretan ezarritakoaren arabera muga txikiagoa aplikatu behar denean

salbu.

- **Etxebizitzaren bizigarritasunik ezaren prestazioa, Prestazio Bereziei buruzko 5.6. artikuluan eta 8. artikuluan arabera, polizake estalita okupazio batek eragindako kalteen konponketak asegurdunaren oporraldian etxebizitza okupatzea ahalbidetzen ez duenean baino ez da estaliko; ez dira oporraldizat hartuko asteburuak, ez eta laneko «zubiak» ere. Behin-behineko etxebizitzaren alokatzea gehienez ere hiru hilabetera mugatuko da, eta 3.000 eurora gehienez ere.**

MH-06 KLAUSULA. DEFENTSA JURIDIKOKO ESTALDURAREN ZABALKUNTZA

Defentsa Juridikoko estalduraren prestazioak honako kasu hauetara zabaltzen dira:

JABETZAKO ESKUBIDEA

Asegurdunak jasandako kalte eta galerengatik erreklamazioa, epai bidezkoa nahiz kanpokoa, estalita egongo da berme honen bidez, baldin eta polizaren Baldintza Partikularretan adierazitako etxebizitza kokatzen den higiezinaren sustatzailearen, kontratistaren eta eraikuntzaren zuzendaritza fakultatiboaren aurka bada, higiezinaren hondamendiagatik, akats ezkutuengatik, materialen edo langileen akatsengatik. Halaber, Baldintza Partikularretan adierazitako etxebizitzaren saltzailearen aurka Asegurdunak bidera ditzakeen lege-prozedurak estalita egongo dira, baldin eta epai irmoagatik eta erosketa aurretiko eskubidearen ondorioz, saldutako higiezin osoaren edo haren zati baten jabetza legal eta baketsua Asegurdunari gabetzen bazaio.

Gainera, aseguratutako etxebizitza kokatzen den erkidegoko gainerako lokal eta etxebizitzaren jabeen aurkako prozeduretan Asegurdunaren defentsa estalita egongo da ere, Asegurdunaren jabetzaren, bere ondasunen erabileran edo gozamenen nahasmenduagatik, edo elementu komunaren erabileratik eratorritako arazoengatik.

Kanpo geratuko dira Asegurdunaren aurka irekitzen diren prozedurak, horiek erkidegoaren gastu komunak eta beharrezkoak diren lanak egiteko aparteko eskoteak ez ordaintzeagatik ondorio direnean, eta horiek legearen arabera adostu badira.

ALOKATZEKO ESKUBIDEA

Berme honen bitartez estalita egongo dira Asegurdunak izan ditzakeen gatazkak, bere ohiko etxebizitzaren errentatzailearen aurrean.

Errenta ez ordaintzeagatik Asegurudunaren aurkako prozedurak kanpo geratuko dira.

MH-07 KLAUSULA. ERANTZUKIZUN ZIBILA ETXEBIZITZEN JABEGOAREN PERTSONA JURIDIKOENTZAT

Estaldura modalitate hau kontratatzea hitzartu denean, osorik indargabetuko da baldintza orokorretako 12. artikulua eta, beraz, ondorengo aseguru baldintzak aplikatuko dira.

Espresuki Baldintza Partikularretan sartuta dagoenean, Konpainiak ordainduko ditu, **polizaren Baldintza Partikularretan ezbehar bakoitzeko adostutako zenbatekoaren mugara arte**, Aseguruduna erantzule zibila denean, eta zuzenbideari jarraituta, hirugarrenei eragindako kalteak edo kalte materialengatik, eta haiek eragindako galerengatik kalte-ordainak, eta baita kostu judizialak eta ezarri ahalko zaizkion gastuak ere, erantzukizun horiek estaldura honetan aurreikusitako kasuen ondoriozkoak badira eta haietan oinarrituta euren erruarengatik edo zabartasunaren ondoriozko ekintzengatik gertatu badira.

ASEGURUAREN NORAINOKOA

Barne hartuko ditu hirugarrenei eragindako gorputzeko kalteak edo kalte materialak, baita kalte horiek eragin dizkieten galerak ere, baldin eta asegurudunari lepora badakizkioke honako hauen ondorioz:

- Pertsona juridiko gisa Asegurudunari zuzenean edo sorospidez, eska dakioken erantzukizun zibila, polizaren Baldintza Partikularretan aipatutako etxebizitzaren titularra izateagatik, baita bera osatzen duten zatiena, altzariena, apaingarriena eta beste elementu osagarri batzuen ere.

Jabeen erkidego baten parte badira, erkidego hori hirugarrentzat joko da, bere elementu eta eremu komunengan Asegurudunak eragin ditzakeen kalteei dagokienez. Honi dagokion kuota proportzionala ere egongo da aseguratuta, erkidegoaren portzentajearen arabera, eraikineko atal komunek hirugarrenei eragindako kalteen ondorioz; halere, **Konpainiak banaka aseguratutako hainbat erkidegoren baturak eragiten duenean, erantzukizun maximoa haiei dagozkien kontratuetan zehaztutakoa izango da.**

- Asegurudunaren higiezinan edo instalazioetan sortutako sute, leherketa edo uholdeen ondoriozko kalteak.
- Berritze-lanak egiteagatik, lanen administrazio-iritzia lan txikiena denean. Horri dagokionez, lan txikitat hartuko dira eraikinaren egiturako elementuetan eraginik izan ez dutenean.

- Etxeko langileen egiteak edo ez-egiteak, Asegurudunarentzat lanean ari diren bitartean. Etxeko langileak izango dira etxea eta honen instalazioak zaintzeaz edo etxeko lanak egiteaz arduratzen direnak.

Estaldurak barne hartuko ditu, orobat, etxeko langileek agindu zaizkien lanak egiterakoan jasan izan ditzaketen gorputzeko kalteen ondorioz jurisdikzio arruntaren aurrean Asegurudunaren aurka egindako erreklamazioak.

Estaldura hau ez zaie aplikatuko Gizarte Segurantzaren alta eginda ez dauden langileei.

DEFENTSA ETA FIDANTZA ZIBILEKO GASTUAK

Baldintza berezietan hitzartutako aseguratutako zenbatekoaren muga jarrita eta baldin eta erreklamazioaren xedea poliza honen estalduran sartuta badago, ondorengoak ere bermatuta egongo dira:

- Prozeduraren ondorio zibilak bermatzeko eskatutako fidantza judizialak eratzea.
- Kostu judizialak, zeinak Aseguratzaileri ordaindu behar zaion polizan datorrena beteaz kalte-ordainaren eta ezbeharrean Asegurudunaren erantzukizunaren zenbateko osoaren artean dagoen proportzio berean ordainduko diren.
- Aseguratzailak lege zuzendaritza bere gain hartuko du kaltetuaren erreklamazioari aurre egiteko eta bere kontu izango dira sor daitezkeen defentsa-gastuak. Asegurudunak beharrezkoa den laguntza eskaini behar du Aseguratzailak bere gain hartutako lege zuzendaritzari dagokionez.
Asegurudunak bere defentsa hautatzen badu, gastu judizialak bere kontu bakarrik izango dira.
- Arestian aipaturiko prestazioak aseguruaren xedea den jarduera gauzatzeko Asegurudunaren aurka aurkeztutako prozesu kriminaletan ere aplikatuko dira, defendatutakoak aurretik adostu duenean. **Asegurudunak bere defentsa hautatzen badu bere kontu bakarrik izango dira defentsaren kostuak eta gastuak.**
- Asegurudunaren aurka jarraitutako prozesu judizialetan zigorra ebatzen bada, Asegurudunak eskuduna den Auzitegi Nagusiaren aurrean helegitea jartzeko aukera izango du; helegitea bidezkotzat hartzen ez bada, interesdunari jakinaraziko zaio, eta nahi bada bere kabuz aurkeztu ahal izango du hark. Azken hau gertatuz gero jarritako errekursoak Aseguratzailaren interesen aldeko epaia izango balu, bere kontu den kalte-ordaina gutxituz, Aseguratzailak errekurso horrek sortutako gastuak bere gain hartu beharko ditu.
- Asegurudunaren eta Aseguratzailaren artean Asegurudunaren defentsaren aurkako intereseko ezbeharrean oinarritu behar delako, Aseguratzailak hari

jakinarazi beharko dio, urgentea dela-eta, bere defentsarako beharrezkoak diren izapideak egin behar baditu ere. Kasu honetan Aseguratzailleak bitako bat aukera dezake: Aseguratzailleak lege zuzendaritzari eustea edo bere defentsa beste pertsona bati ematea. **Azken kasu horretan, Aseguratzailleak derrigorrez ordaindu beharko ditu zuzendaritza juridiko horren gastuak, 3000 euroko mugarekin.**

- **Erantzukizun zibilari dagokionez adiskidantzazko akordioaren bat adostu bada, Asegurudunaren defentsa penala Aseguratzaillearen eskumena izango da eta beti alde aurretik defentsa jasotzen duen pertsonaren baimenarekin.**

Ordaindutako kalte-ordainei gehitutako arestian aipaturiko epaiketa-gastuen kasuan, muga hori gainditzen duten kantitateak ordainduko ditu Aseguratzailleak, **Espainiako epaitegietan burutzen badira.**

Polizaren estaldura-lurraldea espresuki zabaltzea adostu den kasuetan eta ekintzak atzerriko auzitegietan burutzen badira, Aseguratzailleak ordaindu beharreko zenbatekoa polizak ezbehar bakoitzeko ezartzen duen indemnizazio-muga izango da gehienez ere, indemnizazioa eta gastu judizialak batuta.

ESTALI GABEKO ARRISKUAK

Estalduran ez da sartzen hauen ondorioz sor daitezkeen indemnizazioen ordainketa:

- **Doluzko egitateak edo asegurudunak, haren soldatapekoek edo ardurapekoek nahita eragindakoak, baita aipatu aurreko edozeinek apustu, erronka eta liskarretan parte hartzearen ondorioz gertatutako kalteak ere.**
- **Etxebizitzak edo eraikinak eta hauen instalazioak (bereziki hur-hurreko hondamen deklarazioa dutenak) mantentzeari buruzko arau, lege, ordenantza eta araudiak nahita ez betetzeak eragiten dituen kalteak.**
- **Hodien edo eroanbideen korrosioa edo narriadura orokorra eragiten duten kalteak, beste edozein arrazoirengatik, baldin eta, alde aurreko ezbehar batean badaudela jakin ondoren, haiek kentzeko behar diren konponketak egin ez badira.**
- **Zigorren eta isunen ordainketa, eta haiek ez ordaintzearen ondorioak.**
- **Asegurudunaren langileei modu pertsonalean egoz diezazkiekeen erantzukizunak.**

- Erabili edo gozatzeko, manipulatzeko, eraldatzeko, konpontzeko, zaintzeko, gordetzeko edo garraiatzeko Asegurudunari utzi, laga edo errentan utzi zaizkion edo haren kontrolpean dauden ondasun higigarri edo higiezinei eragindako kalteak.
- Hitzarmenen ondorioz sortutako betebeharrak, hitzarmen horiekegon ezean Asegurudunari legalki exijitu ezin ahalko litzazkikeenak.
- Lan jurisdikzioak edo administrazioak aitortu behar dituen erantzukizunak.
- Asegurudunaren menpeko langileen ondasunei eragindako kalte materialak ordaintzea.
- Higiezinean edo honen instalazioetan egindako obrak, administrazioak obra txikitat dituenak ez badira.
- Higiezinean edo honen instalazioetan garatutako edozein jarduera komertzial, profesional edo industrialek eragin dituen kalteak.
- Eraikinaren zati komunetako kalteak, Aseguruduna jabeen erkidegoan dagoenean.
- Higiezinaren garajeen edo aparkalekuan dagoen ibilgailuari eragindako kalte materialak, edo ibilgailuaren beraren nahiz barruko osagarri edo objektuen ebasketa, lapurreta edo hondaketa, baldin eta kalte horiek aseguraturako eraikinean sutea, leherketa, uholdeak gertatu eta, ondorioz, sabaiak, hormak edo beste elementu edo instalazio batzuk erortzearen ondoriozkoak ez badira.
- Motordun ibilgailuei, aireontziei, ontziei, droneak eta aeromodeloak barne, eta, oro har, arraunez, pedalez edo gizakiaren indarrez mugitzen diren gainerako mekanismoei esker mugitzen ez den bestelako ibilgailu edo objektuei eragindako kalteen erantzukizunak.
- Uretan zein airean ibiltzeko balio duen ontzi edo aireontziei, droneak eta aeromodeloak barne, eta, oro har, arraunez, pedalez edo gizakiaren indarrez mugitzen diren gainerako mekanismoei esker mugitzen ez den bestelako ibilgailu edo objektuei eragindako kalteen erreklamazioak.
- Erreakzio edo erradiazio nuklearrak edo kutsadura erradioaktiboak sortutako edozein kalte, gai horri buruzko legediak bildu zein ez.
- Polizak babesten duen gorputzeko kalte edo kalte materialen baten ondorio ez diren galera ekonomikoak, baita polizak babesten ez duen gorputzeko kalte edo kalte materialen baten ondorio diren galera ekonomikoak ere.

- **Zuzenean edo zeharka airearen egoera naturalaren, lurreko, itsasoko edo lurrazpiko uraren, zorukoa nahiz lurpekoa eta, oro har, Ingurumenaren nahasmenek eragindako kalteengatik erantzukizunak, hauek sorturikoak:**
 - **Kutsatzaileen isurtzeak, injekzioak, biltegiratzeak, ihesak, deskargak, jarioak edo iragazketak.**
 - **Erradiazioak, zaratak, bibrazioak, usainak, beroa, tenperatura-aldaketak, eremu elektromagnetikoak edo beste edozein uhin-mota.**
 - **Ke toxikoak edo kutsagarriak, suteak edo eztandak sortuak.**
 - **Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legean eta hori garatzen duen araudian —Herri Administrazioak eskatzen duena edo eska dezakeena— oinarritutako ingurumen erantzukizunagatik edozein erreklamazio, edo 2004/35/EE Europako Zuzentarauaren (Ingurumen Erantzukizunari buruzko Zuzentaraua) transposizioan oinarritutako ingurumen erantzukizunagatik edozein erreklamazio, edo Herri Administrazioak urari, zoruari edo basa espezie nahiz ekosistemiei eragindako kaltea konpontzeko eskatzen duen edo eska dezakeen edozein ingurumen erantzukizun —kaltea kutsadurak eragin duen gorabehera—, baita kalte hori saihesteko eginiko gastuak ere.**

ESTALDURAREN MUGATZE GEOGRAFIKOA

Polizaren estaldurak Espainian gertatutako gertaerengatik jurisdikzioari aurkeztutako erreklamazioak bakarrik hartuko ditu.

DENBORA EREMUA

Estaldurak indarraldian lehenengo aldiz gertatutako kalteengatik izango ditu ondorioak, betiere, kalteak eragin dituen kontratua indarrean sartzeko dataren ondoren gertatu bada eta horren inguruko erreklamazioa modu frogagarrian jakinarazten bazaio aseguratzaileari, polizaren indarraldian edo kontratua amaitzen den egunetik hasi eta 24 hilabeteko epean.

Ohiz Kanpoko Arriskuen Asegurua

(Aseguruen Konpentsazio Partzuergoa)

ASEGURUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOAK OHIZ KANPOKO GERTAKARIEN ONDORIOZ ORDAINDU BEHARREKO KALTE-ORDAINEN KLAUSULA

Urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren legezko Estatutuaren testu bateginean ezarritakoaren arabera, aipatutako enpresa erakunde publikoaren aldeko gainordaina nahitaez barne hartu behar duen aseguru kontratu baten hartzaileak ohiz kanpoko arriskuen estaldura indarreko legerian ezarritako baldintzak betetzen dituen edozein aseguru erakunderekin hitzartu ahal izango du.

Espainian sortutako eta bertan kokatutako arriskuei eragiten dieten ohiz kanpoko gertaerek sorrarazitako ezbeharren ondoriozko kalte ordainak eta, pertsoneri eragindako kalteen kasuan, baita atzerrian gertatutakoak (Asegurudunaren ohiko egoitza Espainian badago) Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordainduko ditu, baldin eta hartzaileak bere aldeko dagozkion errekarguak ordaindu baditu eta egoera hauetakoren bat sortzen bada:

- a) Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estalitako ohiz kanpoko arriskua aseguru-erakundearekin kontratatutako aseguru-polizaren babesean ez egotea.
- b) Aseguru poliza horrek barne hartzen badu ere, aseguru erakundearen betebeharrak bete ezin izatea, judizialki konkurtsuan dagoelako edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak eragindako edo bere gain hartutako likidazio prozedura baten menpe dagoelako.

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak bere jokaera arautzeko aintzat hartuko du aipatutako Legezko Estatutuak, Aseguru Kontratuei Buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeak, otsailaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuak onartzen duen Arrisku aseguruaren Araudiak eta xedapen osagarriek xedatzen dutena.

LEGEZKO ARAUEN LABURPENA

1. ESTALITAKO OHIZ KANPOKO GERTAKARIAK

- a) Honako fenomeno naturalak: lurrikarak eta itsasikarak; ohiz kanpoko uholdeak, itsaso oldarra barne; sumendi erupzioak; ezohiko ekaitz ziklonikoak (120 km/h baino gehiagoko haize boladak eta tornadoak barne); eta meteorito erorketak.

- b) Terrorismoak, matxinadak, sedizioek eta herri iskanbilek sortutakoak.
- c) Indar Armatuak eta Segurtasun Indar eta Kidegoek bake egoeran egindako jarduerak.

Fenomeno atmosferikoak eta sismikoak, sumendien erupzioak eta gorpuz sideralen erorketa, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak eskatuta, Estatuko Meteorologia Agentziak (AEMET), Geografia Institutu Nazionalak eta gaian eskumena duten gainerako erakunde publikoek jaulkitako txostenen bitartez ziurtatuko dira. Izaera politikoa edo soziala duten gertaeren kasuan, baita Indar Armatuak edo Segurtasun Indarrek bake-garaian egindako egintzek edo jarduerak eragindako kalteen kasuan ere, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak eskumena duten jurisdikzio-eta administrazio-erakundeengandik gertatutakoari buruzko informazioa jaso ahal izango du.

2. BAZTERTUTAKO ARRISKUAK

- a) **Aseguru Kontratuaren Legearen arabera indemnizaziorik eragiten ez dutenak.**
- b) **Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari derrigorrezko errekarua egitea eskatzen ez duten aseguru kontratuak aseguratzen dituzten ondasunei eragindakoak.**
- c) **Aseguratutako gauzaren berezko bizio edo akatsen ondoriozkoak, edo mantenu eza nabariaren ondoriozkoak.**
- d) **Gatazka armatuak eragindakoak, aurrez gerra-deklarazio ofizialik egon ez bada ere.**
- e) **Energia nuklearretik eratorritakoak, kalte nuklearrengatik edo material erradioaktiboek eragindakoengatik erantzukizun zibilari buruzko maiatzaren 27ko 12/2011 Legean ezarritakoari kalterik egin gabe. Dena den, barne hartuko ditu aseguratutako instalazio nuklear batena sortutako kalte zuzen guztiak, baldin eta instalazioari eragiten dion ezohiko gertaeraren baten ondoriozkoa denean.**
- f) **Denboraren ekintza hutsari dagozkionak, eta modu iraunkorrean osorik edo partzialki urperatutako ondasunen kasuan, olatuen ekintza hutsari edo ohiko korronteei dagokiena.**
- g) **Aurreko 1.a) atalean adierazitakoez bestelako natura-fenomenoek sortutakoak, eta, bereziki, maila freatikokoaren igoerak, maldahigidurek, lurren lerradura edo asentamenduak, haitz-erorketek eta antzeko fenomenoek sortutakoak; salbuespena izango dira nabarmenki euri-uren eraginez gertatutakoak, baldin eta ur horiek**

inguruan ezohiko uholde-egoera sortu badute eta uholde horren garaian gertatu badira.

- h) Biltzeko eskubidea arautzen duen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoan xedatutakoari jarraituz egin diren bilera eta manifestazioetako jarduera jendetsuen ondoriozkoak, eta legezko grebetako jardueren ondoriozkoak, aurreko 1.b) atalean adierazitakoaren arabera ohiz kanpoko gertakarizat hartzen direnean izan ezik.**
- i) Asegurudunak fede gaiztoz eragindakoak.**
- j) Ondasunetan kalteak edo diruzko galerak eragiten dituzten fenomeno naturalengatik ezbeharretatik eratorritakoak polizaren jaulkipendata, edo efektuarena, beranduagokoa bada, ezbeharra gertatu baino zazpi egun lehenagokoa ez bada, salbu eta aseguraturako interesa ez egoteagatik aurrez kontratatu izatea ezinezkoa zela frogatzen ez bada. Gabealdi hori ez da aplikatuko poliza ordeztu edo aldatu egiten bada, erakunde berean edo beste batean, etenik gabe, estaldura zabaldu edo estaldura berriaren xede den partean izan ezik. Polizan aurreikusitako errebalorizazio automatikotik eratorritako kapital aseguratuaren parteari ere ez zaio aplikatuko.**
- k) Lehen prima ordaindu aurretik gertatutako ezbeharren ondoriozkoak, edo, Aseguru Kontratuaren Legean ezarritakoarekin bat, Aseguruaren Kontentsazio Partzuergoaren estaldura etenda dagoenean edo aseguru azkenduta dagoenean primak ordaindu ez direlako gertatutakoaren ondoriozkoak.**
- l) Ondasunetan gertatutako kalteen kasuan, zeharkakoak edo zuzeneko edo zeharkako kalteetatik eratorritako galerak, ezohiko arriskuen aseguruaren Araudian ordaingarritzat mugatutako diruzko galerak ez direnak. Zehazki, honako kalte edo galera hauek ez dute estalurarik: energia elektrikoaren, gas erregaien, fuel olioaren, gasolioaren edo beste jariakinen baten kanpo hornidura etetearen edo aldatzearen ondoriozkoak; aurreko paragrafoan adierazitakoez beste kalte edo galera zeharkako batzuk, ohiz kanpoko arriskuen estalduaren barnean egonik ere.**
- m) Haien tamaina eta larritasunagatik Estatuko Gobernuak «katasstrofe edo hondamen nazional» gisa kalifikatzen dituenak.**
- n) Lurreko ibilgailu automobilen erantzukizun zibilaren kasuan, estaldura honetatik eratorritako kalte pertsonalak.**

3. FRANKIZIA

I. Asegurudunaren kargurako frankizia izango da:

- a) **Kalte zuzenen kasuan, gauzetan eragindako kalteen aurkako aseguruetan, asegurudunaren kargurako frankizia ezbeharrak eragindako kalte ordaingarrien zenbatekoaren ehuneko zazpi izango da. Hala ere, ez da etxebizitzei, etxebizitzien erkidegoei edo automobilen aseguru-polizak aseguraturako ibilgailuei eragiten dieten kalteen frankiziarengatik inolako kendurarik egingo.**
- b) **Hainbat diruzko galeren aurrean, asegurudunaren kargurako frankizia polizan aurreikusitakoaren berdina izango da, denboran edo zenbatekoan, mozkin-galeradun ohiko ezbeharren ondorio diren kalteetarako. Mozkin-galerako ohiko ezbeharrak estaltzeko frankizia bat baino gehiago baldin badago, estaldura nagusirako aurreikusitakoak aplikatuko dira.**
- c) **Poliza batean kalteetarako eta mozkin-galerarako frankizia konbinatua ezartzen denean, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak kalte materialak likidatuko ditu, aurreko a) atalean aurreikusitakoa aplikatzeagatik egoki den frankizia kenduta, baita gertatutako mozkin-galera ere, estaldura nagusirako polizan ezarritako frankizia kenduta, kalte materialen likidazioan aplikatutako frankizia kenduta.**

II. Pertsonen aseguruetan ez da frankiziarengatik kenketarik egingo.

4. ESTALDURAREN HEDADURA

1. Ezohiko kalteen estaldura ohiko arriskuak estaltzeko aseguru-polizetan ezarri diren aseguraturako ondasun edo pertsona eta kopuruetaraino helduko da.
2. Aurrekoari kalterik egin gabe:
 - a) **Motordun ibilgailuetan kalte propioak estaltzen dituzten polizetan, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren ezohiko arriskuen estaldurak interes aseguragarria osorik bermatuko du, poliza arruntak parte batean besterik estaltzen ez badu ere.**
 - b) **Ibilgailuek lurreko ibilgailu automobiletako erantzukizun zibileko poliza besterik ez daukatenean, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren ezohiko arriskuen estaldurak ibilgailuaren balioa bermatuko du, ezbeharra gertatu aurreko unean, merkatuan onartzen diren erosketa-prezioetan.**

- c) Kontratuan ezarritakoari jarraiki eta aseguru pribatuen araudi erregulatzaileraren arabera hornikuntza matematikoa sorrarazten duten bizi aseguruaren polizetan, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren estaldurak Asegurudun bakoitzarentzako arriskuan dagoen kapitalari egingo dio erreferentzia, hau da, aseguraturako zenbatekoaren eta, aipaturako araudiaren arabera, aseguru entitateak osatuta izan behar duen hornikuntza matematikoaren arteko aldeari. Aipaturako zuzkidura matematiko horri dagokion zenbatekoa aipaturako aseguru entitateak ordainduko du.

KALTEAK ASEGURUEN KONPENSASIZIO PARTZUERGOARI JAKINARAZTEA

1. Aseguruaren hartzaileak, aseguratuak edo polizaren onuradunak, edo aurrekoen edo erakunde aseguratzaileraren edo aseguru kudeatzeko erabilitako aseguru-bitartekariaren kontura edo izenera aritzen denak Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoari estaltzea dagozkion kalteen ordaina eskatu beharko dio.
2. Kalteak jakinarazteko eta prozedurari eta ezbeharren tramitazioari buruzko informazioa lortzeko, hauxe egin beharko da:
 - Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoko Telefono bidezko Arreta Zentrora deitu (900 222 665 edo 952 367 042).
 - Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoko webgunera sartuz (www.conorseguros.es).
3. Kalteen balioztapena: Aseguruei buruzko legeriaren eta aseguru-polizaren edukari jarraiki ordaingarriak diren kalteen balioztapena Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak egingo du, baina ez zaio hala badagokio ohiko arriskuak estaltzen dituen erakunde aseguratzailerak egindako balioztapenari atxikiko.
4. Indemnizazioaren ordainketa: Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak bankuko transferentzia bidez ordainduko dio indemnizazio aseguruaren onuradunari.



24 ordu zure zerbitzura

Informazio-telefonoa:

918 365 365 / 900 822 822

Eta atzerritik:

(+34) 91 581 18 23

mapfre.es

